



II-B ERANSKINA

IX. LEGEGINTZALDIA

**2009-2013 IX. Legegintzaldirako Egitasmo eta Jarduera
Esanguratsuen Egutegia**

JARDUERA ESANGURATSUAK

INFORMAZIO FITXEN AGIRIA

LEHENDAKARITZA

1.- Gobernuko kideen eta EAEko Administrazioako goi kargudunen Etika eta Gobernu Onaren Kodea

1. HELBURUAK.

Etika eta Gobernu Onaren Kode honekin:

- Gobernuko kideek eta goi kargudunek beren gain hartzen dute herritarrekiko konpromisoa. Horren arabera, beren karguak garatzerakoan, haiek ez dituzte bakarrik ordenamendu juridikoan aurreikusitako betebeharrak beteko; horrekin batera, beren jarduerak etika eta jokabide printzipio jakin batzuek inspiratuta eta gidatuta egongo dira. Printzipio horiek gardentasunarekin, efikaziarekin, funtzio publikoetara erabateko arduraldia eskaintzearekin, partzialtasun ezarekin eta herritarrekiko orientazioarekin loturikoak izango dira.
- Gobernuaren eta zerbitzu publikoaren jardunari duintasuna ematen laguntzen da, eta kideei komunitatearentzako funtsezko lana egitearen harrotasuna sentitzeko aukera ematen die.

2. AURREKARIAK.

Azken urteetan zehar, ugariak dira beren zuzendaritzako langileen portaeraz arduratu diren mota guztietako enpresa, erakunde eta antolamenduak, eta horrek ez du bakarrik esan nahi lege arauak bete diren edo ez aztertu denik, baizik eta, baita ere, etika alderdiak zaindu direla, hau da, jarrera eta balioei eragiten dieten horiek. Eta horrela, ELGAtik eta nazioarteko beste erakunde batzuetatik exijitutakoa jarraituz, gure inguruneko herrialdeetan Gobernu Onaren Kodeak onartuz joan dira.

Legegintzaldi honetan zehar, Eusko Jaurlaritzak lege erreforma garrantzitsuak bultzatuko ditu funtzio publikoaren esparruan eta administrazio publikoko zuzendariei buruzko araudian. Bertan, bateragarritasun-ezen, ordainsarien, sarbidearen eta zerbitzutik bereiztearen erregimenak sartuko dira besteak beste. Helburua, beharrezko lege baliabideak eta baliabide materialak emanda, egungo euskal herritarren itxaropenak beteko dituen, kalitatezko zerbitzu publikoak eskainiko dituen eta administrazio publiko batek gizarte demokratiko batean bete behar duen paper garrantzitsua beteko duen Euskal Administrazio Publiko bat lortzea izango da.

Eta, gainera, aipatutako hauteskunde konpromisoaren esparruan, gobernatzeko modu berri baten aldeko apustua egiten da, hain zuzen ere Etika eta Gobernu Onaren Kode honetan islatzen dena.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

Gobernuko kide guztiek eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko goi kargudun guztiek.

4. JARDUERAREN ERAGINA

a) Araudian:

Bat ere ez.

b) Antolamenduan:

Bat ere ez.

c) Aurrekontu eta Finantzetan:

Bat ere ez.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk):

Urtero, Gobernuak Justizia eta Herri Administrazio sailburuaren txostenaren berri edukiko du. Txostena printzipio etikoen eta jokabidezkoen balizko urradurei buruzkoa izango da, eta lortu nahi den helburua horiek urratzea ahalbidetu dezaketen prozedura eta jarduerak aztertzea da, Administrazioaren erabakien egokitasuna bermatzeko egokitzat jotzen diren aldarazpen eta neurriak proposatzearekin batera.

e) Erakunde harremanak:

Bat ere ez.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

2010. urtea.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

Bat ere ez.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

Bat ere ez.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

Euskal gizartea orokorrean, Etika eta Gobernu Onaren Kodearen onespena barreiatuz hedabideen eta Irekia-ren bitartez, azken hori Eusko Jaurlaritzak herritarren parte-hartzerako duen tresna den heinean.

2.- Eko-Euskadi 2020

1. HELBURUAK.

EkoEuskadi 2020 Euskadirentzako Garapen Iraunkorraren Estrategia modura antolatu da, 2020 muga izanez. Estrategia honek, lehenengo aldiz, aurre egingo dio Euskadin Garapen Iraunkorreko helburu estrategikoak definitzearen eta zeharkako iraunkortasunetik eratorritako sektore planetan horiek sartzeko atazari. Zentzu horretan, bere funtzioa alderdi ekonomikoen, gizartekoen eta ingurumenekoen artikulazio osoa egitea da, horiek garapen iraunkorrarekin zerikusia dutenean. Gauzak horrela, Eusko Jaurlaritzaren ekintza politika orientatu egin behar da horrelako herrialde proiektu baterantz: *ekonomikoki lehiakorra, berritzailea eta ekofizientea, gizartearen aldetik kobesioa duena eta arduratsua dena eta ingurumenaren aldetik ondare naturala eratzen duten ondasun eta baliabideen kalitatearekiko konpromisoa duena.*

EkoEuskadi 2020 *Gobernuaren ekintza politikoaren zeharkako erreferentzia puntu berri bat* izango da, nahiz eta sektoreko politika eta helburuen zein kasuan kasuko sailen planen adierazpena sail bakoitzaren berezko kudeaketa eremuaren barruan jarraituko duen.

Helburuak:

EkoEuskadi 2020 Garapen Iraunkorraren Estrategia *Herrialde proiektu* baten helburu orokorraren edo helmugaren gainean diseinatuko da, hurrengo alderdiak beteko dituen ekonomia, gizarte eta garapen iraunkorreko *garapen eredu berri baten* inguruan:

- *Ikuspegiari dagokionez*, koka ezazu Euskal Autonomia Erkidegoa konpromisoa hartuta duen eta arduratsua den gizarte bat bezala epe ertainean, “3. industria iraultza” deitzen den horren buruan jartzeko gai dena (ekoizpen sistemen pixkanakako deskarbonizazioa eta herritarren sentsibilizazioa energia kontsumoaren jarraibideen gainean) eta gure herrialdeari nazioarteko erreferente izatea ahalbidetuko diona ekonomia ekofizientearen esparruan (zerbitzuak eta teknologia iraunkorrak ematea, merkatu berde berriak, eta abar) eta ikerketarenean, berrikuntzarenean eta ezagutzarenean, edo, beste era batera esanda, Ekonomia Berdearen lider izatea ahalbidetuko diona.
- *Giza oparotasunari eta denboran mantentzeari dagokienez*, ekonomia eta gizarte beharrak aseko ditu, eta egungo belaunaldiaren baliabide naturalak mantendu ere bai, horrek etorkizuneko belaunaldiek beren beharrak asetzeko edukiko duten gaitasuna zalantzan jartzea ekarri gabe.

2. AURREKARIAK.

EkoEuskadi 2020 ekimen berritzailea da, izan ere, lehenengo aldiz sartzen du Euskal Autonomia Erkidegoaren nahiz gainerako autonomia erkidegoen ibilbidean iraunkortasunari buruzko zeharkako alderdi bat, koherentzia mantenduz Garapen Iraunkorrari buruzko estrategia europarrekin eta espainiarrarekin.

Hura definitzerakoan, gaiari buruz dauden plan eta lan ugariak aintzat hartu dira. Edonola ere, oinarritzko erreferentzia gisa *EBren Garapen Iraunkorraren Estrategia* hartu da, 2001eko maiatzaren 15ekoa eta Kontseilu Europarrak onetsitakoa 2006ko ekainean, gida-esparru egokiena dela uste delako hausnarketa hau egite aldera.

EkoEuskadi 2020ak hauteskunde programan bildutako konpromisoei nahiz lehendakariak inbestiduraren egunean adierazitakoei erantzuten die. Egun hartan EkoEuskadi aipatu zuen etorkizuneko erreferentzia modura eta estrategia eta politikako ibilbide orri modura. Hori denbora gutxi igarota berretsi zuen (ekainaren 5ean, Ingurumenaren Mundu Mailako Eguna) Gobernu Kontseiluak Urdaibaiko Adierazpen edo Itunean. Halaber, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak Legebiltzarrean edukitako agerraldian xehatu zen, hark bere sailaren Jarduera Ildoak aurkeztu zituenen.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

Hasiera batean, Eusko Jaurlaritzaren sail guztiak sartuta egongo lirateke, Lehendakaritza buru izanez.

Urdaibaiko Itunean jada aurreikusitako Sailen Arteko Batzordearen bitartez, EkoEuskadi 2020ak iraunkortasunaren alorrean landu beharreko politikak, ildoak eta esparruko helburu estrategikoak finkatuko ditu. Lehendakaria prozesuaren lider politikoa da, eta batzordeko presidente izango da. Dagokion eskumen esparruan, sail bakoitzak egokitzen jotako plan eta jarduera sektorialak definitzeko, garatzeko, barreiatzeko eta haiei balioa emateko ardura edukiko du, iraunkortasunaren helburu komunerantz adostasunez eta aldi berean abiatzeko garaian.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian:

Sailek beren eskumenen esparruan diseinatuko dituzten plan eta jardueren ezarpen eta kudeaketak araudia garatzea ere ekar dezake.

b) Antolamenduan:

EkoEuskadi 2020ak lan batzorde ezberdinak edukiko ditu lantze fasean (ikus 7a), baina hura ezartzeko ez da aurreikusi administrazio enterik sortu, egokitu edo ezabatzea edota horien gainean aldarazpen funtzionalak, eraketakoak edo funtzionamendukoak egitea.

c) Aurrekontu eta Finantzetan:

Zeharkako jarduera bat denez, 2020ra arte bitarteko burutzapen horizonte batekin planteatuta gainera, eta bertan sail ezberdinen esku-hartzea egongo denez, ezinezkoa da erabat gastuari buruzko kopuru ekonomikoak edota hura finantzatzeko izango diren moduak aurreratzea.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak bere gain hartuko ditu diseinuarekin zerikusia duten gastuak, eta bere ohiko aurrekontuaren kontura gauzatuko dira gastu horiek.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk):

EkoEuskadi 2020ak izaera ekonomikoko neurriak (“Hobari fiskalak ingurumen kudeaketako ziurtagiriak dituzten enpresentzat”), gizarte izaerakoak (“Immigrazioko eta kulturen arteko bizikidetzako programentzako laguntzak EAeko udalerrietan”, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailarena) eta ingurumen motakoak (“Euskadiren baso estalkiaren papera bultzatzea CO₂ estolda-hobi den partetik”, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailarena) izango direnak erantsiko ditu, eta horiek bakarka edo zeharka garatu beharko ditu sail batek edo hainbatek.

Eusko Jaurlaritzaren Sail guztien esku-hartzea edukiko lukeen zeharkako neurri bat hau izan liteke: CO₂ Zero Administrazioa.

Halaber, beste neurri batzuk ere definituko dira. Horiek, sail jakin bat buru badute ere, iraunkortasun irizpideak sartuko dituzte iraunkortasunaren hiru eremuetan (ekonomia, gizarte eta ingurumena). Horren adibide “Etxebizitzak Zaharberitzeko Plana” izan daiteke, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak sustatua; bertan, ekonomiaren alorreko aldagaiak (eraikuntzaren sektorea dinamizatzea), gizartearen alorrekoak (enplegua eta hondatutako guneak lehengoratzea) eta ingurumenekoak (lurzorua neurritz gain artifiziala ez bihurtzea, energia eraginkortasuna zaharberritzerakoan edo hobari fiskalak etxebizitzan energia aurreztuz gero) sartuko ditu.

e) Erakunde harremanak:

Sailak berak izango dira beren plan eta jarduera sektorial propioak diseinatuko dituztenak, beraz, horiek gorabehera, lankidetzak eta koordinazioko planteamendu ezberdinak sortu ahalko dira beste administrazio batzuekin diseinuaren, burutzapenaren eta jarraipenaren fase ezberdinetan.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

2010/2020.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

Zeharkako izaera duen jarduera bat denez, EkoEuskadi 2020ak beharrezko koordinazio mekanismoak bilduko ditu sailek martxan jartzen dituzten plan eta jarduera sektorial guztiak Garapen Iraunkorreko estrategia honen inguruan integratzeko diseinatu eta egituratu daitezten eta adostutako helburuak lortzen lagun dezaten.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

EkoEuskadi 2020 Garapen Iraunkorreko Estrategiaren inguruan garatu beharreko lanen oinarrian egongo den antolamendu eskemaren proposamenak “Etorkizuneko Batzorde” bat bilduko du. Bertan, 10-15 aditu egongo da, independenteak eta ospe adierazgarrikoak, eta haiek helburu estrategikoak definitzen lagunduko dute. Batzordea aholku organo nagusi modura antolatuko da, erronka berriei dagokienez.

2020an horizontea duen Euskadirentzako Garapen Iraunkorreko estrategia honen ezarpen prozesuan egongo den parte-hartzea ahalik eta zabalena izango da. Bertan esku hartzen duten agente guztiek eta gizarteak orokorrean beren ideiak eta ikuspegiak aurkezteko aukera edukitzea lortu nahi da.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

EkoEuskadi 2020ak planteatzen duen ikuspegian, beharrezkoa da haren barreiapen gorenena bat etortzea tresna berriaren izaerarekin.

EkoEuskadi 2020ak aurreikusi egingo du informazioaren gizartean ageri diren tresna eta mekanismo anitzak erabiltzen direla, arreta berezia jarritz Iraunkortasunaren aldeko Foro Iraunkorra antolatzean. Horren bitartez, posible izan beharko da euskal gizarteak barneratzea, parte-hartze aktiboa edukitzea eta protagonista ere izatea Herralde iraunkor baten eredia antolatzerakoan erantzukizun partekatuko eta gobernantzako esparru batean.

3.- IREKIA. Gardentasunari, Komunikazioari eta Parte-hartzeari Irekitako Gobernu Proiektua.

1. HELBURUAK.

Irekia herritarren eta Administrazioaren arteko komunikazio zuzenaren alde egiteko bide modura planteatu da. Entzuna izan nahi duen gizarte korrante bat dagoela ikusita, Gobernuak hartutako neurriak azaltzeko beharra sortu da, eta baita etorkizuneko jardueretarako dauden asmoen berri ematekoa ere. Hori modu argian, errazean eta herritarrentzako ulergarrian egitekoa litzateke, eta lehen eskutik emango litzateke.

Helburuak:

- Herritarrei beren iritzi guztiak erraz, modu irekian, publikoki eta berehala adierazteko esparru bat ematea. Esparru horretan ere kargu publikoen erabakiei erantzun ahalko zaie, haiek eztabaidatu eta azaldu, teknologia berrien bitartez garatutako metodologia berdin hori erabilita.
- Lankidetzako lan bat egin ahal izateko aukera eskaintzea, bi alderdien ekarpenekin etorkizuneko proposamenetan, horiek Administrazioetik proposaturikoak nahiz herritarrek proposatu eta Administrazioak bere gain harturikoak izan alde batera utzita.
- Ohiko Hedabideei eta ziber-kazetari berriei Gobernuak sortutako ikus-entzunezko materiala eskuratzeko aukera eskaintzea, eta hori azkar, zuzenean eta hartzailereantzako inolako kosturik gabe egin ahal izatea. Ondorioz, material guzti hau ondoren tratatu edo askatasunez barreiatzeko behar diren ikus-entzunezko formatuetan eskaini ahal izatea planteatzen da.

2. AURREKARIAK.

Ez da aurrekaririk ezagutzen Euskal Gobernuaren barruan.

Lehendakariaren hauteskunde konpromiso bat da; bertan, *Open Government* delakoaren eta Administrazio garden eta parte-hartzearen aldeko apustua adierazi zuen.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

Helburu hauek guztiak gauzatuko diren plataforma eratzen duten tresnak Lehendakariaren ardurapekoak badira ere, edukiak lantzerakoan Eusko Jaurlaritza eratzen duten sail eta entitate guztiek esku hartzen dute, sail bakoitza bere alorreko erantzunen erantzule delako eta informazioa eman eta beharrezko argibideak eskaintzeko ardura ere baduelako.

Lehendakariak, azpiegitura informatikoa sortu eta mantentzeaz gain, sail bakoitzak behar duen ikus-entzunezko materiala eta multimedia materiala emango du eta hura Internet bidez barreiatzeko ardura hartuko du.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian:

Maila honetan ez da alor honi eraginik ekartzea aurreikusi.

b) Antolamenduan:

Proiektu hau Gobernu Irekirako eta Interneteko Komunikaziorako Zuzendaritzak garatuko du, Lehendakaritzaren Komunikaziorako Idazkaritza Nagusiaren mendekoa.

Jarduera hau garatzeko, EJIE, SArekin Kudeaketa Enkargu bat eratzea aurreikusi da, eta baita EITBrekin jada badagoen Hitzarmenean Eranskin bat sartzea ere.

c) Aurrekontu eta Finantzetan:

Gobernu Irekirako eta Interneteko Komunikaziorako Zuzendaritzaren Irekia garatzeko hasierako kostua eta beste esku-hartze batzuen 99.488,736 eurokoa da (BEZ barne), EJIE, SAri egindako eta 2009 ekitaldian gauzatutako Kudeaketa Enkargu baten bitartez.

Gainera, 2010eko aurrekontuan, hurrengo gastuak aurreikusi dira Zuzendaritzaren esku-hartzerako Interneteko Komunikazioaren barruan (horrek hartzen du Irekiaren garapen eta mantentze lanen gastu nagusia):

- EJIEri Kudeaketa Enkargua egitea aplikazio berrietarako: 100.000 €.
- WEB edukiak eguneratzea: 200.000 €.
- Itzulpenak: 145.000 €.
- Gizarte Sareen erabilera optimizatzea: 300.000 €.
- Aplikazio Informatikoak: 7.000 €.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk):

Koordinazio orokorrerako mekanismo bat jarri behar da, Interneten herritarren aldetik jasotako eta hartutako mezuek banatzea ahalbidetu dezan sail eskudun guztietara iritsaraziz. Halaber, antolamendu protokoloa finkatu behar da sail bakoitzaren barruan, horren bitartez aipamenei zuzenean erantzuteko. Halaber, sailei protokolo bateratuak eman behar zaizkie, jorratutako gaiak hainbat zuzendaritza edo sailei eragiten dietenerako.

Bestalde, beharrezkoa da alde aurretiko koordinazio bide bat lantzea, komunikazio hauek Legebiltzarreko Galderekin erlazionatzeko.

Zuzenean-ekin pasabide bat finkatu da, herritarrek akatsez Irekian uzten dituzten galdera eta gai pertsonalak eta berariazkoak birbideratzeko.

e) Erakunde harremanak:

Bigarren fase batean, Eusko Legebiltzarrekin, foru aldundiekin eta udalekin harremana edukitzea aurreikusi da, gure proiektu erdua zabaltzeko aukera edukitzeko eta irizpideak bateratzeko. Horrek herritarrei erraztu egingo die administrazio guztiekiko duten harremana, haiek eskumenak partekatzen dituzten edo herritarrei eragiten dieten gaiak partekatzen dituzten kasuan.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

2010/2013

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

Erakunde arteko batzorde bat sortzeko aukera aurreikusi da, esku hartzen duen erakunde bakoitzaren gaineko jarraipena egiteko eta parte-hartze maila ikusteko, eta jardueraren ebaluazioa jorratzeko.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

Ez dira interes talde itxiztat hartzen, izan ere, Jarduera Garrantzitsu osoa irekita egongo da parte hartu nahi duten herritarrek parte hartu dezaten, Administrazioetik horiek taldekatzeko beharrik egon gabe. Izatekotan herritarrak izango dira bat-batean lan taldeak sortuko dituztenak, gai bakoitzean parte hartzeko duten nahia gorabehera.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

Jardueraren eremu nagusia Internet izango da, nahiz eta etorkizunean beste euskarri batzuetan publizitate kanpainak planifikatu edo egiterik ere egongo den.

Zuzendaritzak parte hartuko du Unibertsitate, Fundazio, eta abar ezberdinetan egingo diren Jardunaldietan eta haiek egindako eskaria gorabehera. Bestalde, jardunaldi publikoak antolatzeko aukera aurreikusi da, horietan Interneteko komunikazioa eta *Open Government* delakoa jorratzeko.

4.- Politika publikoen Ebaluazioaren sustapena, Gobernantzako estrategia baten esparruan.

1. HELBURUAK.

Gobernantzaren funtsezko ikuspegietarako bat gobernu eraginkorra da. Gobernu eraginkortzat hartzen da agenda publikoko arazoak arrakastaz konpondu eta horiei aurre egiteko gai diren sistema publikoen maila. Horretarako, beharrezkoa da ebaluazioko eta erantzukizuna gain hartzeko sistema eraginkorragoak edukitzea.

Jarduera honen helburua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan politika publikoen ebaluazioaren kultura sustatzea da, hurrengo helburu estrategikoekin:

- Politika publikoen kalitatea eta baliabide publikoen kudeaketako eraginkortasuna hobetzea.
- Kudeaketa gaitasunak hobetzea, bai arduradun politikoenak, bai Administrazio Publikoko profesionalenak.
- Gardentasuna eta parte-hartzea sustatzea politika publikoen kudeaketan.

Jardueraren helburu operatiboak hauek dira:

- Politika publikoen ebaluazioan esku hartzen duten pertsonen sareak sortzea, ezagutzak, esperientziak eta proiektuak partekatze aldera.
- Gai honetan sentsibilizazio eta prestakuntza ekintzak bultzatzea, arduradun politikoei eta profesional publikoei zuzenduta.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren esparruan ebaluazioaren praktika errazten duten ereduak eta tresnak diseinatu eta garatzea.
- Ebaluazioak eta ebaluazioaren kultura barreiatzea eskura dauden bide ezberdinak erabilita eta, batez ere, Internet bidez.
- Beste administrazio publiko batzuekin lankidetzan aritzea, lehen aipatutako helburuak lortzera zuzendutako ekimenetan.

2. AURREKARIAK.

Eusko Jaurlaritzaren sailek eta erakunde autonomoek ebaluazio batzuk egin dituzte, eta prestakuntza ekintza batzuk garatu dituzte politika publikoen ebaluazioaren gainean. Gaur arte, ordea, ez da politika korporatiborik egin gai honetan, eta ebaluazioari buruzko esperientziak eta ezagutzak partekatzea ere ez da bultzatu.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK.

Ekimen honek zeharkako izaera du EAEko Administrazioaren multzorako, eta, ondorioz, bere sail guztiak eta sektore publikoa harrapatzen ditu.

Jarduera honen lider hauek izango dira: Lehendakariakako Koordinaziorako Idazkaritza Nagusia, bertako Komunikazioko Zuzendaritzaren bitartez; Justizia eta Herri Administrazio Saila, Berrikuntzaren eta Administrazio Elektronikoren Zuzendaritzaren bitartez; eta Ekonomia eta Ogasun Saila, Ekonomia, Plangintza eta Kontrol Ekonomikoko sailburuordetzaren bitartez. Jardueraren izaera estrategikoa da batez ere, administrazio publikoan Gobernatzaren oinarritzko printzipioak eransteko aldera (gardentasuna, parte-hartzea eta eraginkortasun-efikazia).

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian:

Hasiera batean, ekimen honetarako ez da araudiaren aldetik babesik behar, eta nahitaez araudia garatzea edo hartan aldarazpenak egitea ez dakar ezta ere.

Aitzitik, ekimen honetan aurreikusitako jardueren emaitza modura, agian ikusiko da xedapen arautzaileak proposatzeko komenigarritasuna, horien bitartez kudeaketa prozesu jakin batzuetan politika publikoen ebaluazioaren ikuspegia sartzeko, adibidez, plangintza estrategikoan edo aurrekontuen kudeaketan.

b) Antolamenduan:

Jarduera hau sarean egindako funtzionamendu eredu batean oinarritzen da, eta horrek ez du eragiten antolamendu egiturarik sortu edo aldarazi beharra.

c) Aurrekontu eta Finantzetan:

Ekimen honen esparruan aurreikusitako jarduera gehienak sailek eta erakundeek finantzatzeko dituzte, bakoitzaren ardura nork duen gorabehera. Edonola ere, jardueraren garapenean beharrezkotzat joko balitz, zeharkako jardueraren bat egiterik egongo litzateke, jarduera hori korporazio mailan bultzatzen duten zuzendaritza ezberdinek finantzatuta. Edonola ere, ez da aurreikusi zeharkako jarduera hauek kostu altua edukiko dutenik.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk):

Politika publikoen ebaluazioak eragina izan dezake Gobernuaren beste jarduera batzuetan, adibidez Gobernu Irekian, berrikuntza publikoan, gobernuaren ekintzen koordinazioan, plangintza estrategikoan edo aurrekontuen kudeaketan. Jarduera hauen arteko koordinazioa ebaluazioko sailen arteko sarearen bitartez garatuko da.

e) Erakunde harremanak:

Erakunde arteko lankidetzak sustatuko da politika publikoen ebaluazioaren gain.

Izan ere, Eusko Jaurlaritzak Kalitatearen eta ebaluazioaren administrazio arteko sarean parte hartzen du 2009ko ekainetik aurrera, Estatuko Administrazio Orokorrarekin eta beste administrazio autonomiko batzuekin batera, eta egokitzen jotzen da hori foru eta udal eremuetara ere zabaltzea.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

2009/2013.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

Jarduera hau garatzeko lankidetzan lan taldeen eta sail eta erakunde arteko sareen bitartez garatuko da. Horietakoren bat funtzionatzen ari da jada (Kalitatearen eta Ebaluazioaren administrazio arteko sarea).

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

Jarduera honen esparruan eskuratzen diren emaitzen gardentasuna eta barreiapen publikoa sustatuko dira, baina ez da beharrezkotzat jotzen gizarte agenteen parte-hartzea jardueraren multzo osoan. Aldiz, haien parte-hartzea jarduera jakin batzuetara bakarrik mugatuko da.

8. JARDUERAREN BARREIAPEN MULTZOA.

Barne eta kanpo barreiapen zabala egingo da jarduera honen gainean, ebaluazioaren barreiapena jardueraren beraren helburuetako bat den partetik.

5.- Kanpo Ekintzako esparru estrategikoa.

1. HELBURUAK.

Plantatzen diren helburuen abiaburuan dagoena da kanpo ekintzaren egitekoa Euskadi Kanpoaldean proiektatzea dela, EAE kokatzen den lurralde eremu handiagoekiko elkarrekiko leialtasunean bere interesak defendatzearekin batera.

Horrekin batera, bost kontinenteetan euskal herritar eta talde ugari egoteak garrantzi bereziko elementu bat gehitzen du eta hori modu irekian eta anitzean aintzat hartu behar da.

Jardueraren helburuak hauek dira garrantzia maila gorabehera antolatuta:

- Kanpo gaietan ekintza unitatearen printzipioa Euskal Administrazioaren kulturaren parte izatea lortzea.
- Euskadik munduan duen posizioa hobetzea.
- Euskadirentzat interes politiko eta ekonomiko handieneko eskualdeekin harreman egonkorrak ezartzea.
- Euskadik mundu globalari buruz duen ezagutza hobetzea.
- Kanpo Ekintzako Eredu bat instalaturik uztea.

2. AURREKARIAK.

Gaur egun, Kanpo Harremanetarako Estrategia izena duena dago indarrean, Gobernu Kontseiluak onetsitakoa 2005. urtean eta indarraldi gisa 10 urte aurreikusi zituena.

Ekimenak bat egiten du lehendakariak Eusko Legebiltzarrean, 2009ko ekainaren 25eko Osoko Bilkuran, edukitako agerraldiarekin nahiz Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiak egindakoarekin 2009ko urrian, Legegintzaldiko Laneko ildo orokorrak aurkezte aldera. Biekin bira prozesu bati ekin zaio aipatutako estrategian bildutako planteamendu Politikoetan; ondorioz, beharrezkoa da Esparru estrategiko berri bat lantzeko prozesu bati ekitea.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

Sail guztiek kanpo dimentsio bat eduki badezakete ere, hura biziagoa da hurrengoetan:

- Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila.
- Kultura Saila.
- Enplegua eta Gizarte Gaietako (Lankidetzeta, Garapena eta Immigrazioa) Saila.
- Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila.
- Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.

Konstituzio Auzitegiaren 165/1994 Epaiak, maiatzaren 6koa, autonomia erkidegoen kanpo gaitasuna onartzen du, beren eskumen propioen garapenean oinarrituta. Zentzu honetan, aipatutako sailek ekintza argia behar dute kanpoaldean, berezkoak dituzten helburuak betetzeko.

Aurrekoarekin batera, interesgarria da Justizia eta Herri Administrazio Sailaren esku-hartzea, funtsean Giza Eskubideei dagokien horretan.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian:

Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpoko euskal gizatalde eta etxeekiko harremanetarako maiatzaren 27ko 8/1994 Legeak erakunde ekintzako lau urteko plana lantzea agintzen dio Kontseiluari, Euskal Etxeetako jardueretan laguntzera nahiz legean bertan jasotako zerbitzu eta eskubideak ematera zuzenduta, bai Euskal Etxeen kasuan, bai gizatalde horietako kideen kasuan.

b) Antolamenduan:

Esparru Estrategikoa martxan jartzetik eratorritako gertaeraren bat jazo daiteke. Zehazki, badirudi aldaketa aurreikus daitekeela Kanpo Harremanetarako Zerbitzuaren funtzionario egiturari, Lehendakariaren. Helburua izaera osoko kanpoko zerbitzu autonomiko baten beharrak atenditzea litzateke. Halaber, gerta daiteke Esparru Estrategikotik abiatuz Kanpoan Euskadik duen ordezkariak kopurua ere aldatzea. Halaber, Akitaniarekin Lurralde Lankidetzako Multzoratu Europarra sortzea aurreikusiko da ziurrenik.

c) Aurrekontu eta Finantzetan:

Esparrua gauzatzeko beharrezkoa izango da baliabide berriak edukitzea, nahiz eta kopuru osagarriak ez duen inolaz ere gaindituko Euskal Administrazio Orokorren aurrekontuaren milako 0,7ko kopurua.

Gaiaren ezaugarria bera dela eta, ez da beste entitate edo erakunde batzuen partaidetza duen finantzaziorik aurreikusi.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk):

- Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila eta haren nazioartekotze eta turismo eremuak.
- Kultura Saila eta Etxepare Institutua.
- Garapen Lankidetzaren Arloa.
- Halaber, eta Arku Atlantikoan jarduteko, beharrezkoa eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak ere parte hartzea.

e) Erakunde harremanak:

Harremanak Estatuko Administrazioaren erakunde eta egoitza eskudunekin izan behar dira, eta, zehazkiago esatearren, Kanpo Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioarekin, kanpo utzi gabe ere beste autonomia erkidego batzuekin lankidetzan jarduteko aukera.

Halaber, beharrezkoa da etorkizuneko Kanpo Zerbitzu Europarrari buruzko dokumentuak aintzat hartzea, hain zuzen ere eraketa fasean daudenak.

Mugen bi aldeetako lankidetzari dagokionez, bai Gipuzkoako Foru Aldundiak, bai Baiona-Donostia ardatzeko euskal udalerriek eraginak jaso ditzakete, eta hori ahaztu gabe beste bi foru aldundiek indar ezberdinarekin egiten dituztela ere jarduerak kanpoan.

Halaber, beharrezkoa da Euskal Merkataritza Ganberekin, Confebaskekin eta AFM (Makina-erremintaren fabrikatzaileen elkarte espainiarra) bezalako entitateekin, besteak beste, lankidetzaren harremanak ezartzea.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

2010etik 2020ra.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

Esparrua lantzeko, topaketak izango dira aipatzen aritu diren erakunde eta entitateekin.

Ez da organorik sortuko, ezta egungo sarrerako osagarria den erakunde arteko batzorderik ere.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

Funtsean Merkataritza Ganberak, Confebask...

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

Aurkezpeneko Jardunaldi Publikoak hiru lurralde historikoetan.

HERRIZAINGO SAILA

6.- Bide Segurtasunerako Plan Estrategikoa Euskadin.

1. HELBURUAK.

Bide Segurtasunerako Plan Estrategikoa 2010-2014 delakoa funtsezko pieza bat da gizartean bilatu nahi den kultura aldaketan. Aldaketa hori bide segurtasuna ahalik eta gehien bultzatzera eta mugikortasun iraunkor eta seguruagoan laguntzera zuzenduta dago, esku hartzen duten agenteen integrazioa eta koordinazioa erraztuz eta sustatuz.

Partekatutako ikuspegia den heinean, koordinatutako lan dinamika bultzatu eta sortu behar du. Horretan, agente guztiak izango dira erantzule. Helburu nagusitzat hauek finkatzen dira:

- 1) ***Errepideko biktima kopurua murriztea:*** beste herrialde batzuetan “zero ikuspegia” deitu izan duten horrekin bat eginez, onartu egiten da biktima bakar baten ikuspegia gehiegizkoa dela jada.
- 2) ***Arrisku taldeka istripu kopurua murriztea:*** gure istripu kopuruaren azterketa, gidatzerakoan dugun portaera, oinezkoena, ibilgailu motak, eta abar arrisku taldeak identifikatzeko baliodun izan behar dira, horietan prebentzio jarduerak oinarritzeko istripuak murrizte aldera eta, beraz, baita biktimak murrizte aldera ere.
- 3) ***Mugikortasun iraunkorra eta segurua sustatzea Euskadin:*** Euskal Gizartean kultura aldaketa baten alde egin behar da, horrek arrisku murrizketa elkartu dezan ibilgailu pribatuan egindakoa den eta beharrezkoa ez den mugikortasuna murriztearekin eta istripu tasak egindako lekualdaketa kopuruari eta haien tipologiari zuzenki lotuta dagoela kontzientziatzearekin. Pertsoneri ahalik eta kalte txikiena egingo diogun moduan mugitzea, ingurumena babesteko ekarpena egiten den aldi berean, ikuspegi hori lortzea izango da.

2. AURREKARIAK.

Euskadiko bide segurtasunerako plan estrategikoa Herrizaingo sailburuak iragarri zuen Eusko Legebiltzarreko Erakunde, Herrizaingo eta Justizia Batzordearen aurrean legegintzaldi honetako kudeaketaren ildo nagusiak azaltzeko edukitako agerraldian 2009ko ekainaren 9an. Bide segurtasunari dagokionez, helburu hau azpimarratu zuen: “*ahalik eta gehien zero hildakoren kopurura hurbiltzea. Jaun-andreok, trafiko pilaketan eta gure bide nagusietan behar baino ibilgailu gehiago egotearen*” aurka borrokatzea.

Helburu horretan, besteak beste, hurrengo neurriak sendotuko zirela iragarri zuen: *Ikuskarpena eta kontrola gure errepidetan, alkoholemia eta abiadura kontrolak eta segurtasun ubala erabiltzen dela bermatzeko neurriak*”, edo hauek hobetzea: “*administrazio publikoen arteko koordinazioa, eta trafikoko sistema adimendunak sustatzea eta teknologia berrienak aplikatzea gure errepide sarean*”.

BSEP 2010-2014 berria erreferentzia eta pizgarri modura sortu da BSEP 2007-2010ak jasotako helburuetan. Horrek emaitza positiboak lortu ditu trafiko istripuetan hildako pertsona kopurua murrizteari dagokionez. Aurreko plan horren Lan Mahaietan, hurrengoak identifikatu dira hobetzeko eremu nagusi bezala:

- Koordinazioa bide segurtasunean esku hartzen duten administrazio eta agente sozial ezberdinen artean.
- Bideetako segurtasun ezaren arrazoi nagusiak ezagutu eta zehaztera zuzendutako ikerketa.
- Informazioa biltzea, hura aztertzea eta istripu estatistikak ateratzea, estatu eta Europa mailako estatistikekin bateragarriak izango diren parametro eta adierazleen arabera.
- Istripuei arreta emateko jarduera prozesu eta protokoloetan prozesu mapa eraginkorra sartzeko esku hartzen duten agente ezberdinentzat, eta bideak erabiltzen dituzten pertsonentzat jarduera protokolo sinplea barreiatzea, istripu batek beste istripu bat eragiten duela saihestera zuzenduta.

Halaber, “Bide Segurtasunaren Gutun Europarraren” bide segurtasuneko eta garraioko helburu europarretara egokitzeari dagokionez eragina eduki nahi da. Gutun hori Europako Batzordeak bultzatutakoa izan da.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

Lehentasunez Herrizaingo Sailak, eta haren baitan baita Trafiko Zuzendaritzak ere (Herrizaingo Saileko egitura organiko eta funtzionalari buruzko abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretuko 11. artikulua).

Hura ezartzerakoan Gobernuko beste sail batzuekin lankidetzan aritzeari buruz sakontzerik egongo da (ikusi 4.d idatz-zatia).

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian: Ez da araudian eraginik izatea aurreikusi.

b) Antolamenduan: BSEPa ezartzerakoan, hurrengo lan mailak aurreikusi dira:

- ✓ Euskadiko Bide Segurtasuneko Batzordea: BSEPa behar bezala funtzionatzen duela zainduz, hura betetzen dela eta Urteko Kudeaketa Planetan jasotako ekintzen garapenarekin lortu diren emaitzak aztertzea.
- ✓ BSEParren presidentzia.
- ✓ Zuzendaritza Kontseilua: Plan Estrategikoaren kudeaketatik hurbilago egongo den koordinazio, aholkularitza eta kontrol organoa.
- ✓ Planaren kudeatzailea: Plan Estrategikoa kudeatu eta burutzeko organoa.
- ✓ Lan taldeak: Ikerketa eta Teknologia, Barne Barreiapena eta Kanpo Komunikazioa.
- ✓ Esku hartzen duten agenteak.

c) Aurrekontu eta Finantzetan: BSEPe an aurreikusitako jarduerak betetzen direla bermatzeko, hurrengo konpromisoak hartuko dira:

1. Urteko Kudeaketa Plan bakoitzean onetsitako ekintza bakoitzarentzat **berriazko aurrekontu esleipena**.
2. **Modu pro-aktiboan babesleen kudeaketa egitea**, ekimenak eta lankidetzako proiektuak garatu eta bultzatzera zuzenduta erakundeen eta enpresen sektore ezberdinekin.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk): Herrizaingo Sailaren barruan, ezinbestekoa da Ertzaintzaren lankidetzaren edukitzea, Saileko beste Zuzendaritza batzuen laguntzarekin batera.

Eusko Jaurlaritzaren barruan, hurrengoekin lankidetzaren aritzea aurreikusita da:

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (bide hezkuntza); Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila (garraio publikoaren erabilera bultzatzea); Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza Saila (mugikortasun iraunkorra); Kultura Saila (gazteria eta erakunde kanpainak EITBrekin, sail honi atxikita egotean); Justizia eta Herri Administrazio Saila; Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila, eta Osasun eta Kontsumo Saila.

e) Erakunde harremanak:

Ezinbestekoa da foru aldundien lankidetzaren eskuratzea, eta baita udalena ere, batez ere hiru hiriburu-udalena. Lankidetzaren hau inguruko lurraldeetan trafikoko erantzukizuna duten gainerako agintariei ere zabaltzen zaie.

Erakunde harremanak beste administrazio batzuekin koordinatutako kudeaketa planen bitartez diseinatuko dira.

Erakundeen eremutik haratago, sektoreko enpresa eta elkarten lankidetzaren ere eskatzen da.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

2010/2014.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZAREN GARATZEKO METODOLOGIA.

BSEP 2010-2014a **ikuspegi** metodologikoaren **aldaketa** batekin egingo da, hain zuzen ere hurrengo alderdietan oinarriturik:

1. **Aldaketa ohitura modura.** Plan Estrategikoa agenteen euren kezkekin elikatzen da, eta, ondorioz, baliabide bizia eta aldatzen dena izan behar da, helburu-helmugak ere begi-bistatik galdu gabe.
2. **Adostasuna, kohesioa eta parte-hartzea.** **Parte-hartze gehiagoko metodologia** baten alde egitea, lan taldean ikuspegi ezberdin bat eta zeharkako bat sartzea ahalbidetzen duten beste agente batzuk hartzea ahalbidetzeko. Bi norabideko plataformak sortuko dira horrela. Horretarako:
 - **BSEPen kudeatzaileak** beharrezko informazio eta parte-hartze guztia emango die agenteei.

- Informazio kanal iraunkorra sortuko da, planeko ekintza nagusien bilakaera ezagutzea ahalbidetuz.
- Parte-hartzea eta **Lan Taldeekiko** lankidetzak ireki egingo zaie honekin zerikusi zuzena duten eginbeharrak dituzten agenteei.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

BSEPeke metodologiaren funtsezko elementu modura, erakundeen eta gizartearen ikuspegi partekatua eta parte-hartze aktiboa bultzatuko dira bide segurtasunean. Horretarako hurrengoak erabiliko dira:

- ✓ BSEPeke proposamenak aurkeztea agenteei, bere ikuspegiak eta konpromisoak sartuz.
- ✓ Lankidetzak hitzarmenak bultzatzea BSEPeke parte hartzen duten agenteekin.
- ✓ Foroak garatzea herritarrekin.
- ✓ Eskoletan lehiaketak sustatzea, bide segurtasuna hobetzeko ideiak sortzera zuzenduta.
- ✓ ETKZa jendeari irekitzea.
- ✓ Herritarrekin parte hartzeko bideak bultzatzea Internet bidez (iradokizunen postontzia, blogak, gizarte sareak...).
- ✓ Herritarrek hiri esparruan, (ikastetxeetan, hirugarren adinekoak...) segurtasuneko mugikortasuneko kanpainetan, parte hartzen dutela sustatzea.
- ✓ Biktimen elkarteekin lankidetzan aritzea, haien eskaerak atenditu eta ulertzeko.
- ✓ Informatzaileen sare bat sortzea bide publikoen egoeraren gainean.
- ✓ Itun bat sortzea bide segurtasunaren alde hedabideekin.
- ✓ Internet bidez, iradokizunetarako eta komunikaziorako bide bat sortzea, horren bitartez estatistikak, azterlanak eta BSEPa bera egiteko.
- ✓ Enpresetan bide segurtasuna sustatzea.
- ✓ Erabiltzaileek planteatutako iradokizun eta gomendioen gainean jarraipena egitea.

8. PLANAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

BSEPeke informazioa bildu, tratatu eta aztertzeko sistema eraginkor bat garatu nahi du, bideetako segurtasun ezaren arrazoi nagusiei buruzko irizpide europarrei jarraiki, eta horrekin jarduera prozesu eta protokoloen hobekuntza eta trafiko istripuen atentzioa hobetzen dela lortu.

Barreiapena hurrengo bitartez antolatuko da:

- Beste administrazio batzuekin trafikoa kudeatzeko plan koordinatuak ezartzea.
- Arriskuko talde eta jokabideak eta, orokorrean, bide publikoen erabiltzaile diren pertsonak zaindu eta kontrolatzeko aldizkako kanpaina koordinatuak, edozein kasutan ahalik eta eraginkortasun handiena bilatuz.
- Talde ezberdinentzako hezkuntza eta prestakuntza jarduerak eta berriazko arriskua duten taldeentzat kontzientziazio kanpainak.

7.- Herritarren segurtasunerako plan estrategikoa eta lurraldean zabaltzea

1. HELBURUAK.

Jardueraren izatezko arrazoia terrorismoaren aurka egitea da fronte guztietan, horretarako Zuzenbidezko Estatuaren tresna guztiak, poliziaren eta epaileen ekintzak eta nazioarteko lankidetzak baliatuz. Politikatik ere gauza bera egingo da, bizikidetzako, tolerantziako eta aniztasuneko balio etiko eta demokratikoen babesaren lider izanez.

Aldi berean, tolerantzia zeroko eta errefuseko eta gaitzespeneko politika praktikatzeko da portaera totalitarioen aurrean. Halaber, guztion lankidetzak eskatzen da legezotasunaren, joko demokratikoaren arauen eta tolerantzia, askatasun eta bizikidetzak baketsuaren defentsan.

Hori dela eta, Ertzaintzaren antolamendu eta jardunaren diseinua eta eraginkortasuna hobetzeko saiakera egiten da, beren egitekoak betetzerakoan. Egiteko hori, funtsean, hurrengoetan oinarritzen da:

- Eskubideak eta askatasunak aske baliatzen direla babestea.
- Terrorismoaren aurka borroka egitea.
- Herritarren segurtasuna bermatzea.
- Delituak prebenitu eta ikertzea.

Horretarako, hainbat helburu berriro planteatzen dira.

- Terrorismoari legitimazioa kentzea etikaren, politikaren eta gizartearen aldetik.
- Terrorismoaren aurkako barrutia eta Informaziokoa indartzea.
- Ertzaintzaren lurralde zabalkundea eguneratzea.
- Pertsonak babesteko politika integrala.
- Koordinazioa Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoekin (ESIK)
- Prebentzioa, ikerketa kriminala eta polizia judiziala bultzatzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko polizia ezberdinen integrazioa eta koordinazioa.
- Herritarren segurtasuna eta delinkuentziaren aurkako borroka.

2. AURREKARIAK.

Herrizaingo sailburuak Eusko Legebiltzarreko Erakunde, Herrizaingo eta Justizia Batzordearen aurrean, 2009ko ekainean, edukitako agerraldian aurreratu ziren jada Ertzaintzaren helburuak eta planak.

Lehenengoan zera adierazi zuen: “*Sail honen eta Eusko Jaurlaritzaren osoaren lehentasun nagusia terrorismoari aurre egitea izango da fronte guztietan, harekin amaitzeko eta behin betiko bakea, askatasuna eta bizikidetzak finkatzeko Euskadin*”. Horretarako, zera iragarri zuen: “*Ertzaintzaren baitan ‘Terrorismoaren aurkako eta ikerketako barrutia’ izeneko barruti berri bat sortuko da*”.

Halaber, zera adierazi zuen: “berealdiko lan delikatu honetan gure polizia osoak eduki behar du parte-hartze aktiboa” eta “Barne Ministerioaren mendeko diren Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoekiko koordinazioa eta lankidetzaren indartzen jarraitu behar da”.

Azkenik, zera aztertzeko konpromisoa hartu zuen: “Ertzaintzari bere lana Euskaditik kanpo abalik eta eraginkortasun handienarekin garatzea abalbidetuko dioten beharrezko mekanismoak, Guardia Zibilarekin eta Poliziaren Kidego Nazionalarekin lankidetzan”.

Bigarren agerraldian, Ertzaintzaren plan estrategikoa xehatu zuen. Bertatik, dokumentu honen xede diren ekintza adierazgarriak dira azpimarragarri.

Oinarrizko lotura hauteskunde programan ageri ziren bi planetan dago:

- ✓ Ertzaintza optimizatzeko plan estrategikoa.
- ✓ Antolatutako krimenaren aurkako prebentzio eta ekintza plana.

Beste plan batzuk bezala adierazi baziren ere, sailen arteko planaren dimentsioa ez edukitzeagatik, jarduera garrantzitsu modura berriro adierazi da.

Jarduera garrantzitsuak hiru ardatz estrategiko ditu:

- Herritarren segurtasuna eta lurralde zabalkundea.
- Erantzukizun partekatua lanean eta ez laneratzearen aurkako borrokan.
- Giza baliabideen optimizazioa, polizia zentro handiak berrantolatzearen bitartez zerbitzu publikoa optimizatzeko.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

Herrizaingo Sailak, Autonomia Estatutuko 17. artikuluan ezarritako eskumenak dituen, lehendakariaren Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioeko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuko 6. artikuluan ezarritakoaren eta, ondoren, uztailaren 30eko 20/2009 Dekretuaren aldarazpenean ezarritakoaren babesean.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian:

Hurrengo arauak aldaraziko dira:

- ✓ Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legea.
- ✓ Herrizaingo Sailaren administrazio erakundeak antolatzeko legea.
- ✓ Hautapen eta prestakuntza araudia.
- ✓ Lanpostuak hornitzeko araudia.
- ✓ Ertzaintzaren Egitura Agindua.
- ✓ Ertzaintzaren lanpostu zerrenda.
- ✓ Ertzaintzaren lan baldintzak arautzeko akordioa.

b) Antolamenduan:

- ✓ Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Ikastegiaren egituraren aldarazpena.
- ✓ Ertzaintzaren egituraren aldarazpena.

a) Aurrekontu eta Finantzetan:

Aurrekontuaren banaketa:

- ✓ 8.000 polizia mantentzea iraunkortasunez.
- ✓ Poliziarenak ez diren jarduerak kanpora ateratzea.
- ✓ Lantaldea gaztetzea (erretiroa hartzeko plana).
- ✓ Bigarren jardueraren garapena.
- ✓ Segurtasun plana (jantziak, armamentua, ibilgailuak eta eraikinak).

Hurrengo jardueretatik eratorritako gastuarekiko hurbilketa kuantitatiboa egiteko, hasiera batean beharrezkoa da kanpo auditoretza bat egitea antolamendua, baliabide materialak eta giza baliabideak ebaluatzeko zerbitzu eta komisaria guztietan. Horrela, erabakiak hartzea erraztuko da eta unitate bakoitzaren baliabideak berrantolatuko dira. Helburua poliziaren lanetan ahalik eta agente kopuru handiena edukitzea da, eta batez ere, herritarren segurtasunari eta kanpo presentziari uztartutako lanetan.

Poliziarenak ez diren jarduerak kanpora atzeratzeak beharko lukeen aurrekontura hurbiltzeko zenbatespenik ez dagoenez, uste da ekintza multzoari dagokion gastua 38.000.000 euro ingurukoa izan daitekeela.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk):

Harreman joria mantenduko da Osakidetzarekin, Ertzaintzako ez laneratzeen aurkako ekintza trinkoari dagokionez.

e) Erakunde harremanak:

- ✓ Estatuko Administrazioarekin.
- ✓ EUDELekin.
- ✓ Arartekoarekin.
- ✓ Legebiltzarrarekin.

Barne Ministerioaren mendeko diren Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoekin garatutako lankidetzak eta koordinazioa indartzera zuzendutako jarduerak dira.

EUDELekin Ertzaintzaren eta udaltzaingo ezberdinen arteko ahalik eta koordinazio handiena bultzatu nahi da, ataza horretarako jarritako baliabideak indartuz. Helburua delinkuentziaren aurkako borrokan eraginkorragoak izatea eta herritarrei ahalik eta segurtasun handiena bermatzea da.

Legebiltzarrarekin eta Arartekoarekin garatutako jarduerak bi erakundeen aldetik jasotako errekerimenduei emandako arreta hobetzera zuzenduta daude.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

2010/2013.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

- ✓ Hendaiako komisaria bateratua eta presentzia Schenghenen.
- ✓ Terrorismoaren aurkako koordinazioa (CNCA).
- ✓ Poliziaren datu baseen komunikazio automatikoa.
- ✓ Ertzaintza-Udaltzaingoen arteko koordinazioa.

Barne Ministerioaren mendeko diren Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoekin garatutako lankidetzak eta koordinazioak indartzera zuzendutako jarduerak dira. Ertzaintzari bere lana ahalik eta eraginkortasun handienarekin garatzea ahalbidetuko dioten mekanismoak garatzen datza, Guardia Zibilarekin eta Poliziaren Kidego Nazionalarekin lankidetzan arituz.

Udaltzaingo ezberdinekiko koordinazioa lankidetzak mekanismoen bitartez garatuko da, adibidez Bilbon martxan jarritako Kontrol eta Koordinazio Bateratuko Zentroaren esperientzia zabalduz.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

- ✓ Jarduera eremua aintzat hartuta, oinarrizko parte-hartzea poliziaren sindikatuena eta Ertzaintzaren Kontseiluarena izango da.
- ✓ Lurralde eremuko eragina aintzat hartuta, parte-hartzea edukiko du Udaltzaingoak Koordinatzeko Batzordeak. Bertako kide dira EUDEL euskal udalerrien elkarteak izendatutako zazpi alkate eta Udaltzaingo kidegoetako funtzionario taldeko ordezkari bat, Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Administrazioan ordezkari handiena duen sindikatu antolamenduak izendaturikoa azken hori.

8. PLANAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

- ✓ Ertzaintzako biktimei aitortpen publikoa egiteko urteroko ekitaldiak garatzea.
- ✓ Ertzaintzaren eguna ospatzea.
- ✓ Ertzaintzaren bozeramailearen irudia sortzea.
- ✓ Kexei (Ekinbide) eta errekerimenduei (Legebiltzarra, Arartekoa) eskainitako arreta hobetzea.
- ✓ Informazio estatistikoa hobetzea.
- ✓ Herritarren Informazioko eta laguntzako webgunea sortzea terrorismoaren eta bestelako indarkerien aurkako borrokan.
- ✓ Herritarren Arretarako Bulegoak jartzea.

8.- Terrorismoaren Biktimen Aitorpena eta Memoria zabaldu eta sendotzea.

1. HELBURUAK.

Hainbat urtean zehar, terrorismoaren biktimek ez zuten gizartearen eta erakundearen aldetiko aitorpen eta arretarik eduki. Azken urteetan, talde horri eskainitako aitorpen mailak areagotu egin dira nabarmen, nahiz eta oraindik ezinbestekoa den hasitako lanarekin jarraitzea, udal mailan batez ere, terrorismoa jasan duten pertsonengandik hurbilen egoteagatik. Halaber, beharrezkoa da terrorismoaren biktimen memoria bat sendotzea. Horrek, batetik, biktima guztien oroitzapen iraunkorra ahalbidetuko du eta, bestetik, haiek guztiek jasandako bidegabeko sufrimendua aitortzeko kontakizun publikoa sendotzea, etorkizuneko bizikidetzaren oinarritzko zutabe den partetik.

Zentzu horretan, helburua aitorpen eta memoria ekitaldiak sustatzen jarraitzea da udal mailan, eta, ondorioz, Euskadin memoriaren mapa eraikitzen jarraitzea.

2. AURREKARIAK.

Terrorismoaren biktimei arreta eskaintzeko politikak lehentasuna du hauteskunde programan. Bertan, zera aipatzen da lehentasunezko helburu modura: “terrorismoaren eta indarkeriaren biktimei eragindako kalte guztien memoria, aitorpena eta ordaina”.

Bere aldetik, lehendakariak, inbestidurako hitzaldian, zera adierazi zuen: “Gobernuak esfortzu berezia egingo du euskal herritarren artean balio demokratikoak gizarteratzeko lanean”.

Herrizaingo sailburuak, Eusko Legebiltzarreko Erakunde, Herrizaingo eta Justizia Batzordearen aurrean legegintzaldi honetako kudeaketaren ildo nagusiak azaltzeko edukitako agerraldian 2009ko ekainaren 9an, zera adierazi zuen:

“Jaun-andreok, gure helburua bakea eta askatasuna lortzea da Euskadin. Baina gure nahia ez da inoiz osoa izango, terrorismoaren biktimekiko errespetu eta arreta sakonena erakusteko gai ez bagara.

Ez dezagun abaztu terrorismoaren biktimak biktima izan zirela funtsean demokrazia eta askatasuna defendatzeagatik. Hori dela eta, biktimen memoriak beldurraren aurrean garatzen dugun borroka gidatu eta hari zentzua eman behar dio.

Zuek hainbatetan entzun didazue esaten ganbera honetan terrorismoaren biktimei arreta eskaintzeko politika onena alderdi demokratiko guztien arteko adostasun handienetik eta akordio handienetik egiten den hura dela.

Orain egokitu zaidan erantzukizunetik abalik eta batasun handien hori bilatzen tematuko naiz, guztiek esateko dutena entzunez: biktimen elkarteek, erakundeek, alderdi politikoek eta gizarte taldeek.

Gure lana garatu nahi dugu biktimekiko, memoria, duintasuna eta justizia edukitzeko eskubidea asetzea bilatzen duen ikuspegi batetik.

Esan egin nahi dizuet Terrorismoaren Biktimak Onartu eta haiei Ordaina emateko Legeak sail honen lanaren esparrua finkatuko duela.

Jaun-andreok, ganbera honetan adostasun politikoaren ondotik biktimei buruz onetsitako ebaizpenak betez, azken urteotan aurrerapauso garrantzitsuak izan dira, eta horiek ez dira isilarazi behar.

Aitzitik, asko dago egiteko oraindik.

- *Biktimen Legearen eduki osoa garatzea.*
- *Aipatu den lege arauko araudia lantzea.*
- *Terrorismoaren Biktimen Parte-hartzerako Euskal Kontseilua eratzea”.*

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

Herrizaingo Saila (Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza).

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian:

Lege aipamena Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko 4/2008 Legea litzateke. Haren 8. Artikuluan memoria aipatzen da biktimen eta gizartearen eskubide bezala.

b) Antolamenduan:

Eraginik gabe.

c) Aurrekontu eta Finantzetan:

Eragin ekonomikoak memoriaren egunaren antolamendu alderdiei ematen die garrantzia, ekimen horri ematen zaion garapena zein den gorabehera. Hori oraindik zehazteko dago.

Edonola ere, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren ohiko aurrekontuarekin estaliko litzateke.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk):

Bakearen eta Giza Eskubideen Aldeko Hezkuntzarako Euskal Planaren adierazpen berriaren dokumentuan aurreikusitako ekintza bat badago (“Legitimazioa kentzetik bizikidetzara 2010-2011”). Bertan, ikastetxeek Euskadin garatzen ari den memoriaren mapa eraikitzeke ekitaldietan parte hartzea nahi da, eta horrek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eragingo lioke. Plan hori zuzentzen eta kudeatzen duen Sailen Arteko Batzordearen esparruan bi sailen arteko koordinazioa aurreikusi da.

Kultura Sailaren esku-hartzea, Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritzaren bitartez, indarkeria gaitzesten ez duen talderen bat gizarte sektore horretan egoteagatik etorriko da. Hori inkestetan igarri ahal izan da.

e) Erakunde harremanak:

Memoriaren mapa eraikitzeke ekitaldi guztiak euskal udal ezberdinek antolatzen dituzte bere horretan ekimenarekin bat egiten doazen heinean, nahiz eta zuzendaritza honek eskatuta edo bultzatuta egiten duten. Zentzu horretan, harremanak eratzen dira terrorismoaren biktimak egon diren udalerrri guztiekin eta, beti, EUDELekin koordinatuta jardunez.

5. JARDUERA GARRANTZITSUA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

2010/2011.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

6.1. Udalekin:

a) Bileren Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren eta ekimena garatzea planteatzen zaien udalerrri ezberdinen artean (Aitorpen ekitaldia eta memoriaren mapan sartzea).

b) Lankidetzaren baiezkoa ematen duten udalekin ekitaldia diseinatzeko, eragindako biktimetikiko harremana eratzeko, ekitaldien burutzapenean parte hartzea, eta abar.

c) Ospatzen diren ekitaldietara bertaratzea.

6.2. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin:

Sailari jakinarazi egingo zaio udal ezberdinek omenaldi ekitaldi hauek ospatzea onartu dutela, horren bitartez ekitaldi ezberdinen diseinu eta antolamenduan udalerrri horietako ikastetxeek ere parte hartzea posible izan dadin.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

Etengabeko komunikazioa Terrorismoaren biktimen elkarteekin, jarduera honek planteatzen dituen alderdi guztiei buruz.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrriak.

9.- Larrialdi Zerbitzuak hobetzea eta euskal herritarrei, edozein larrialdi egoeratan, emandako erantzuna optimizatzea (2009/2013).

1. HELBURUAK.

Larrialdi Zerbitzuek behar bezala erantzun behar diote herritarren eskariari. Euskadin, zerbitzu horiek garapen maila altua eskuratu dute eta geroz eta handiagoa den eskaria gain hartzen dute. Eskari hori presa eta larrialdiko ohiko egoerarako nahiz arrisku larri edo hondamenekoetarako izan ohi da. Beharrezkoa da Larrialdi Zerbitzuetan etengabeko hobekuntza egitea, eta, aldi berean, horretarako jartzen diren baliabideen efikazia eta eraginkortasuna optimizatzea. Horretarako aurreikusi diren jarduera ildoak hauek dira:

- Larrialdien eta Meteorologiaren arloak berrantolatu eta modernizatzea, horretarako Larrialdien, Babes Zibilaren eta Meteorologiaren Agentzia sortuz.
- 1-1-2 telefono bidez Arreta Zerbitzuaren efikazia eta eraginkortasuna bultzatzea, Contact Center zerbitzua bateratzearen bitartez.
- Babes Zibileko Boluntarioen gizarte sarearen antolamendua eta lidergoa.
- Erkidegoak larrialdi eta hondamen handien egoerei emandako erantzuna antolatzea eta egituratzea.
- Larrialdietan eta Babes Zibilean prestakuntza ematea Erkidegoan esku-hartze publikoa eta pribatua duten guztiei.

2. AURREKARIAK.

Euskal administrazio publikoaren erreforma serio eta sakonak, lehendakaria lider duen proiektu politikoaren ekintza ildo modura, larrialdi eta meteorologia arloak modernizatzea behartzen du. Euskadiko Larrialdi Zerbitzuek orokorrean, eta Eusko Jaurlaritzarenak bereziki, garapen eta ezarpen maila altua lortu dute gizartean. Hala eta guztiz ere, denboran ezagututako garapen berdin horrek ezinbesteko bihurtzen du bere egituren modernizazioa. Bitarteko eta baliabideen lurralde banaketa ez dator zerbitzuen efikazia eta eraginkortasun irizpideen ondotik, eta iraganaren herentzia besterik ez da.

Gobernu honek garatu nahi duen Euskadi solidariorako beharrezkoa da Babes Zibileko Boluntarioak euskal larrialdien Arreta sisteman sartzea. Boluntario horiek bultzatzeak, halaber, gizartearen erantzukizun partekatua edukitzea esan nahi du haiek babesteko garaian, eta baita euskal gizartearen erresilientzia handiagoa ere arrisku larriko eta hondameneko egoeren aurrean.

Herrizaingo sailburuak, 2009ko ekainean Erakunde, Herrizaingo eta Justizia Batzordearen aurrean edukitako agerraldian, zera adierazi zuen Sailaren ildo orokorren barruan:

“Babes Zibilean eta Larrialdiei emandako Arretan dugun kezka handiena abalik eta efikazia operatibo handiena lortzea da; horrela, herritarrek erabateko segurtasuna edukiko dute kalitate altuko zerbitzu bat eskuratzeko aritzeari buruz. Ezinezkoa izango da zorrozkari eta laster jardutea, eragindako pertsonak ez badakite gure zerbitzuak existitu ere egiten direnik.

Hori dela eta, herritarren ezagutza indartu nahi dugu eta SOS Deiak 112 zerbitzua optimizatu. Herritar multzoak jakitea nahi dugu 112 zenbakia arreta orokorreko zerbitzu iraunkorra eta profesionala dela, bakoitzaren arazoei erantzun egokia eta berehalakoa eskainiko diena. Larrialdien eta Babes Zibilaren 2010-2014 Plan Estrategikoa landuko dugu. Larrialdietan eta Babes Zibilean Arreta Eskaintzeko Euskal Eskola sortuko dugu Arkauteko Poliziaren Ikastegian, eta boluntarioei eta Babes Zibilari buruzko araudi berri bat garatuko dugu. Herrizaingo Sailari erantsi egingo diogu Euskalmeten Meteorologia eta Klimatologia Zuzendaritza, etengabeko koordinazioa finkatuz arlo horren eta Larrialdietarako Arretaren artean”.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

Babes Zibila eta larrialdiei emandako erantzuna ohiko egoeretan sail garrantzitsuei eragiten dien zeharkako arlo bat da, eta arrisku garrantzitsuagoko egoeretan Gobernuaren, aldundien eta udalen erakunde eta instituzio multzoari eragitera ere iritsi daiteke. Hausnartu diren jarduerak neurri handiagoan edo txikiagoan hartzen dituzte hurrengo sail eta erakundeak:

- Herrizaingo Saila: Herrizaingo Sailburuordetza eta Segurtasun Sailburuordetza.
- Osasun eta Kontsumo Saila.
- Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila: Gizarte Ongizatea.
- Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila: Uraren Euskal Agentzia.
- Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila: Garraioak eta Portuak.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
- Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian:

- Larrialdiak Kudeatzeko Legea eguneratzea, Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistema hobetzeko helburuarekin.
- Larrialdien, Babes Zibilaren eta Meteorologiaren Agentzia erakunde autonomo modura sortzea, lege baten bitartez egingo da.
- Babes zibilaren esparruan: Norbera Babesteko Euskal Araua argitaratu eta martxan jartzea, Norbera Babesteko Oinarrizko Arauaren garapen modura.

b) Antolamenduan:

- Larrialdien, Babes Zibilaren eta Meteorologiaren Euskal Agentziaren (aurrerantzean EAMET) sorrerarekin hobekuntzak lortu nahi dira Euskadin larrialdien ebazpenerako kudeaketan, bai meteorologia larrialdiekin gehiago kohesionatzearen bitartez, bai kudeaketako egitura eta metodoak modernizatzearen bitartez.

Estatuan ez dago ezaugarri hauek dituen agentziarik, eta Larrialdien eta Meteorologiaren arteko sinergiak ekimen modernoak eta aitzindaria dira, aurkako fenomeno meteorologikoak eta arrisku natural guztiak modu osatuan jorratzearekin.

Jarduera hau Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemari esku hartzen duten zerbitzuen multzora eramango da, Euskadiko Herri Babeserako Batzordearen bitartez.

- Euskadiko Itsasoko Laguntzako Batzordearen sorrera, gai horretan Euskadin jarduten duten erakunde guztien koordinazio organo modura.

- 1-1-2 telefonoaren bitartez ematen den Arreta Zerbitzuaren efikazia eta eraginkortasuna hobetzea, eta baita SOS-DEIAK-en Larrialdien Koordinazioko Zentroena ere.

Ildo beretik, Larrialdien Koordinazio Zentroen Kalitate Plana jorratuko da, legegintzaldi honetan egindako SOS-DEIAK-en Zerbitzu Multzoa oinarri hartuta.

c) Aurrekontu eta Finantzeta:

Jarduerak ez dute finantzazio osagarririk behar, eta Herrizaingo Sailaren ohiko aurrekontuarekin gauzatu dira. Espero da baliabide eta bitartekoak egokitzetik bertatik gastuaren murriztapen txikia lortzea, edo, behinik behin, haien errentagarritasun handiagoa eskuratzea.

d) Gobernuaren beste jarduerak batzuetan (beste sail batzuk):

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiak berregituraketa jorratuko du; helburua, besteak beste, Larrialdietan eta Babes Zibilean prestakuntza ematea lortzea izango da.

Une honetara arte, Euskadin ez da egon EAEn Larrialdien eta Babes Zibilaren alorreko prestakuntza homologatu, homogeneizatu eta sustatzeko ardura hartuko zuen organorik, beraz, horrek izaera berritzailea eta, aldi berean, ezinbestekoa ematen dio asmo honi Larrialdi Zerbitzuen jarduna hobetze aldera.

Larrialdi Zerbitzuen arduradun diren erakundeekin lankidetzan aritzea aurreikusi egin da hura Ikastegiko Artekarieta Kontseilura sartzearen bitartez eta lankidetzan hitzarmenak ezartzearen bitartez berariazko prestakuntza planak egiteko.

e) Erakunde harremanak:

Jarduera honen helburua EAEko Itsasoko Laguntzaren kudeaketa jorratzea da, Gernikako Estatutuan bildutako eskumenaren azterketaren ildotik. Estatuarekin hitzarmena eskuratzearen bitartez islatzea eta Itsasoko Laguntzako Euskal Plana egitea, Itsasoko Laguntzan arduradun diren estatu eta autonomia erkidegoko agente guztien integrazioarekin.

Eskumenaren transferentzia ez da egin, nahiz eta 12 milien esparruan jarduten den Erkidegoko baliabide eta bitartekoekin. Itsasoko Laguntzaren alorrean garatzen diren jardueren kostua, EAEk egindakoak direnean, urtero Eusko Legebiltzarrean onesten diren Aurrekontuetan jasotzen da. Jarduera honek jada egiten ari den egoera bat eguneratuko luke, eta EAEk egiteko dituen transferentzietako bat argituko luke.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

2009/2013.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

- Lehendakariak Larrialdien eta Babes Zibilaren artean lankidetzako protokoloak formalizatzeko erkidego mugakideekin sinatutako lankidetzako hitzarmenak garatzea. Neurri horrek eragina du jardueraren hobekuntzan eta larrialdien ebazpenean, horiek lurralde bat baino gehiago hartzen dutenean.

- Babes Zibileko Taktika Operatiboak eguneratzea, ohiko larrialdietan Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren jardueraren oinarrian dauden heinean. Erakunde eta entitate publiko edo pribatu ezberdinen lankidetzako edukiko da.

- Hitzarmenak sinatuko dira edo daudenak eguneratuko dira larrialdietako profesional zerbitzuekin. Bertan, Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren eta Babes Zibilaren tresna teknologikoak integratu eta erabiltzea aurreikusiko da (TETRA irrati digitaleko plataforma, larrialdiak kudeatzeko plataforma informatikoa) eta, azken batean, baita Sistemaren sartzeko protokoloak ere. Hitzarmenak daude Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Donostiako Udalarekin, Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Vitoria-Gasteizko Udalarekin. Hitzarmen horietan haien Suhiltzaile Zerbitzuek jasotzen dute tresna hauen erabilera. Hitzarmen horiek ez dira homogeenak, eta partzialki jasotzen dute jardueraren errealitatea. Jarduerak azpimarratu egiten du Erakundearen eta Larrialdi Zerbitzuen arteko koordinazioaren hobekuntza.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

Babes Zibileko gizarte boluntarioen antolamendua eta lidergoa.

Babes Zibilaren alorrean lan egiten duten eta Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren sartzeko boluntario erakundearen oinarriko araudiak hartzen du jada parte-hartzearen alderdi hori.

Larrialdiak kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legeak babes zibileko boluntarioak arautzeko erabiltzen du V. kapitulua. Lege horren arabera, boluntario erakundeek bermatu eta bideratu egiten dute herritarren parte-hartzea babes zibileko lanetan eta, orokorrean, larrialdiei emandako arretan.

Une honetara arte ez zegoen EAEn Babes Zibileko boluntarioen dinamika bideratuko zuen organorik. Hala eta guztiz ere, Herritarrek Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren duten borondatezko parte-hartzeari buruzko urtarrilaren 19ko 24/2010 Dekretuak Babes Zibileko Boluntariotzako Aholku Batzordea sortu du, Euskadiko Babes Zibilaren Batzordearen baitan. Bertako kide izan ahalko dira Babes Zibileko Boluntariotzako Erakunde Laguntzaileen Erregistroan izena eman duten erakundeetako ordezkariak. Jarduerak azpimarratu egiten du herritarren parte-hartzearen hobekuntza larrialdien kudeaketan.

Horretarako, halaber, Lankidetzako Hitzarmenak jorratu nahi dira Babes Zibileko Boluntariotzako Erakundeekin, horretarako jada existitzen diren Hitzarmenak dinamizatuz helburuen, programen, adierazleen, gastuaren zenbaketa eta helburuen ebaluazio dinamikoaren bitartez. Hitzarmen berriak ere ezarriko dira.

8. PLANAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

SOS-DEIAK-en zerbitzu multzoa, 2010. urtean ezarritakoa, egiaztapen eta jarraipen tresna modura erabili ahalko da Zuzendaritzak herritarrekiko hartutako konpromisoaren gainean. Bertan finkatutako helburuak herritarren eskura jarriko dira, eta behar bezala barreiatuko, bai berariazko kanpainen bitartez, bai dinamikoki webgunearen bitartez.

Halaber, Boluntariotzako Aholku Batzordea parte hartzeko erakundea izango da, Babes Zibileko boluntarioen jardueren barreiatuaren tresna bat den aldi berean.

Martxan jarriko diren prestakuntza jardueren dinamika kanpainen bitartez, hedabideen bitartez eta bide telematikoen bitartez barreiatuko da.

10.- Udaltzaingoen arteko koordinazioa hobetzea eta modernizatzea.

1. HELBURUAK.

Gaur egun, eremu honetan, hurrengo arazoak edo gabeziak igarri dira, eta esku-hartzeak haiek gáinditzeko saiakera egingo du:

- Udaltzaingoen uniforme eta irudien alorrean desberdintasunak; horrek ez du laguntzen Udaltzaingoa identifikatzen herritarrekin, eta udalei neurritz gaineko kostua eragiten die.
- Gabeziak komunikazioen esparruan, horiek beharrezkoak badira ere Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen artean nahiz Udaltzaingo ezberdinen artean.
- Polizia koordinazioa hobetzeko beharra, lurralde berdin batean jarduten duten polizia kidegoen aniztasunak eraginkortasun maila txikiagoa esan nahi ez izateko askatasunen bermean eta delituaren prebentzioan.
- Euskal udal guztietako Udaltzaingo Kidegoetako kide diren pertsona guztien erroldarik ez dago.

Helburuak:

- Korporazioko uniforme eta irudiaren alorrean koordinazioa bultzatzea.
- Komunikazioen sare digitala –segurtasun eta larrialdi komunikazioetarako berariaz diseinatuta (Tetra sistema)– eta kudeaketa informatikoko sistema bat finkatzea Udaltzaingoen eta Ertzaintzaren artean. Jarduera eta koordinazio protokoloak lantzea Udaltzaingoen eta Ertzaintzaren artean.
- Existitzen diren jarduera protokoloen kalitatea hobetzea, Udaltzaingo guztientzat erabilgarria izateko aukera izan dezaten, haien tamaina zein den alde batera utzita. Horretarako, Ertzaintzan indarrean dauden prozedurak aztertuko dira, horiek egokitzuz Udaltzaingoen berariazko ezaugarrietara.
- Udaltzaingoetako profesional eta funtzionarioen ibilbide profesionalak bultzatzea.
- Udaltzaingoen erregistro telematikoa lantzea, Euskal Autonomia Erkidegoak bertako Udaltzaingoen ikerketaren, prestakuntzaren eta lanbide perfektionamenduaren alorrean dituen eskumenen euskarri eta erreferentzia izan dadin eta, orokorrean, Udaltzaingoen koordinazioaren gaian bertako eskumenak behar bezala balia daitezten. Halaber, informazio sistematizatua eta fidagarria emango du Eusko Jaurlaritzak gaiari buruzko erabakiak har ditzan.

2. AURREKARIAK.

Herrizaingo sailburuak, 2009ko ekainean Eusko Legebiltzarreko Erakunde, Herrizaingo eta Justizia Batzordearen aurrean izandako agerraldian Gobernuaren eta Sailaren ildo estrategikoak azaltzeko, argi eta garbi adierazi zuen Herrizaingo Sailaren konpromisoa

“Ertzaintzaren abalik eta koordinazio handiena bultzatzeko udaltzaingoekiko”, eta lan horretara zuzendutako bitartekoak indartu egingo zirela, “eraginkorragoak izan daitezzen delinkuentziaren aurkako borrokan eta herritarrei abalik eta segurtasun handia bermatzerakoan”.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

Herrizaingo Saila.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian:

- ✓ 4/1992 Legea, uztailaren 17koa, Euskal Herriko Poliziari buruzkoa.
- ✓ Poliziaren Antolamendu-Funtzionamenduaren eta Funtzio Publikoaren Esparru Araua (proiektuan).
- ✓ Euskadiko Udaltzaingoan Erregistroa sortu eta arautzen duen dekretua (proiektuan).

b) Antolamenduan:

1.- Euskadiko Udaltzainen Erregistro bat edukitzea, Udaltzainak Koordinatzeko Zuzendaritzari atxikita. Bertako datuak eskuratzeko aukera, bakar-bakarrik, udalek edukiko dute eta bakoitzak bere zerbitzura lan egiten duten langileei eta beren datu pertsonaletan eraginak jasotzen dituztenei dagokienez bakarrik.

2.- Uniforme eta korporazio irudiaren alorrean homogeneotasuna edukitzeak herritarrek Udaltzaingoan Kidegoa azkar identifikatzea ahalbidetzen du, eta uniformeak egiterakoan kostuak murriztea ere bai.

3.- Polizia guztientzat komunikazioko sistema komuna finkatzen da; horrek lankidetzaren, koordinazio eta efikazia handiagoak ekarriko ditu kasuan kasuko jarduerara.

4.- Udaltzaingo guztientzat komunak diren jarduera protokoloek berme handiagoa daramate askatasunen bermera eta delituaren prebentziora.

c) Aurrekontu eta Finantzetan:

Jarduera Organo sustatzailearen ohiko aurrekontu batekin gauzatuko da; zenbatekoa 1.340.000 eurokoa izango da guztira.

Sistema informatiko mankomunatu bat egokitzea ere aurreikusi da, eta baita irrati-telefonía digitala sartzeko ere. Horretarako, toki enteen sarreraren alde egingo duen diru-laguntza ildo ezarri ahalko da.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk):

Justizia eta Herri Administrazio Saila.

e) Erakunde harremanak:

Euskal Autonomia Erkidegoa eratzen duten udalerrietako udalak.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

2010-2012.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

- ✓ Udaltzaingoak koordinatzeko batzordea.
- ✓ Sailaren eta Eudelen arteko lankidetza Hitzarmenean jasotako lan taldeak.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

- ✓ Eudel – Euskadiko Udalerrien Elkarteak.
- ✓ Sindikatu elkarteak.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

Udaltzainak Koordinatzeko Zuzendaritza lan taldeetan oinarritzen da bere ekintzak lortzeko. Talde horiek Udaltzaingoa duten udalerrietako parte-hartze aktiboaren laguntza dute, eta talde ezberdinek garatuko dituzten lanen eraginkortasun handiagoa bermatzeko, lankidetza esparru egonkorra finkatuko da Eudel - Euskadiko Udalerrien Elkartearekin.

Sail honek uste du talde horiek eratze soilarekin ahalbidetu egiten dela eragindako talde guztiei informazioa ematea aldizka, eta, ondorioz, komunikazio bide nagusi bihurtzen da. Hala eta guztiz ere, zenbaitetan beste sistema batzuk ere ezarriko dira, adibidez bide telematikoa, ikastaroak eta hitzaldiak.

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

11.- Lanbide Heziketako sistema integratua Euskal Autonomia Erkidegoan.

1. HELBURUAK.

- Pertsonen gaitasun profesionala areagotzea.
- Lanbide Heziketako azpisistemak elkarren artean erlazionatzea.
- Eraginkortasunez erantzun laneko merkatuko eskariei.
- Pertsonen behar eta interesekin bat hobeki egiten duten ibilbideak ahalbidetzea.
- Lan eskarmentu eta prestakuntza ez-formalaren aitortpena sartzeari.
- Kudeaketa operatiba eraldatzea, gaitasun profesionalen ebaluazioa eta aitortpena posible izan daitezen. Koordinazio eta efikazia handiagoak bilatuko dira.

2. AURREKARIAK.

Lanbide Heziketako Kalitaterako eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentziaren jarduerak. Hura Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendekoa da.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak, Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordearen aurrean 2009ko ekainaren 10ean edukitako agerraldian Legegintzaldian garatuko zen politika eta jardueren berri emateko, iragarri egin zuen jarduera hau martxan jarriko zela.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
- Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian:

Araudiaren aldetik hurrengo alderdiak antolatzekeo beharra egongo dela uste da:

- Laneko eskarmentuaren bitartez edo prestakuntzako bide ez formalekin bitartez hartutako gaitasun profesionala Ebaluatzeko, Aitortzeko, Ziurtatzeko eta Erregistratzeko sistema.
- Gaitasun profesionalen Aitortpena egiteko ardura ematen zaion Entitatearen erregulazioa (egungo Lanbide Heziketako Kalitaterako eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentzia ordezkaturik).

b) Antolamenduan:

Entitate berri bat sortzea hausnartu da, hari Gaitasun Profesionalen Aitorpena esleituz. Entitate honi laneko eskarmentuaren bitartez edo prestakuntza mankomunatu bide ez-formalen bitartez hartutako gaitasun profesionalak ebaluatzeko eta egiaztatze ardurara emango zaio, eta gaur egungo Lanbide Heziketako Kalitaterako eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentzia ordezkatu du.

Formula ezberdinak jarriko dira entitate horrek lotura mankomunatu eduki dezan Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin eta Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailarekin.

c) Aurrekontu eta Finantzeta:

Jarduera ohiko aurrekontuarekin gauzatu beharko da.

d) Gobernuaren beste jardura batzuetan (beste sail batzuk):

Lanbide Heziketaren Euskal Kontseilutik abiatuz, lehen harreman bat ezarriko da organo honetan ageri diren sail guztiekin nahiz foru erakunde eta agente ordeztuekin.

Eusko Jaurlaritzaren mailan, sailen arteko harreman esparrua finkatuko da, martxan dauden edo aurreikusi diren jarduerak ezagutzeko, horiek deskribatu diren helburuetan eragina izan badezakete. Harreman horretatik abiatuz, gerta daiteke bi aldeko harremana behar izatea sail jakin batzuekin, nahiz eta oraindik zehazteko dagoen.

Edonola ere, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailarekiko harremana, alde bikoia, mantendu egingo da iraunkortasunez arauak izapidetzen diren bitartean. Arau horien bitartez jardura antolatuko da.

e) Erakunde harremanak:

Estatuko Administrazioako organo eskudunen jardueraren gainean jarraipen iraunkorra egitea aurreikusi da, beharrezkoa balitz egokitzat jotako harremanak ezarriz.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

Jarduera antolatzeko arau guztiak onetsita, hura Legegintzaldi osoan zehar burutuko da.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

Lanbide Heziketaren Euskal Kontseiluak eskaintzen duen esparruaz gain, behar diren harremanak edukiko dira Estatuko Administrazioako organo eskudunekin. Harreman horiek autonomia erkidegoen multzoarekin eraturako esparruan nahiz Euskadin eragina duten izaera bereziko interesei jarraiki hartzen diren erabaki zehatzen bitartez antolatu ahalko dira.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

Gizarte agenteen partaidetza antolatuko da, Lanbide Heziketaren Euskal Kontseiluaren bitartez, Lanbide Heziketaren gaian erakunde eta gizarte partaidetzako organo den heinean. Kontseilu horrek, halaber, Sistema Integratutik eratorritako ekintzen gaineko jarraipena garatuko du.

Foro egonkor eta formal honek ez du kanpoan utziko beste talde profesional batzuk, gizarteak eta herritarrek orokorrean proposamenak egiteko bideak irekitzeko aukera, horiek aztertze aldera eta aintzat hartze aldera Lanbide Heziketaren Euskal Kontseiluan nahiz EAEko Administrazioako organo eskudunetan.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

Lehentasunez:

- LHren Euskal Kontseilua.
- Lanbide Heziketako Zentroak.
- Lanbide Heziketaren esparruan lan egiten duten erakunde publiko edo pribatuak.

12. Arte Ikasketak sustatzea Euskadin.

1. HELBURUAK.

Euskal Autonomia Erkidegoan, arte irakaskuntzetan, igarritako eskari eta beharrek nahiz orain dela gutxi Arte Irakaskuntzak arautzeko argitaratutako urriaren 26ko 1614/2009 Errege Dekretuak finkatu egiten dute horrelako irakaskuntzak bultzatzen direla jorrazteko jarraibidea.

Prozesu honetan, goi mailako arte irakaskuntzei dagokienez, luza ezin daitezkeen bi jarduera igarri dira: batetik, Goi Mailako Musika Kontserbatorioa (Musikene), Donostian kokatzen dena 2000. urtetik aurrera, birbideratzea, haren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko eta jardun akademikoa hobetzeko. Bestetik, zentro berri bat eraiki behar da Bilbon.

Halaber, prozesu honetan horrelako irakaskuntzekin zerikusia duen Kontseilu Aholkulari bat sortzeko aukera eta komenigarritasunari buruzko azterketa sartzen da. Horren bitartez, arteen garapenean aditu direnen irizpidea eduki ahalko da, eta baita haiek emateko ardura duten zentroena ere, eta Eusko Jaurlaritzaren beste prestakuntza eta kultura politika batzuekin batera antolatu ahalko da.

Helburuak:

- Arte irakaskuntzetako prestakuntza tituluduna bultzatzea, Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruak eskaintzen dituen aukeretara egokitu eta haiek ustiatze aldera.
- Irakaskuntza horien kalitatea aldizka ebaluatzeko sistemak eta prozedurak bultzatzea.
- Ikasketetarako prestakuntza eskariarekiko eta lan jardunerako eta jardun profesionalerako egonkorrak, egokiak eta behar bestekoak diren ekipamendu eta azpiegiturak zuzkitzea.
- Musikene egonkortu eta sendotu, Euskal Autonomia Erkidegoko Musika Irakaskuntzen Goi Mailako Zentro bezala. Musikaren alorreko hezkuntza eta ekoizpen komunitatearen parte-hartzeari irekita dagoen Proiektu bat egin nahi da, goi mailako irakaskuntza hauek Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparrura sartzeko eta graduondoko prestakuntza jarduerak eskaintzeko (masterrak eta doktoregoak). Horretarako, unibertsitatearekin hitzarmenak sinatuko dira eta norberaren ikerketa ildoak ere garatuko dira. Proiektu honetarako, halaber, beharrezkoa da Zentroak ikasketa plan berrietarako behar dituen irakasle eta zerbitzuetako langileen lantaldea planifikatu eta garatzea, eta egoitza egonkor propioa zuzkitzea behin betiko.
- Arte Eszenikoen Goi Mailako Zentro bat sortu eta sendotzea.
- Talde interesdunen artean harreman handiagoa lortzea bilatzea (administrazio publikoak, irakasleak, ikasleak, profesionalak, herritarrak), arazoak eta arteen irakaskuntzetan sar daitezkeen hobekuntzak jorrazteko.

2. AURREKARIAK.

Musikene aurrekari bat da arte irakaskuntzen goi mailako prestakuntzari dagokionez. Aldarazi behar direla uste diren alderdi horiek identifikatuta, erreferentzia modura proposatzen da graduko eta master mailako arte irakaskuntzak bultzatzeko eta doktorego ikasketak finkatzeko.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaz gain, hark baititu atxikita hezkuntzaren alorreko kasuan kasuko funtzioak, lankidetzaren ardatz bat bultzatzerik dago Kultura Sailarekin, hari esleitu baitzaizkio kultura ondareari eta arte jarduerari buruzko funtzioak.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian:

- Orain dela gutxi Estatuko Administrazioak onetsitako urriaren 26ko 1614/2009 Errege Dekretuaren ostean, uste da araudiko neurri egokiak hartu beharko lirakeela Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenen esparruan, Errege Dekretu horrek finkatzen dituen goi mailako arte irakaskuntzen antolamendua finkatze aldera.
- Antolamendu hurrenkeraren erregulazioa (ikusi datorren idatz-zatia).

b) Antolamenduan:

- Irakaskuntza hauen Kontseilu Aholkularia zehaztu eta konfiguratzeko.
- Arte Eszenikoen Goi Mailako Zentroa ezartzeko erabiliko den formula zehaztu eta konfiguratzeko.

c) Aurrekontu eta Finantzetan:

Aurkeztu den jardueraren berrantolamendua ohiko aurrekontuarekin gauzatuko da; hala eta guztiz ere, jarduera berriak ezartzeak aurrekontu zuzkidura berriak behar izango ditu (aurrekontuan finkatzekoak), eta hori zenbatesteko dago oraindik.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk):

Sailaren mailan ez da beste jarduerarik aurreikusitako, nahiz eta ezin hobetzat jotzen den Kultura Sailarekin gara daitekeen jarduera koordinatua, harremanetan jartzeko ikastetxe horietako ikasleak eta Euskadiko arte eta kultura sorrera eta ekoizpen sareak.

e) Erakunde harremanak:

- Estatuko Administrazioak garapenaren gainean egin dezakeen jarraipena eta bertan eduki dezakeen parte-hartzea.
- Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Aurreikusitako Arte Irakaskuntzen Goi Mailako Ikastetxeak kokatzen diren tokietako foru aldundiak eta udalak.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

Arte irakaskuntzak bultzatzeko jarduera Legegintzaldi osoan zehar garatuko da. Aurreikusi diren berriazko jarduerak beren epemugak edukiko dituzte, nahiz eta 2012. urtea hartzen den Musikeneren instalazio berriak eskura egongo diren eta Arte Eszenikoen Goi Mailako Zentroari buruzkoak jada martxan izango diren ekitaldia bezala.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

Erakunde lankidetzak aurreikusi da adierazitako ikastetxeak kokatzen diren udalerrietako foru eta udal administrazioekin. Uste da ez dagoela zertan aplikatu legez haiek gauzatzeko ezarrita dauden ohiko lankidetzak bideak ez diren (lankidetzak hitzarmenak, ondareari buruzko akordioak, eta abar) beste metodologia bat.

Graduondoko prestakuntza jardueren (masterrak eta doktoregoak) alde egiteko Unibertsitatearekin garatzen den lankidetzak ohiko bide formaletatik adostuko da ere, hain zuzen ere urriaren 26ko 1614/2009 Errege Dekretuak ezarritako testuinguruan.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

Funtsean ikasle eta irakasle taldeek zerikusia duten esparruetan parte hartzen dutela bultzatzeko bideak jarriko dira, goi mailako nahiz maila ertaineko pertsonen tokia utziz. Izan ere, azken horiek goi mailako irakaskuntzak hornitzen dituztenak dira.

Bestalde, Kultura Sailaren bitartez garatutako jarduerarengatik ezagutzen direnez gain, musikaren eta arte eszenikoen alorreko talde eta elkarte profesionalekin eta sektore horietako enprekin harremanetan jartzerik dago, horrekin jarduera hau garatzearen bitartez irakaskuntza horretan sakontzerik eta pertsona tituludun berrietarantz abiatzerik duten prestakuntza behar eta eskarrietan sakontzeko (egon daitezkeen graduondo eta doktorego arloak).

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

Jardueraren barreiapenak arreta emango die irakaskuntza hauetan interes zuzena duten pertsonen, ezagutza haiek ematen dituzten Zentroyen bitartez eta Euskadiko hezkuntza eskaintzak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren webgunearen bitartez, eskaintzen duen informazioaren bitartez. Bide horien esker, posible da informazioa herritarrei orokorrean zabaltzea, interesdun izan daitezkeen heinean.

Halaber, talde profesionalei eta musikaren, artearen eta kulturaren alorretan jarduten duten enpresei zuzendutako berriazko barreiapena ere egingo da.

13.- Haur Hezkuntzako, Oinarrizko Hezkuntzako eta Batxilergoko curriculumak ezartzen dituzten eta horiek Euskal Autonomia Erkidegoan finkatzen dituzten dekretuak aldaraztea.

1. HELBURUAK.

Elebitasun integratzailea erraztea, euskara irakaskuntza emateko hizkuntza nagusitzat hartzearena ezabatuz; Euskal Herria terminoaren erabileran aldarazpenak sartzea, bake kulturaren, indarkeria terrorista gaitzestekoan eta biktimekiko errespetu eta enpatian laguntzea, eta oinarrizko izaerarekin eta dekretu horietan ezarritako gutxieneko irakaskuntzen artean koherentzia bermatzea.

2. AURREKARIAK.

Jarduera garrantzitsu honen arrazoia hauteskunde programan nahiz legebiltzarraren egoitzan sailburuak edukitako agerraldian adierazitako konpromisoa da.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian:

Jarduerak hiru dekretu lantzea eta horren ondotik eraginak jasan ditzakeen araudia berrikustea esan nahi du.

b) Antolamenduan:

Ez da aurreikusi.

c) Aurrekontu eta Finantzetan:

Jarduerak ez du kostu ekonomikorik ekarriko.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk):

Ez da aurreikusi.

e) Erakunde harremanak:

Ez da aurreikusi.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

2010eko bigarren hiruhilekoa.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

Beste erakunde batzuekin jarduerarik garatzea ez da aurreikusi, beraz, ez da horren inguruko metodologiarik planteatu.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

Jarduera adierazgarri honetan esku hartu dute hezkuntzari uztartutako talde guztiek, alegia, buruzagiek, sindikatuek, guraso elkarteek, talde pedagogikoez eta ikasleek, horretarako alde biko bilerak eta Euskadiko Eskola Kontseiluarekin bilerak edukiz.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

EHAAREN bitartez barreiatzeaz gain, sendotzen den araudiaren edizioa egingo da, hura ikastetxe komunitatean irakurtzea errazte aldera. Aldaketa horien berri emango zaie zuzenean ikastetxeetako zuzendaritzari.

14.- Eskola 2.0

1. HELBURUAK.

Eskolaren modernizazio teknologikoa behar bat da gure gazteriaren prestakuntza hobetzeko eta Autonomia Erkidegoaren etorkizuna bermatzeko, geroz eta konplexuagoa eta lehiakorragoa den mundu mailako testuinguru batean.

Eskola 2.0-k martxan jarri nahi ditu XXI. mendeko ikasgelak, ikasle bakoitzari ordenagailu eramangarri txiki bat emanez eta ikasgela bakoitzari Interneten eta IK'Ten erabilera sartzeko behar den ekipamendua zuzkituz. Izan ere, horiek guztiak baliabide normala dira irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan (arbel digital interaktiboak, Wifi, monitorizazio sistemak, eta abar). Halaber, inbertsio sendoa egin behar da irakasleen prestakuntzan eta irakaskuntzaren alorreko material interaktiboetan.

Proiektu hau martxan jartzeak ez du bakarrik gure ikastetxea hobetzen eta hura gorentasunaren bidean jartzen; horrekin batera, inpaktu positiboa eragiten da euskal gizartearen multzoaren eta haren sare ekonomikoaren maila teknologikoan.

2. AURREKARIAK.

Aurrekari modura aipatu daitezke bai sailburuak legebiltzarraren egoitzan adierazitako konpromisoa, bai Espainiako Gobernuaren Lehendakaritzatik bultzatutako lurralde lankidetzako programa.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

4. JARDUERAREN ERAGINA

a) Araudian:

Ez da aurreikusi.

b) Antolamenduan:

Ez da aurreikusi.

c) Aurrekontu eta Finantzetan:

Jarduera Sailaren ohiko aurrekontuarekin finantzatuko da, nahiz eta adierazi beharrekoa den LOEren memoria ekonomikoaren zati batek aurreikusi egiten duela horrelako ekintzak garatzea eta, ondorioz, Estatuaren aldetiko finantzazioa gehitu egin beharko litzateke kupoaren bitartez.

Programaren urteko kostua 14 milioi euroko kopuruan kokatuko litzateke gutxi gorabehera.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk)

Ez da aurreikusi.

e) Erakunde harremanak

Ez da aurreikusi.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

Jarduera 2009-2010 ikasturtean hasiko da eta 2013ko ekainera arte iraungo du.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

Ez da metodologiarik diseinatu, izan ere, ez du beste erakunde bakar batek ere parte hartuko.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

Proiektua Sailak martxan jarriko badu ere eta hartako lider izango bada ere, guraso elkarten eta ikastetxe pribatu itunduetako buruzagitzen lankidetzaren egongo da honakoa martxan jartzeko.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Eskola 2.0 ataria sortu du, interesdun guztiek programan parte hartzeko duten modu bezala.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

Eskola 2.0 proiektuak, martxan jartzen denetik, agerpen handia izan du hedabideetan (funtsean prentsan eta irratian).

Aurreikusi diren ekintzak:

- Lehendakariak 100. ikasgela inauguratzea, 2010eko martxoan.
- (Proiektu fasean) 2010eko martxoaren bigarren astean programa martxan jartzeko jardunaldi bat egitea, nazioarte edo estatu mailan ospetsua den pertsonaren bat bertaratuz. Halaber, Sailak martxan jarritako baliabideak aurkeztuko dira. Haren maila finantzazio aukeren arabera izango da. Gobernuko beste sail batzuen lankidetzaren eskuratzeko pentsatzen ari da, eta baita enpresaren baten babesa lortzea ere (Telefónica-arena edo besteren batena).
- Programaren merchandising-a lantzea.

15.- Modu esperimentalean Hezkuntza Hirueledunaren Esparrua (HHE) martxan jartzea.

1. HELBURUAK.

Bi hizkuntza ofizialen irakaskuntza hezkuntza sisteman nahiko egonkorturik dagoen honetan, euskal gizartearen sektore ezberdinetatik beharrezkotzat jotzen da egungo hizkuntza ereduak gainditzea eta ingelesa irakaskuntzako hizkuntza modura orokorrean sartzea ahalbidetuko duen proposamen batetarantz abiatzea.

Aldarazpen horretarako beharrezkoa da adostasuna eta, batez ere, esperimentazioa. Hori dela eta, Irakaskuntza hirueledunaren esparruak hirueletasun hori ikastetxe kopuru jakin batean saiatzeko proposamena dakar, helburutzat hura ebaluatu eta orokor bihurtzeko aukera izanez.

2. AURREKARIAK.

Hauteskunde programan aurreikusitako jarduera adierazgarria, eta sailburuak legebiltzarraren egoitzan bere sailaren jarduera ildoak aurkezteko edukitako agerraldian aipatutako konpromisoetan ere jaso zena.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian:

Ez da aurreikusi esperimentatze fasean.

b) Antolamenduan:

Esperimentatzean parte hartuko duten ikastetxeei Giza Baliabideen ezohiko zuzkidura emango zaie.

c) Aurrekontu eta Finantzetan:

Jarduera Sailaren ohiko aurrekontuarekin finantzatuko da, nahiz eta adierazi beharrekoa den LOEren memoria ekonomikoaren zati batek aurreikusi egiten duela horrelako ekintzak garatzea eta, ondorioz, Estatuaren aldetiko finantzazioa gehitu egin beharko litzateke kupoaren bitartez.

Esperimentazioan parte hartzen duten ikastetxeei aurrekontu handiagoa emango zaie.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk):

Ez da aurreikusi.

e) Erakunde harremanak:

Ez da aurreikusi.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

2010/2013.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

Ez da metodologiarik diseinatu, izan ere, ez du beste erakunde bakar batek ere parte hartuko.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

Jarduera garrantzitsu hau 2010eko martxoan aurkeztuko zaio Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordeari, eta, ondoren, hezkuntza komunitateari jakinaraziko zaio.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

Ikastetxeetako zuzendaritza taldeei eta hezkuntza komunitateari zuzeneko informazioa emango zaie, eta baita hedabideen bitartekoa ere gizartea jakinaren gainean jartzen denean.

16.- EHUko Zientzia Parkea Leioan.

1. HELBURUAK.

- I+G+b jarduerak sustatzea unibertsitatearen esparruan, eta horiek enpresaren munduarekin erlazionatzen direla erraztea.
- Existitzen diren enpresak bultzatzea eta enpresa berriak sortzea, azaltzen ari diren sektoreetan oinarri teknologikoa edukita.
- Euskal enpresak teknologia eta ekipoak instalazio zientifiko eta tekniko handiei hornitzen dizkieten merkatuan kokatzea.
- Zientzialariak eta teknologialariak prestakuntzan babestea, sormenarekin eta ezagutza trukearekin konpromiso irmoa duen giro batean.
- Hurrengoak bezalako industriako sektoreak babesteko gaitasun instrumentalak garatzea: muturreko aplikazioetarako materialak, espezializazio maila altuko potentzia elektronikoa edo genomika. Horietan materiaren eta erradiazioaren artean egongo den elkarrekintza garrantzitsua izango da.

2. AURREKARIAK.

EHUren eta Bizkaiko Teknologia Parkeko Sozietatea SAren artean hartutako akordiotik aurrera, irekita geratzen da bidea Leioako unibertsitate campusean libre dagoen tokia Euskadiko lehenengo Zientzia Parkea izan dadin. Parke honen sorrera orientatuta dago bertan plataformak instalatzeko. Horietan, unibertsitate ikerketako taldeek I+G jarduerak garatu ahalko dituzte, eta baita teknologia transferentziakoak ere alde aurretik existitzen diren enpresei edo *spin-off* erako beste batzuei. Parke honek *Instalazio Zientifiko Tekniko Berezia* (Espalazioaren bidezko Neutroien Iturri Europarraren egoitza espainiarra –ESS ingelesezko sigletan–) izena duena edukiko du trakzioko elementu bezala. Hura Eusko Jaurlaritzak eta Estatuko Gobernuak finantzatzen dute eta partikulak azeleratzeko zientzia eta teknologia garatzera zuzenduta dago eta, horren ondorioz, erreferentziako laborategi honetako garapenei elkartutako ekoizpen jarduerak erakarriko dira.

Leioako Zientzia Parkea Euskadin sortzen den lehenengoa izango da. Baliagarritzat jotzen da alde aurretik Teknologia Parkeetan edukitako eskarmentua, beste herrialde eta autonomia erkidego batzuk (Katalunia, Madril, Andaluzia) Zientzia Parkeen alor berezian dutenarekin osatuko dena.

Jarduera lehendakariaren programako adierazpenekin eta Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren euskal sistemaren garapenean erantzukizunak esleiturik dituzten Gobernu kideenekin lerrokatzen da. Halaber, enpresa berritzaile eta ezagutzan iraunkorrak direnetan oinarritutako ekoizpen eredu batera igartzeko aldaketarekin lerrokatzen da, eta baita unibertsitate jarduna ekoizpen sarearekin uztartzeko apustuarekin ere.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, unibertsitateen esparruan eta politika zientifikoan eta ikerketa teorikoa eta aplikatua bultzatu eta koordinatzeko lanean eskumenak edukitzeagatik.
- Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila, zientzia parke berri hau sartuko den Teknologia Parkeen sarearen gainean eskumenak edukitzeagatik eta berrikuntza teknologikoan eta politika industrialean ere edukitzeagatik.

Sail hauez gain, Lehendakartzak eskumen garrantzitsuak ditu bere ardurapean, lehendakaria presidente den Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Kontseilua atxikita edukitzeagatik.

4. JARDUERAREN ERAGINA

a) Araudian:

Araudian eragin zuzenik edukitzea ez da aurreikusi.

b) Antolamenduan:

EHUrekin Leioa-Erandion Zientzia Parkea instalatzeko Akordioak erakunde hau sartu nahi du Teknologia Parkearen Sozietatea SAn, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailari atxikita dagoena. Hori SPRI garapen agentziaren bitartez egingo litzateke (Sozietateko bazkide izanez Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Zamudioko Udalarekin batera).

Espalazioaren bidezko Neutroien Iturri Europarraren egoitza espainiarraren kokalekua Zientzia Parkean alde aurretik Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Estatuko Administrazio Orokorraren artean sinatutako akordio baten bitartez antolatzen da. Horren bitartez Egoitza Europarra Euskadin (2006) kokatzea sustatu zen eta Partzuergo bat sortu beharrezko neurriak kudeatzeko antolamendu modura.

c) Aurrekontu eta Finantzetan:

Parke berriaren aurrekontua definizio aldian dago xehetasunen mailan.

Zientzia Parkea eraikitzeke lehenengo fase batek 9 milioi behar izatea aurreikusi du lursaila hiritzeko, eta beste 13 eraikin nagusia altxatzeko eta beste 13 milioi EHUren ikerketa taldeak instalatzeko plataforma zientifiko-teknikoetako baten gastuak ordaintzeko.

Instalazio zientifiko-teknikoak 180 milioi euroko inbertsio oso pilatua aurreikusten du; hori 6 urteko epean burutuko da eta % 50ean finantzatuko da Estatuko Administrazio Orokorraren (Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren bitartez) eta Eusko Jaurlaritzaren artean.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk):

Esku hartzen duten sailen xehetasunei dagokienez, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailarekin (zuzenean edo SPRIren bitartez) harreman eta elkarrekiko erlazio iraunkorra edukitzeaz gain, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Kontseiluren bitartez Ekonomia eta Ogasun eta Osasun eta Kontsumo sailekiko (Kontseiluan ordezkaritza zuzena dute) eta Lehendakariarekiko harremana antolatuko da. Azken horrek koordinazioa egingo du eta zuzeneko ordezkaritzarik ez duten baina gaien esku hartzen duten beste eremu posible batzuen agerpenaren alde egingo du.

Halaber, egokitzen diren harremanak edukiko dira Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren (Lehendakariatzatik sustatuta) eta Unibertsitate Planaren (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak berak sustatuta) organo kudeatzaile direnekin.

e) Erakunde harremanak:

Zientzia Parkea sortzeko beharrezkoa da Bizkaiko Foru Aldundiaren nahiz Leioako Udalaren lankidetzaz edukitzea, Parke berrira iristeko azpiegiturei eta instalazioak egiteko kasuan kasuko baimenei dagokienez.

Instalazio Zientifiko Tekniko Berezia martxan jartzearen gaineko jarraipena Estatuko Administrazio Orokorrarekin eratzten den Partzuergoaren bitartez egiaztatuko da.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

EHUren Zientzia Parkeari dagokionez, 2018 aurreikusi da erabat funtzionatzen arituko den data bezala, nahiz eta data hori unibertsitateko ikertzaile taldeentzako plataformak eraiki eta martxan jartzearen araberakoa den eta, batez ere, bertan enpresak edo beste enpresa batzuetako I+G+b departamentuak instalatzea lortzen den abiaduraren araberakoa.

Laborategiaren kasuan, 2012rako instalazioa potentzia baxuan funtzionatzen edukitzea aurreikusi da, eta 2015ean espalazioaren bidez neutroiak sortzeko moduan.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

Esku hartzen duten Gobernu bi sailen, EHUren, Euskadiko Teknologia Parkearen Sozietatearen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren, eta Leioako Udalaren arteko lankidetzaz sistema egokia funtzionatzen ari da jada.

Bestalde, jada existitzen den Partzuergoak Zientzia eta Berrikuntza Ministerioarekiko lankidetzaz antolatzen du, laborategi berria garatzeko. Halaber, laborategi hau egoteak aukera emango du lankidetzaz loturak eratzeko antzeko beste ikerketa zentro batzuekin Europar eta EEBBetan.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

Unibertsitatean I+G+b jardueretara zuzenduta dauden komunitateak, I+G+b Zentroak eta Teknologia-entzako enpresak dira zerikusituz zuzenean duten gizarte agenteak.

Jarduera honek balio izan behar du ere zientzia eta teknologia berriak gizartera orokorrean hurbiltzeko, gure nerabeen artean bokazio zientifiko eta teknologikoen kopurua areagotuz.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

Bai Eusko Jaurlaritzak eta haren mendeko diren erakundeek, bai EHUK berak, baliabide egokiak dituzte jarduera honen ezaugarriak nahiz esanahiak maila ezberdinetan eta hartzaile ezberdinentzat barreiatzeko.

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

17.- Kontu Publikoen berroreka.

1. HELBURUAK.

- 1.- Neurriz gaineko defizita zuzentzea.
- 2.- Aurrekontu oreka lortzea egiturari dagokionez epe ertainean (2013).

2. AURREKARIAK.

Eusko Jaurlaritzaren egungo ibilbidearen hasierak bat egin du euskal ekonomia atzerapenean sartzeak ekarritako krisiaren une gogorenarekin.

Krisi honek eragin nabarmenak ekarri ditu jarduera ekonomikora eta enplegura, baina baita kontu publikoetara ere, Kontzertu Ekonomikoa berrezarri zenetik diru-bilketaren beherakada garrantzitsua jasan delako. Erorketa horrek aurrekontu publikoak desorekatu zituen, defizit kezkarria sortuz.

Eskariaren erorketak (bai barrukoa, bai kanpoko), enpresek eta familiek kredituak eskuratzeko dituzten zailtasunak, lanpostu galerak eta diru-bilketan galera egotetik eratorritako aurrekontu desorekak beharrezkoa egin dute Eusko Jaurlaritzaren politika ekonomikoan aldaketa egotea.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

Administrazio Orokorreko sail guztiak, erakunde autonomoak eta sozietate publikoak.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian:

Hartutako politika ekonomikoko erabakiak kasuan kasuko ekitaldi ezberdinetako aurrekontu legeetan islatuko dira.

b) Antolamenduan:

c) Aurrekontu eta Finantzetan:

Jarduerak eragin zuzena du Eusko Jaurlaritzaren jardueren multzoan, izan ere, berroreka planak estalki finantzarioa ematen die aurrekontuei.

1) Diru-sarreraren eta gastuen neurri zuzentzaileak

Politika fiskaleko bi alderdiren gainean jardutea aurreikusita da:

- a) Gastuari eustea, batez ere ohiko gastuetan. (Ikusi politika honen justifikazioa).
- b) Diru-sarrerak berreskuratzea. Urteko batez besteko hazkunde tasa % 7,6koa izatea espero da 2010-2013 aldirako.

2) Neurri zuzentzaileen eraginaren zenbatespena: Diru-sarriren bilakaerari eta gastuei dagokienez gain hartutako konpromisoak

	2010	2011	2012	2013
1. BPG nominala	68.045	70.085	72.852	76.023
BENETAKO ERAGIKETAK				
2. Ohiko diru-sarrerak	8.018	8.657	9.284	10.001
3. Ohiko gastuak	8.550	8.636	8.808	9.072
4. (2-3) AURREZPENA	-532	21	476	928
6. Kapital diru-sarrerak	249	461	472	339
7. Kapital gastuak	1.549	1.849	2.077	2.218
8=(7-6). KFEGd	1.300	1.388	1.605	1.879
10=(4-8). Kap (+) Finantz. Beh. (-)	-1.832	-1.367	-1.129	-950
FINANTZA ERAGIKETAK				
12. Baliabideak	2.048	1.617	1.409	1.260
13. Enpleguak	216	250	280	310
14=(2+6+12). Diru-sarrera osoa	10.315	10.735	11.165	11.600
15=(3+7+13). Gastu osoa	10.315	10.735	11.165	11.600
16=(14-15). Diferentzia	0	0	0	0
5=(4/1*100). Aurrezpena/BPG	-0,78	0,03	0,65	1,22
9=(8/1*100). KEGd/BPG	1,91	1,98	2,20	2,47
11=(10/1*100). Defizita/BPG	-2,69	-1,95	-1,55	-1,25

d) Gobernuaren beste jardura batzuetan (beste sail batzuk):

e) Erakunde harremanak:

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

2010-2013.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

- Aurrekontuak lantzeko gidalerroak garatzea.
- Gidalerro horiek esku hartzen duten erakunde ezberdinei jakinaraztea.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

Ez da ageri edo ez da haren berririk jardura honetan.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

Administrazio Orokorreko sail guztiak, erakunde autonomoak eta sozietate publikoak.

18.- Euskadi Estrategia 2010/2013.

1. HELBURUAK.

- 1.- Gobernuaren helburu estrategikoei lehentasuna ematea.
- 2.- Gastua arrazoizko bihurtzea.
- 3.- Esparru ekonomikoa eta aurrekontuena finkatzea epe ertainera.
- 4.- Emaitzetara zuzendutako aurrekontu sistema bat finkatzea.

2. AURREKARIAK.

Postua hartu zuenetik, Eusko Jaurlaritza berriak gobernuaren ekintzak planifikatzeko ekimen ezberdinak jarri ditu martxan Legegintzaldi berrirako. Lehenik eta behin, sail batzuk plangintza estrategikoko prozesu batzuk martxan jarri dituzte, beren jarduera eremuetan legegintzaldiko planak lantzeko. Bigarrenik, lehendakaritzatik Eusko Jaurlaritzaren “*Plangintza eta Jarduera Garrantzitsuen Egutegia*” lantzen ari da. Horren helburua saileko ekimen hauek guztiak antolatu eta koordinatzea da, behetik gorako prozesu batean. Bestalde, *Eko-Euskadi 2020* plan bat lantzea ere martxan jarri da, epe luzeagorako plan bat, alegia. Hark legegintzaldi hau gaundituko du eta kezka nagusi bezala ingurumena babestea izango du garapen iraunkorraren ikuspuntutik.

Azken batean, ikuspegi estrategiko ezberdinetatik sortutako hainbat ekimen dira. Horiek deskoordinazioko arriskua aurkez dezakete Gobernuaren multzoan hausnarketa estrategikoko prozesu batean sartzen edo kokatzen ez badira. Organo gorena protagonista duen hausnarketa prozesu bat, *top-down* prozesu bat, politika publiko guztiak jarraitu beharreko lerroa finkatzen duten helburu handiak ezartzeko.

Zentzu horretan, bultzatu nahi den EE 2013 hausnarketa estrategikoak Gobernu osoaren ikuspegia lantzea du xede, eraiki nahi den etorkizunari buruz. Bertan, diagnostikotik eratortzen diren erronka handiak igarriko dira, helmugak eta lehentasunak ezarri; bereziki azpimarratuko diren gaiak, nabartu edo aldaraziko direnak, identifikatuko dira, edo bultzatu edo ezabatu nahi diren programa berriak ikusiko dira.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

Administrazio Orokorren sail guztiak, baina garrantzia bereziarekin Lehendakaritza, Ekonomia eta Ogasun eta Justizia eta Herri Administrazio sailak.

4. JARDUERAREN ERAGINA

a) Araudian:

Jarduera hau garatzeko ez da legedian aldaketarik sartu beharra aurreikusi.

b) Antolamenduan:

Sailen arteko batzorde bat sortu beharko litzateke, “Euskadi Estrategia 2010-2013” plana lantzeaz arduratuko litzatekeena.

Gobernuko sailek elkarri lagunduko diote eta baita Jardueraren arduradun den batzordeari ere; horretarako, plangintza estrategikoko prozesuetan ohikoak diren teknikak erabiliko dira, adibidez lan taldeetan eta hausnartzeko bileretan parte hartzen adituak diren aholkulariekin elkarrizketa sakonak izanez, eta abar.

c) Aurrekontu eta Finantzetan:

Jarduera honek ez du finantzazio berririk behar izango.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk):

Sail guztien partaidetza eta lankidetzak behar izango dira, batez ere Lehendakariaren, Koordinaziorako eta Justizia eta Herri Administrazioarako Idazkaritza Nagusiaren bitartez, eta Berrikuntza eta Administrazio Elektronikoaren Zuzendaritzaren bitartez.

e) Erakunde harremanak

Ez da horrelakorik aurreikusi EAEko Administrazioaren barne prozesu bat izateagatik.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

2013ko martxo-maiatza.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

Ez da horrelako jarduerarik aurreikusi.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

Ez da horrelako jarduerarik aurreikusi.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

Euskal gizartea osorik. Hari zuzentzen zaio Euskadi Estrategia 2010-2013 delakoa. Gobernuak Legegintzaldian dituen helburu orokorren erakusketa sistematikoa izan nahi du honek, lehentasunena, lortu nahi diren helburuena eta lorpenerako estrategia eta jarduera ildoena.

19.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko administrazio kontratazioaren sistema eta esleipenak egiten dituztenen botere multzoa eta euskal sektore publikoa eratzen duten enteak hobetzeko plana.

1. HELBURUAK.

Administrazio kontratazioa da Administrazioak duen mekanismoa behar publikoak hornitzeko: obra publikoak egitea, ondasunak hornitu edo erostea eta zerbitzuak garatzea.

Administrazio kontratazioak eragin nabarmen baino nabarmenagoa du Barne Produktu Gordinean, Administrazioaren Aurrekontuaren erabileran eta Administrazioaren funtzionamenduan nahiz enpresekiko harremanetan.

Premisa horiek aintzat hartuta, Botere Publikoen arretaren xede izan behar dira, eta horiek hobetzea gure Administrazioaren kezka iraunkorra edo estalia.

Etengabe hobetu nahi horretan, Euskadiko Administrazio Kontratazioaren sistema aztertzen bada, ikus daiteke hura garatu arazterik badagoela, Administrazio osoak eta enpresaren munduak behar bezala funtziona dezaten.

Arrazoi horrek, alegia, sistema hobetzen tematzeak, behartu egiten du haren barne antolamendua egokia izatera, sinatutako kontratuen datu eta informazioak biltzera, horiek arrazoizko bihurtzera, sinplifikatzera, eAdministrazioan kokatu eta sendotzen saiatzera eta haren barruko aholku funtzioa bultzatzera.

2. AURREKARIAK.

Kontratazioaren Araubide Organikoko aurrekariak 1981ekoak dira, administrazio honek bidea hasten zuenean hain zuzen. Urte horretan, Administrazio Kontratazioaren araubide zentralizatua antolatu zen hasiera batean, eta 1996. urtean hura deszentralizatzeko prozesu bat gertatu zen.

Kontratuen Erregistroaren aurrekariak 1986. eta 1996. urteetakoak dira. Une honetan, haien funtzionamendua ahula da, ez dagoelako eskatutako datu eta informazioak biltzea ahalbidetzen duen aplikazio informatikorik.

Kontratazioaren arrazoitze teknikoari dagokionez, ez da aurreragoko erreferentziarik ematen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen kontzeptu sarrera berriak izateagatik haien irudiak.

eKontratazioa aurreko legegintzaldian ezartzen hasi zen, eta beharrezkoa da hura pixkanaka eta etengabe sartzea Administrazioan eta harekin kontratuak eratu ohi dituzten enpresetan.

Eta, azkenik, prozedura izapidea sinplifikatzeko aurrekariren bat egonez gero, oso aspaldikoa da (1985. urtekoa), eta bakarrik 800.000 pezetatik beherako obra kontratuei buruzkoa da.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

Planean eta jardueretan Administrazioa eratzen duen sail multzo osoak esku hartuko du.

Esku-hartze berezia edukiko du Justizia eta Herri Administrazio Sailak, eKontratazioa hobetu eta garatuko duen partetik, eta aintzat hartuz gero bere funtzioen artean Administrazioa nahiz Administrazio eta Gobernu Elektronikoak modernizatzea eta eraberritzea dagoela.

Kontratazioaren alorreko berariazko eskumena Ekonomia eta Ogasun Sailari ematen zaio Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arlokoak finkatzen dituen lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuan.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian:

Lege eta araudi esparrua Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratazio-araubideari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuak, eta kontratazio elektronikoaren alorrean aplikatu beharreko araudiak finkatzen dute (azken kasu horretan aipamen berezia egin behar zaio Zerbitzu Publikoetara herritarrek sarbide elektronikoa edukitzeko ekainaren 22ko 11/2007 Legeari).

Administrazio Kontratazioaren araubide organiko berri batek, xehetasunetan galdu nahi izan gabe, ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuan eraginak edukiko ditu, otsailaren 21eko 27/2006 Dekretuak egiaztatutako aldarazpenarekin. Halaber, Kontratisten Erregistro Ofiziala arautzen duten arauekin eta 12/1998 Dekretuaren sailkapenaren ezarpenarekin bat egingo du, eta baita Aholku Batzordearen funtzionamendua antolatzen dutenekin ere, 1998ko otsailaren 4ko Aginduan.

b) Antolamenduan:

Jarduerak eragina eduki behar du Administrazio Orokorraren nahiz haren sektore publikoaren antolamendu egituran, batez ere baliabideak eta obrak kontratatzeke zerbitzuen egituretan. Administrazioaren barruan, Kontratazioaren alorreko baliabide berezien berri duen organoa eratu beharko da (SPKLko 37. artikulua).

c) Aurrekontu eta Finantzetan:

Jarduerarako aurrekontukoa ez den finantzazio osagarria behar izan daiteke, izan ere, langile teknikoei eta administrazioekoei erantsitako dedikazioa eskatzea etor daiteke. Ondorioz, ekoizpen arrazoiengatik iraunaldi mugatuko lan kontratazioak egin ahalko dira.

Baliabide Bereziak eta horiei dagokien aurrekontu zuzkidura ezagutzen duen organoa sortzeaz gain, obren, horniduren eta zerbitzuen kontrataziorako zentralak eratuko dituzten berariazko zerbitzuak sortu daitezke.

Aparteko gai bat da eKontratazioaren finantzazioarena.

Planak gastua murriztu dezake, Kontratazioaren arrazionalizazioa egiten bada, kontratazio elektronikoa sartzen bada eta Kontratazio, Baliabide eta Obra Zerbitzuen antolamendu egiturak hobetzen badira.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk):

Plan honetan, eKontratazioaren barruan, Justizia eta Herri Administrazio Sailaren esku-hartzea jazoko da.

Orokorrean, sail guztiek jasoko dituzte eraginak, jarduerak beren kontratazio araubidean zerikusia edukiko duelako. Halaber, haietako zenbaitekin koordinatzeko beharra sortzen da, Administrazioaren arrazionalizazio teknikoaren jorratzen denean.

e) Harremana beste administrazio batzuekin:

Estatuko Administrazio Orokorrekin eta gure inguruko beste administrazio autonomiko batzuekin, foru administrazioekin eta toki administrazioekin harremana eta, ahal den heinean, lankidetzaren eskatuko dira, hartu nahi diren konponbideen hobekuntza bilatuz.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

2010/2013.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

Harremanak aurreikusi dira Estatuko Administrazio Orokorrekin, Kataluniako Generalitatearekin, Valentziako Generalitatearekin, Aragoiko Erkidegoarekin, Andaluziako Juntarekin eta inguruko foru eta toki administrazioekin.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

Plana lantzeko prozesuan enpresa erakundeekin partaidetza egon daiteke.

8. PLANAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

- Bitarteko telematikoen erabilera.
- Barreiapeneko urteko aldizkaria.
- Partaidetza jardunaldi, hitzaldi eta ikastaroetan.
- Hedabideak.

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

20.- Open Data Euskadi / EAeko Administrazio Orokorraren datu publikoen irekiera.

1. HELBURUAK.

Eusko Jaurlaritzak bere esku dauden datu publikoak benetan irekitzeko konpromisoa hartzen du. Datu publikotzat hartuko dira pribatutasun, segurtasun edo jabetza mugetara atxikita ez dauden datu guztiak. Berrerabili daitezkeen formatuetan datu multzoak erabiltzea modu antolatuan egingo da, lehentasunezko irizpideei jarraiki. Datu multzoak jabetza irekiko lizentzien pean eskaintzerik egongo da, horrela berriro banatzea, berrerabiltzea eta merkataritza xedeekin aprobetxatzea ahalbidetuz.

Jardueraren helburuak hauek dira:

- Infomediarioek berrerabiltzeko edukiak aurkeztea, eratorritako produktuak eskuratzeko baldintzetan, eta, horrela, balio ekonomikoa eta gizartekoa sortu.
- Administrazioan gardentasuna sustatzea.
- Administrazioen artean elkarrekiko eragiketak sustatzea, izan ere, horiek aplikazioak izan daitezke norberaren datuetatik abiatuz eta Eusko Jaurlaritzak berrerabilitako batzuetatik abiatuz.
- Informazio sistemen barne antolamendua erraztea, izan ere, datuen dokumentazioa eta abar sustatzen dira.

2. AURREKARIAK.

Sektore publikoko informazioa berrerabiltzeari buruzko 37/2007 Legeak (2003/98/CE Zuzentaraua barneratzen duena) garapen ekonomikorako, informazioaren gizartean, duen interesa aipatzen du.

Sektore publikoak informazio aniztasun handia sortzen du, eta hori herritarrek eta eduki digitalen industriek berrerabiltzeko aukera dago. Informazio horren artean, adibidez, gizarte informazioa, informazio ekonomikoa, geografikoa, estatistikoa, meteorologikoa edo turistikoa egongo litzateke, eta baita enpresei eta hezkuntzari buruzkoa ere. Informazio honek eduki digitalen sektorerako bereziki erakargarri egiten duten ezaugarri batzuk ditu, osatua, fidagarria eta kalitatezkoa izategatik.

Aldi berean, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek (IKT) zorrozki aldatu dituzte informazio orokorra eta sektore publikoko informazio berezia eskuratzeko bideak. Gauzak horrela, nabarmenki erraztu dute informazio bilketa, haren barreiapena, eskura jartzea eta eraldaketa. Hori dela eta, ezagutzaren ekonomian, sektore publikoko informazioa berrerabiltzeak aukera ekonomiko nabarmenak agertzen ditu, izan ere, informazio digitaleko produktu ugariarentzako funtsezko oinarri bat eratzen dute. Arrazoi hau dela eta, ezinbestekoa da informazio publikoaren berrerabilpen eraginkorra bermatzea, haren

aukerak aprobetxatzeko eta, horrela, produktu, zerbitzu eta merkatu berriak garatzeko. Horien bitartez, garapen ekonomiko handiagoa eta lanpostu sorrera handiagoa egongo dira eduki digitalen industrian.

Gobernu Kontseiluaren 09/12/29ko Akordioan, datu publikoak irekitzeko proiektua hasia agintzen duena azaroaren 16ko 37/2007 Legea betez, Eusko Jaurlaritzak, ikuspegi zabalago batekin, informazio publikora sartzeko askatasuna planteatzen du Gobernu Irekiranzko orientazio baten esparruan eta jokoan jarriz gardentasun, parte-hartze, zerbitzu eta eraginkortasun balioak.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK.

Plan honek zeharkako izaera du EAeko Administrazioaren multzorako, eta, ondorioz, bere sail guztiak eta sektore publikoa harrapatzen ditu.

Halaber, egokitzen jotzen da proiektu hau sustatzea Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren lankidetzaren edukiz.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian:

Informazio publikoaren titulartasun eta erabilera araubidearen erregulazioan nahiz berrerabilpena nola ahalbidetuko den zehazterakoan eragina du.

b) Antolamenduan:

Hasiera batean, jarduerak ez du antolamenduaren aldetiko aldarazpenik ekartzen.

c) Aurrekontu eta Finantzetan:

Proiektu honetatik eratorritako kontratazio beharretarako, 150.000 euroko gehieneko kopurua finkatu da, 2010. urterako.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk):

Jarduera honek, duen zeharkako izaera dela eta, Sail guztien ekintzetan du eraginik, antolamenduaren eta informatikaren alorrean, nahiz eta hasierako lehenengo fase batean askapenerako jarduera garrantzitsurik behar ez duten datu multzoak jorratuko diren.

Bestalde, jarduera hau Lehendakariak Gobernu Irekiaren alorrean bideratzen dituen jarduerekin koordinatu behar da.

e) Erakunde harremanak:

Sektore publikoko informazioa berrerabiltzeari buruzko azaroaren 16ko 37/2007 Legeak berrerabilpena kontzeptutik kanpo uzten du Administrazioen eta sektore publikoko erakundeen arteko informazio trukea, hori esleiturik dituzten funtzio publikoak baliatuz egiten bada. Datuen irekierak, orokorrean, administrazio ezberdinen arteko lankidetzaren aukera handiak eskaintzen ditu eta, batez ere, haien webguneen artean.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

2010-2013.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

Jarduera honen izaerak ez du koordinazio mekanismoak ezarri beharra sortzen. Formatu elkarreraginkorretan datu multzoak webgunean argitaratze soilak aukera ematen du proiektu honen onurak eskuratu nahi dituen edozein erakundek hori egiteko aukera eduki dezan berehala, informatzeko beharrik ere eduki gabe.

Denborarekin, jarduera honek trakzio papera bete behar du, beste erakunde batzuk mugitzeko informazio publikoa askatzera. Eusko Jaurlaritzak lidergoa gain hartu nahi du eremu honetan. Lidergo hori, nagusiki, adibidearen bidetik egingo da, baina, baita ere, nazioarteko helmena edukiko duen ekitaldi bat antolatzea aurreikusi da, sektore publikoan sortzen ari diren esperientzia guztiak trukatzeko.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

Sektore infomediarioa: informazioa berrerabiltzeko gaitasun teknikoa duten enpresa, elkarte eta partikularrak. Sektore honekin lankidetzak aktiboa bilatuko da, Irekiak emandako plataformaren erabilera eta dinamizazioaren bitartez.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

Planaren barne eta kanpo barreiapen zabala garatuko da, bai lantzearen fasean, bai burutzapenarenean, eta hurrengoak erabiliko dira komunikazio bide modura:

- Berezko ataria euskadi.net helbidean.
- Tecnimap 2010 sarira aurkeztea.
- Erreportajeak prentsan, irratian eta Interneten.
- Agerpena gizarte sareetan.
- Agerpen iraunkorra Euskadiren inguruko ekitaldietan (Cadius, Bazkaria, Interneten Eguna...), Espainian (Aporta plana...) eta nazioartean.
- Nazioarteko ekitaldi bat antolatzea, Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioarekin lankidetzan.

21.- Software librearen bulego teknikoa.

1. HELBURUAK.

IX. legegintzaldiaren hasierarekin, Gobernuak une honetara arte erabili dituen konponbide teknologikoak eta aplikazio informatikoak aztertu dira, eta, batetik, ikusi da gehienak lizentzia bidezko konponbideak direla edo, beste era batera esanda, jabetzako softwarekoak. Horrek, ondorioz, software librearen garapen edo aplikazioen konponbide estandarizatu eskasak egotea eragiten du.

Egoera honetan oreka baten alde egiteko, Gobernuaren jarduera orokorraren plangintzaren barruan, planteatu egin zen Informatika eta Telekomunikazioen Zuzendaritzaren bitartez zerbitzuak kontratatzeko espediente bat martxan jartzea, Eusko Jaurlaritzan software librea estandarizatzea babesteko bulego tekniko baterako.

Bulego Teknikoak funtzio nagusi edo funtsezko funtzio batzuk esleiturik edukiko ditu:

- Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzari (aurrerantzean ITZ) aholkularitza ematea zuzenean Software Librearen gaian.
- Komunikazioan laguntzea, bai barrukoa, bai kanpukoa, Software Librearekin zerikusia duen beharrezko gertaeraren baten aurrean.
- Eusko Jaurlaritzan Software Librearekin garatutako jarduerarik ba ote dagoen egiaztatzea, horiek baliozkotzeko edo beharrezko neurri zuzentzaileak garatzeko kasuan kasuko frogantzak finkatuz.
- Sailen beharren edo ITZren beraren beharren arabera baldintza-agiriak edo lehiaketak garatzen direla babestea.
- Eusko Jaurlaritzak esparru honetan duen jarrera azaltzea ahalbidetzen duten foroetan parte hartzea.
- Software Libreko konponbideak eduki ditzaketen jardueretan jarraipen eta aholkularitza bide modura jardutea.
- Software Librearen erabilera bultzatzen duten saiakuntza proiektuak sustatzeko ideiak garatzea.
- Eusko Jaurlaritzaren Software Libreko eredia kanpoaldean kokatzea ahalbidetzen duten ekitaldi, azoka edo biltzar interesgarrietan parte hartzea.

2. AURREKARIAK.

Jatorria aurreko legegintzaldian onetsitako legebiltzarreko 08/11/03/00/0028 interpelazioa da, 2006ko azaroaren 17koa. Bertan, Eusko Jaurlaritzari eskatzen zitzaion herri administrazioaren kontratazio legediari jarraiki egokitasun eta arrazionalizazio tekniko eta ekonomikoko irizpideak aplika zitzala softwarea erosteko garaian eta, edozein kasutan, software librearen nahiz pribatuaren konponbideak balora zitzala. Halaber, Eusko Jaurlaritzari eskatu egiten zitzaion ere enpresen eta herritarren artean software librea sustatu eta bultzatzera zuzendutako ekintzak azpimarra zitzala.

Legegintzaldi honetan, Hezkuntza Batzordean 2009ko azaroaren 11n onetsitako 54/2009 legekoa ez den proposamenak Eusko Jaurlaritzari eskatu egiten zion irakaskuntzaren alorrean erabili beharreko sistema eragilea edo teknologia, software librekoa edo jabetzakoa izan alde batera utzita, aukera, eraginkortasun eta efikazia irizpideen arabera hauta zedila, ikasleen prestakuntzaren interesari jarraiki. Halaber, kasu guztietan ezgaitasunen bat duten pertsonen irisgarritasuna bermatzea eskatu zitzaion.

Legebiltzarreko proposamen horiei erantzuteko, martxan jartzen da zerbitzuak kontratatzekeko espediente bat. Horrek babesa emango dio Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzaren informatika zerbitzuari, administrazioak behar duen ezagutza eremu horretako laguntza teknikoko beharra gorabehera. Izan ere, lehen ere esan den moduan, konponbide informatiko estandarizatu gehienak jabetzako softwarearen motakoak ziren.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

EAEko Administrazioeko sail eta erakunde autonomo guztiak, erabiltzaile diren partetik.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian:

Bat ere ez.

b) Antolamenduan:

Bat ere ez.

c) Aurrekontu eta Finantzetan:

Gaur egun aurrekontuetan jasotako ohiko urteko finantzazioa baino finantzazio altuagoa behar izango da, estandarizazioa zabaltzeak informatika eskakizun berriak behar izango dituelako, bai hardware motakoak, bai hura mantentzekoak.

Epe luze eta ertainean, software libreko konponbide estandarizatu edo aplikazioak aukeratzeak aurrezpena ekarriko du, lizentzien kontratazioan beherapena egongo delako ziurrenik.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk):

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak duen SW Librearen sustapenari buruzko jarduerak, hezkuntzaren alorreko berriak beharrezkoak konponduko dituzten garapen berriak topatze aldera.

e) Erakunde harremanak:

Bat ere ez.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

2010. urtea.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

Ez da aurreikusi.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

Bulego teknikoaren neurri osagarri bezala, martxan jarri da Software Librearen Aholku Batzorde bat. Bertan, Euskadiko software libreko enpresen elkarte (ESLE) eta Eusko Jaurlaritza daude, FLOSS (Free Libre Open Source Software) konponbideen babes eta aholkularitza lanekin.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

Ohiko hedabideak, kasuan kasuko prentsa ohar eta prentsaurrekoekin, estandarizatutako konponbide berriak aurkeztuz. Halaber, Saileko langileek Espainian, software librean oinarritutako konponbideen erabiltzaileen artean, egiten diren biltzar ezberdinetan parte hartuko dute, adibidez Extremaduran urtero egiten den SW Librearen Biltzarrean.

Estatuko CENATIC Fundazioaren parte-hartzean ere oinarri hartuko dugu, Jarduera hau gainerako administrazioetan ere sustatzeko. Eusko Jaurlaritza haren patroietako bat da.

22.- Espediente elektronikoa birtuala esparru judizialean.

1. HELBURUAK.

Herritarren, profesionalen eta Justizia Administrazio beraren nahiz beste administrazio batzuen beharrak estaltzeko zerbitzuak ematerakoan sistema eraginkorra lortzea. Elkareragingarritasunari, beste administrazio edo erakunde batzuekin egindako informazio trukeari, aurre egiteko sistema bat, Justiziaren jardueran parte hartzen duten agente guztien kudeaketa sinplifikatuz nahiz hura herritarrei gerturatzea ahalbidetuz.

2. AURREKARIAK.

Gaur egun, plataforma teknologiko berrira egokitutako JustiziaBat aplikazioaren ezarpen maila altua da, prozesu kudeaketako aurreko aplikazioa ordezkatzuz.

JustiziaBat aurreko prozesuak kudeatzeko aplikazioaren aldean dakarren aldaketara egokitzeko aldia gaindituta, prozesua finkapen aldi batean dago gaur egun. Bertan, lurralde osoan zabalkundea, aplikazio berri honen garapen/ezarpena eta hura Bulego Judizial Berrira egokitzeko behar diren definizio eta egokitzapen lanak gauzatzen ari dira.

Erabilgarritasuna frogatzeko zuten eta erabileraren aldetik orain hainbat urte hain erabilera zabalduta ez zuten teknologien egungo finkapenak egoki bihurtzen du une hau teknologiak eguneratzeko eta funtzionaltasun berriak sistemara sartzeko, bai arkitekturaren eta segurtasunaren aldetik, bai kanpoko entitate batzuekiko elkareragingarritasunari dagokionez ere, eta bi kasu horietan emaitzetan emandako orientazioak hobekuntza nabarmenen multzoa dakar Justizia Administrazioan herritarrentzat.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

Garatu beharreko lanen tamainak beharrezkoa egiten du Eusko Jaurlaritzaren beste sail batzuen barne zabalkundea. Zehazki, aipatu egin behar da Herrizaingo Sailaren esku-hartzea JustiziaPol sistemari dagokionez (Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen zitazio agenda).

4. JARDUERAREN ERAGINA.

EAEko Administrazioa aitzindaria da Estatu mailan, Espediente Judizial Elektronikorantz eramaten duten irizpideak aplikatzerakoan. Gauzak horrela, burutzen dituen jarduerak Espediente Judizial Elektronikoa etorkizuna markatuko dute estatu mailan, data honetara arte zentzu horretan eragin positiboa eduki dugula gogoratzuz.

EJIS (Elkareragingarritasunaren eta Segurtasunaren Eskema Judiziala) proiektuaren jarduera ildo asko Euskaditik azken urteotan ezarri ditugun beharretatik eratorritakoak dira.

Badirudi logikoa dela pentsatzea Espediente Judizial Elektronikoari dagokionez eragina eduki daitekeen alderdi horiek egonkortu egiten dituztela Euskadin teknologia berrien alorrean egiten diren gainerako jarduerak.

a) Araudian:

- **Lege esparru orokorra:**
 - 11/2007 Legea, Zerbitzu Publikoetara herritarrek sarbide elektronikoa edukitzeari buruzkoa.
 - 56/2007 Legea, abenduaren 28koa, Informazioaren Gizartea bultzatzeko neurriei buruzkoa.
 - 59/2003 Legea, abenduaren 19koa, Sinadura Elektronikoari buruzkoa.
 - 34/2002 Legea, uztailaren 11koa, Informazioaren Gizartearen Zerbitzuei buruzkoa.
 - 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datuak Babesteari buruzkoa.
 - 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
- **Justizia Administrazioaren lege esparrua:**
 - 6/1985 Lege Organikoa, uztailaren 1ekoa, Botere Judizialarena (230. artikulua eta harekin bat datozenak).
 - 1/2000 Legea, urtarrilaren 7koa, Prozedura Zibilari buruzkoa (Legearen hainbat artikulutan arautu egiten da espediente judizial elektronikoarentzat euskarri modura balio duten baliabide teknikoek erabilera: exhortoak, jakinarazpenak...).

b) Antolamenduan:

Espediente Judizial Elektronikoaren ezarpenak berekin darama aldaketa nabarmen bat egungo ohiko lan prozesuetan maila judizialean, eta oinarritzko euskarri bihurtzen da Botere Judizialari buruzko Lege Organikoaren erreformak ezarritako Bulego Judizial Berriaren ezarpenean.

c) Aurrekontu eta Finantzetan:

Inbertsioen kapituluarekin garapenen ikuspegitik bakarrik eta ez mantentze gastuenetik zerikusia duena aintzat hartuta, gaur egun jada definitu diren ildoak gorabehera urtero behar izateko aurreikusi diren kopuruak hauek dira:

- 2010. urtea: 3.000.000 €.
- 2011. urtea: 3.000.000 €.
- 2012. urtea: 1.200.000 €.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk):

Herrizaingo Saila, enplegu eta Gizarte Gaietako, Kulturakoa, Justizia eta Herri Administrazioakoa. Sail horietako bakoitzak sistemara kargatzen ditu datuak, bide elektronikotik jarduera judiziala egin ahal izateko. Lankidetzaz ezina da, espediente elektronikoaren osotasuna mantentze aldera.

e) Erakunde harremanak:

- a. Justizia Ministerioa.
- b. Foru Aldundiak (adingabeak...).
- c. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia.
- d. Justiziako Fiskaltza Nagusia.
- e. Zerga Agentzia.
- f. Trafikoa (Trafikoko Zuzendaritza Nagusia, EAEko Trafikoko Zuzendaritza).
- g. Gainerako autonomia erkidegoak.
- h. Justiziaren alorreko elkargo profesionalak autonomia erkidego mailan eta estatu mailan.
- i. Erregistratzaile eta notarioen elkargoak, estatu mailan ere.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

2010-2012.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

Prozesuaren barruko zatiarekin uztartuta dauden jardueri dagokienez, JAIKP 2008-2011 Planean ezarrita daudenak. Kanpoko agenteei dagokienez, formula hauek: alderdien artean akordio batera iristeko behar diren hitzarmenak eta akordioak.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

- Abokatu eta prokuradoreen elkargo profesionalak.
- Justizia Administrazioako langileak.
- Idazkari judizialak.
- Epaileak.
- Erregistratzaileak.
- Notarioak.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

Jarduera eragile juridikoen erabileraren bitartez barreiatuko da, herritarrei emandako zerbitzuetan arintasun handiago batean.

23.- Euskadiko Justizia Administrazioan Bulego Judizial eta Fiskal berria antolatzeko Planaren ezarpena.

1. HELBURUAK.

Lortu nahi diren helburuak, funtsean, bi dira:

1.- Justiziaren aldetik jarduera arinagoa, kalitatezkoa eta eraginkorra erraztea, Justizia Administrazioaren eskura dauden giza baliabideak eta baliabide materialak arrazoiz erabiltzearen bitartez; eta

2.- Epaile eta magistratuei beren egiteko nagusiari arreta osoa eman ahal izatea erraztea, hau da, epaitzeari eta epaitutakoa gauzatzeari, bestelako eginbeharretatik kenduz. Bestelako eginbehar horiek idazkari judizialek hartuko dituzte bere gain.

2. AURREKARIAK.

Bulego Judizial Berriarekin, funtzio berriak nahiz egungo Auzitegi eta Epaitegietako baliabide materialak eta giza baliabideak berrantolatu egingo dira bi elementuren inguruan: Zuzeneko Laguntzarako Prozesu Unitateak (ZLPU) eta Prozesuko Zerbitzu Komunak. ZLPUek zuzenean laguntzen diete epaileei, magistratuei eta Prozesuko Zerbitzu Komunei, ez daude organo judizial zehatz batean sartuta, eta kudeaketa eta laguntzako lan zentralizatuak gain hartzen dituzte prozesuko legeak aplikatzetik eratorritako jardueretan. Ondorioz, eragile juridikoen multzoari atentziora eskaintzen dio.

Botere Judizialaren Lege Organikoak (Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldarazten duen abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoa) onartu egiten du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eskumena duela Bulego Judizialaren dimentsioa eta antolamendua zehazteko nahiz Euskadiko Barruti Judizialeko Prozesuko Zerbitzu Komunak diseinatu, sortu eta antolatzeko. Eskumen horiek baliatuz, Eusko Jaurlaritzak, Gobernu Kontseiluarekin 2008ko uztailaren 29an edukitako bileran, onetsi egin zuen Euskadiko Justizia Administrazioan Bulego Judizialen eta Fiskalen Antolamendu Plana (2008-2010), Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren aldeko txostena eskuratuta zuelarik.

Euskadiko Justizia Administrazioan Bulego Judizialen eta Fiskalen Antolamendu Planak Prozesuko Zerbitzu Komunak hiru mota aurreikusi ditu hasiera batean, hain zuzen ere, Prozedura Antolatzeko Prozesuko Zerbitzu Komuna, Burutzapenerako Prozesuko Zerbitzu Komuna eta Prozesuko Zerbitzu Komun Orokorra. Aitzitik, arrazoizko irizpideei arreta emanaz eta barruti judizial bakoitzaren dimentsioa eta konplexutasuna aintzat hartuta, Prozesuko Zerbitzu Komunak diseinua ezberdina izango da.

Bulego Judizialak hurrengo irizpideei jarraiki funtzionatu du: arintasuna, efikazia, eraginkortasuna, lana arrazionalizatzea eta Administrazioen arteko kudeaketarengatiko, koordinazioarengatiko eta lankidetzagatiko erantzukizuna. Ondorioz, herritarrek hurbileko eta kalitatezko zerbitzu bat eskuratuko dute. Ondorioz, funtsezkotzat joko da Prozesuko

Zerbitzu Komun Orokorraren eta Burutzapeneko Prozesuko Zerbitzu Komunaren antolamenduak goian aipatutako irizpideak aintzat hartzea kalitatea kudeatzeko egituratutako sistema baten esparruan. Horrela, Bulego Judizial Berriaren ezarpenaren tamainako garrantzia edukiko duen antolamendu erreforma lortzea erraztuko da.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

Justizia eta Herri Administrazio Sailak, Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuari jarraiki, Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendaritza sortzea agintzen du, eta hari hurrengo funtzioa emango zaio: “Bulego eta Zerbitzu Judizialak, Fiskaltzak eta Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundea Antolatzeko Plana landu, proposatu eta ezartzea eta haren jarduerak koordinatzea”.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian:

- Barruti Judizialetan Zerbitzu Komunak izango direnak sortzeko aginduak.
- Lanpostu Zerrendak onesteko aginduak.
- Barrutik judizial bakoitza antolatzea finkatzen duten ebazpenak, eta zerbitzu komunentzako funtzionamendurako oinarritzko arauak.

b) Antolamenduan:

Jarduera honek eraginak ekarriko dizkio Justizia Administrazioaren berezko zerbitzuen berrantolamenduari eta, zehazkiago esatearren, prozesuko zerbitzu komunenei.

c) Aurrekontu eta Finantzetan:

Ohiko baliabideekin finantzatuko da. Baliabide horiek eraikinak egokitzeko, aplikazio informatikoetarako, giza baliabideetarako (prestakuntza barne) eta jarduteko protokoloak lantzeko lankidetzarako erabiliko dira. Azken horiek Idazkaritza Judizialarekin, Fiskaltzarekin eta Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearekin izandako bileretan egingo da. Halaber, Prozesuko Zerbitzu Komunetan kalitatezko kudeaketako sistema bat diseinatu eta koordinatzen zuzendutako bestelako jardueretarako ere erabiliko dira, Euskadin Bulego Judizial Berria ezartzeari buruzko beste komunikazio jarduerak batzuetarako erabiltzeaz gain.

d) Gobernuaren beste jarduerak batzuetan (beste sail batzuk):

Kultura Sailarekin lankidetzak garatuko da, interes Historikoko artxibo judizialak antolatze aldera.

e) Erakunde harremanak:

Erakunde harremanak Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Salarekin, hiru Probintzia Auzitegiekin, Goi Fiskaltzarekin eta hiru Probintzia Fiskaltzen Buruzagitzekin, Gobernu Idazkaritzarekin eta Idazkaritza Koordinatzailearekin, Abokatzaren Euskal Kontseiluarekin, hiru Abokatu Elkargoekin, Prokuradoreen Euskal Kontseiluarekin, hiru Prokuradore Elkargoekin, Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden langileen sindikatu zentralarekin, Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearekin, Botere Judizialaren Kontseilu Orokorrarekin eta Justizia Ministerioarekin izango dira.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

2010/2013.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

Bulego Judiziala eta Fiskala Antolatzeko Planaren egiturari jarraiki, epailetzan, fiskaltzan, idazkaritza judizialean, abokatutzan, prokuradoretzan, Justizia Administrazioaren zerbitzura dagoen lantaldean eta Justizia Sailburuordetzan ordezkariak duten lan talde ezberdinak eratu dira, Euskadin Bulego Judizial Berria ezartzeko. Bi organo dago EAEren mailan (Ebaluazio eta Jarraipen Organoa eta Aldaketaren Kudeaketa Taldea), Lurralde Historiko bakoitzeko Ezarpen Talde bat eta Hobekuntza Talde bat barruti judizial bakoitzeko.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

- Zentral sindikalak.
- Abokatu elkargoak.
- Prokuradoreen elkargoak.
- Idazkaritza Judizialak.
- Fiskaltzak.
- Epailtza.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

Funtsezko helburutzat Justizia Administrazioako talde guztiek une oro zer gertatzen ari den, zergatik eta zertarako jakitea edukiz, proposatu diren aldaketek nola eragingo dieten ezagutzearekin batera, komunikazioko bide ezberdinak erabiliko dira. Bide horiek ezberdinak izango dira eman nahi den mezua eta komunikazio horren xede den taldea gorabehera. Gauzak horrela, bilerak egingo dira, aurkezpenak, eta dokumentuak landuko dira, eta, gainera, beste barreiapen baliabide batzuk erabiliko dira, haien helmen eta irisgarritasunagatik kasu bakoitzean talde interesdunaren baitan informazioa hedatzea bermatuko badute.

Edonola ere, aldaketa prozesua errazteko eta arrakastaren berme modura, bi aldeetatik aprobetxatu behar da proiektu honen inguruan sortzen den informazioa. Hori dela eta, barreiapen prozesuak euskarri eta komunikazio baliabideak eduki behar ditu, horren bitartez posible izan dadin informazioa bi norabideetan ibiltzea. Zentzu horretan, iradokizunen postontzia jartzea edota Ezarpen Talde bat martxan jartzea bezalako jarduerak aurreikusi dira. Azken hori solaskideetako bat izango da Antolamendu Planaren prozesu osoan zehar.

24.- Bultzada Bitartekaritza Judizialeko Zerbitzuei.

1. HELBURUAK.

Bitartekaritza Zerbitzuek gizarte bakea bilatzen dute, gatazkei konponbide alternatibo bat ematearen bitartez herritarren alde jarritako sistema den partetik gatazkek auzitegietatik kanpo ebazteko. Herri Administrazioetik gatazkek konpontzeko sistema zabaltzen dela sustatzea da, alde batetik Epaitegietatik ateraz eta, bestetik, norberak bere interesak osatzea azpimarratuz. Orain arte aurrerapausoak eman dira familiako bitartekaritzan eta zehapen bitartekaritzan, eta gizarte jurisdikzioaren eta jurisdikzio zibil eta merkataritzakoaren bidea da orain hasi nahi dena. Auzitegiari lan karga kenduko die, baina, batez ere, gizartearen aldetik baketu egiten ditu gauzak.

Berriazko helburuak:

- Gatazkan zerikusia dutenei protagonismo zuzena ematen die, beren interesak beren kabuz osa ditzaten.
- Gatazka ebazteko prozesua aberastu, alderdien arteko komunikazioaren bitartez eta prozedura judizialek kanpo geratu ohi diren alderdi subjektiboak sarraraziz. Horrela, epaiaren ezarpenaren aldean adostasuneko konponbide batean sakontasun handiagoa lortzen da.
- Gizarte baketzea.
- Auzian zerikusia duten pertsonen prozesu osoa hobeki ulertzen dutela lortzea.
- Justizia Administrazioaren lan karga murriztea.
- Erabaki Judizialak burutzen direla erraztea.

2. AURREKARIAK.

Europar Batasuneko Kontseiluaren Esparru Erabakiak, martxoaren 15ekoa (2001/220/JAI), zehapen prozesu batean biktimaren estatutuari buruzkoa dena, zera ezartzen du: “Estatu kideak saiatu egingo dira bitartekaritza bultzatzen zehapen auzietan [...]. Bitartekaritzaren ondotik biktimaren eta auzipetuaren artean lortu ahal izan den akordio oro aintzat hartu ahal izatea zainduko dute [...]. Estatu kideek beharrezko lege xedapenak indarrean jarriko dituzte, agindutakoa betetzeko, beranduen 2006ko martxoaren 22an”.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak Bitartekaritzaren aldeko apustu argia egiten du, zentzu horretan esperientzia horiek guztiak bultzatuz.

Hauteskunde Programak hori jasotzen du justiziako programaren ildoen barruan, eta ildo estrategiko modura defendatu zen IX. Legegintzaldirako Justizia eta Herri Administrazio sailburuak Legebiltzarraren aurrean edukitako lehenengo agerraldian.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

Esku hartzen duen Saila Eusko Jaurlaritzaren Justizia eta Herri Administrazio Saila da.

Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuan, 13 c) artikuluan, zera jasotzen da hitzez hitz: “*Justizia Administrazioaren esparruko gatazka-ebazpen alternatiboa sustatzea eta garatzea, auzi penal, zibil eta familiarretan bitartekaritza bultzatuz*”, Justizia Zuzendaritzak garatu beharreko funtzioetako bat bezala.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian:

Bitartekaritza legean arautu zain dago.

b) Antolamenduan:

Egungo Lege Bitartekaritzaren zerbitzua **hitzarmen bitartez** arautzen da; hitzarmen horiek Eusko Jaurlaritzaren –Justizia eta Herri Administrazio Saila– eta bitartekaritzaren esparruan lan egiten duten elkarte ezberdinen artean sinaturikoak izaten dira, eta bitartekaritzaren gainerako eremuak antzeko araubide batean ematea lortu nahi da.

c) Aurrekontu eta Finantzetan:

2010erako aurrekontu aurreikuspena 535.776 €-koa da. Finantzazio osagarri edo berririk ez da aurreikusi, indarrean dauden hitzarmenei aplikatu beharreko kontsumoko prezioen hazkundeak eska dezakeen eguneratetik aurrekontu egokitzapenak egin behar izatea salbu. Zerbitzua ohiko aurrekontuen kontura emango da.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk):

Zerbitzua emateko ez da beste sail batzuen esku-hartzerik behar. Koordinazioa behar da Justizia Administrazioa Eraberritzeko Zuzendaritzarekin, zerbitzua Justizia Jauregietan eman ahal izateko baliabide eta tokia emate aldera.

e) Erakunde harremanak:

Euskal Autonomia Erkidegoa erkidego aitzindari bat da gatazkak ebazteko Bitartekaritza zerbitzua ematearen alorrean. Administrazio harremanak daude Estatuko Justizia Administrazioarekin, Botere Judizialaren Kontseilu Orokorrarekin, idazkari judizialekin eta Fiskaltzarekin.

Eusko Jaurlaritza Justizia Lehengoratzailaren Forum Europarraren kide da.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

2010. urtea, datorren urteetan zabalduz eskuratzen diren emaitzak gorabehera.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

Esku hartzen duten erakunde nagusiak, Justizia Zuzendaritzarekin batera, Epailletza eta Fiskaltza dira.

Organo judizialen eta bitartekaritza zerbitzuen artean koordinazioa erraztuko duten jarduera protokoloak sinatuko dira.

Batzorde misto bat sortuko da programa elkarrekin ebaluatzeko.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

Ez da aurreikusi.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

- Berriazko komunikazioa organo judizialei.
- Zerbitzuari buruzko informazioa Justizia Administrazioaren webgunean.

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

25.- Gizarte ituna Etxebizitzaren alde.

1. HELBURUAK.

Etxebizitza eskuratzea euskal gizartearen gizarte kezka garrantzitsuenetariko bat da, gure gizarteko talde ugari eragiten diolako.

Helburu nagusiak gizarteko maila ezberdinetako kideen parte-hartze aktiboaren emaitza modura diseinatuko dira, bakoitzaren beharrak gorabehera, baina ahaztu gabe azken helburua gizarte esparru egonkorra sortzea dela, horren bitartez etxebizitza politika aplikatzea bultzatu eta erraztu ahal izan dadin herritar guztiek etxebizitza duinaz eta egokiaz gozatzeko duten konstituzio eskubidea betetzeko akordio adostu batzuen barruan.

Gauzak horrela, abiaburu modura, Sailak proposamen bat planteatu du; bertan, 6 jarduera ardatz, 18 ildo eta 50 ekintza bildu dira. Proposamen ireki bat da, gizarte elkarrizketaren bitartez aberastuko dena Etxebizitzaren Aldeko Euskal Ituna erdieste aldera.

Proposatu diren 6 jarduera ardatzak hauek dira:

- Gazteek etxebizitza eskuratzeko dituzten aukerak hobetzea.
- Etxebizitza parkearen baldintzak hobetzea.
- Adinekoen eta aniztasun funtzionaleko pertsonen bizitokiak hobetzea.
- Bizitokiko gizarte bazterkeriari aurrea hartzea.
- Bizitoki duina bermatzea.
- Udalek etxebizitza politiketan duten paperari bultzada bat ematea.

Itunak, halaber, hurrengo printzipioak bete beharko ditu:

Koordinatutako jarduera adostasunean oinarrituta ⇨ Itunak aukera eman beharko du administrazio eta gizarte agente eta agente pribatu guztiak mugitzeko, horiek beharrezkoak direnean etxebizitza beharrak asetzeko estrategia adostu bat oinarri hartuta.

Epe luzerako estrategia ⇨ Itunaren oinarrian epe ertain eta luzera lortu nahi den agertokiaren ikuspegi komuna egon beharko da, eta Ituna sinatzen duten instituzio eta erakundeek garatutako politika eta ekintza guztiek koherentzia eduki beharko dute estrategia horrekiko.

Herritarren parte-hartzea eta gardentasuna ⇨ Itunak herritarrek bildutako iritzi eta proposamenak bilduko ditu, eta haren ondotik etorritako etxebizitza politika berrien ezarpenaren gaineko jarraipena egiten ere parte hartuko du. Herritarrek etengabe eskuratu ahalko dituzte lortutako emaitzak neurtuko dituzten egite eta inpaktu adierazleak.

Iraunkortasuna eta lurralde oreka ⇨ Iraunkortasun printzipioa, dituen adiera guztietan (hiri plangintza, ingurumenaren babesa, energia aurrezpena...), hartzen diren konpromisoetan egongo da halaberrez, lurraldearen garapen orekatua bideratzeko behararekin batera.

Kudeaketa gorena ⇨ Itunaren ondotik ezartzen diren programek erabiltzen dituzten kudeaketa ereduak ahalik eta eraginkortasun ekonomiko handiena lortu beharko dute, denboran emaitzak lortu eta haiei eustearekin batera.

2. AURREKARIAK.

Ez dago aurrekaririk. Ondorioz, ekimen berritzaile bat da, garrantzi politiko handikoa.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian:

Ekimen politiko bat da. Araudian edukiko duen entzuteari dagokionez, zaila da aurreikuspenak egitea, izan ere, negoziazio prozesua amaitzen ez den bitartean eta ituna formalizatzen ez den bitartean, ez dira ezagutuko haren benetako helmena eta hartutako konpromisoen zehaztapen maila eta haietatik eratorritako aldaketak.

b) Antolamenduan:

Ziurrenik, barne inpaktua ez da etorriko Etxebizitzaren Gizarte Itunetik bertatik, baizik eta Etxebizitzaren eta Hiri Berriztapenaren Plan Zuzendaritik. Hori Etxebizitzaren gizarte itunaren ildo estrategikoak Sailaren jarduerara eramatea besterik ez da izango.

c) Aurrekontu eta Finantzetan:

Etxebizitza eta Hiri Berriztapenaren Plan Zuzendaria 2010-2013k ekintza eta neurri zehaztetan behar izango diren aurrekontu eta finantza konpromisoen kostuak aurreratuko ditu.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk):

- Herrizaingo Saila (terrorismoaren eta genero indarkeriaren biktimak).
- Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila (Gizarteratzea).
- Kultura Saila (Gazteria eta komunitate ekintza).
- Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila (etxebizitza iraunkorra...).

e) Erakunde harremanak:

Itunaren izaera bera dela eta, honek adostasun zabal baten gainean oinarritzeko bokazioa du, eta adostasun horretan etxebizitzarekin zerikusia duten eta izaera ezberdinekoak diren agente ezberdinek parte hartuko dute.

Noski, foru aldundiak nahiz udalak lortzen diren akordioetara batzeko saiakera egingo da, nahiz eta itxaron egin beharko den Itunak pixka bat forma hartu arte, azkenean itunak oinarri hartuko dituen erakunde harremanen eskema xehatzeko.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

2010-2025.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

Hasteko, kideen arteko lankidetzeta eta kudeaketaren alde egiten duen egitura bat planteatu da. Horren bitartez, posible izango da helburu komun en gaineko jarraipena egitea eta parte-hartzaile guztiek partekatutako informazioa edukitzea. Horretarako, funtsezko hurrengo organoak sortzea aurreikusi da:

- **Etxebizitzaren aldeko Itunaren Kontseilua:** Bertan, egokitzat jotako agente guztiak sartuko dira, horiek beharrezkoak badira gizarte, politika eta ekonomia oinarriko ordezkariak zabal bat edukitzea bilatzeko.
- **Batzorde Betearazlea:** organo betearazlea izango da, eta hark zuzenean ikuskatuko ditu lan teknikoak.
- **Idazkaritza teknikoa:** lan teknikoak eta komunikaziokoak egiteko arduraduna da.
- **Lan taldeak:** adituek antolatuta aztertutako sektoreko arloetan.

Egitura honi erantsi egin beharko zaio parte-hartzeko prozesuaren kontsulta eta bultzada organo modura jada existitzen den Etxebizitzaren Euskal Behatokia.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

Etxebizitzaren aldeko Ituna landu egingo da parte-hartze prozesu bat oinarri hartuta. Bertan, agente politiko, sozial eta profesional ezberdinek beren ikuspegia eman ahalko dute.

Parte hartzen duten taldeak hurrengoek konbinatutako sare batean sartuko dira:

- **Erakundeak:** Eusko Jaurlaritza, Udalak eta Aldundiak.
- **Agente pribatu eta publikoak:** Sustatzaile publikoak, udal sozietateak eta foru sozietateak, zaharberritzeko hirigintza sozietateak, kooperatibak, eraikitzaile elkarteak, sustatzaile pribatuak, higiezin agentek, hiri jabeen elkarteak, finantza entitateak, elkargo profesionalak (arkitektoak, aparejadoreak, soziologoak, abokatuak...).
- **Gizarte agenteak:** Alderdi politikoak, sindikatuak, Euskadiko Gazteriaren Kontseilu Nagusia, Hirukide, Kidetza, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua, AVS – Etxebizitza eta lurzoruaen sustatzaile publikoen elkarte espainiarra, Bananduen Elkarte, Emakunde, auzotar elkarteak, Unibertsitatea, kontsumitzaile eta erabiltzaile elkarteak.

Innobasquerekin lankidetzan, sektoreko mahaiak abian jartzea aurreikusi da, Itunaren oinarriak zehazteko lanean aurrerantz egite aldera.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

Informazioa hedabideentzat: prentsako jakinarazpenak.

Informazioa Gizarteari:

- Informazioa web bitartez (Ireka plataforma, euskadi.net, Etxebizitza Sozietateen webguneak, Etxebideren webgunea, Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren webgunea).
- Publizitate erreportajeak / adostutako idazketa estaldura, publizitatea...

Informazioa parte-hartzaileentzat lantze fasean zehar: mailing-a mahaietan ateratako ondorioekin, zirriborroak...

26.- Etxebizitzaren alorreko sozietate sarea berregituratzea.

1. HELBURUAK.

Proposatu den jardueraren aldetik espero diren onurak hauek dira:

- Etxebizitzaren sektore publikoa berrantolatzea.
- Alokairuaren parke publikoa Sailaren kontrolaren pean jartzea.

Berregituratzearen helburuak hauek dira:

- Alokabideri izaera publikoa ematea. Alokabideren parke propioa eratzen duten ia 2.000 etxebizitzak alokairuko etxebizitzaren parke publiko bihurtzea dakar, eta horien kudeaketak izaera publikoa edukitzera igarotzea.
- Alokabideri izaera publikoa ematen amaituta, Alokabide eta Etxebizitza Alokairuetarako Sozietate Publikoa (aurrerantzean SPGVA) fusionatzea. Urrats horrek etxebizitzaren multzoko sozietateen sarea kudeatzeko lana erraztuko luke, eta kudeaketako sinergiak lortzea ahalbidetuko luke.
- Agentzia publiko bat sortzea, nortasun juridikoa emateko “Etxebide - Babes Publikoko Etxebizitzak Esleitzeko Euskal Zerbitzuari”.

Nortasun propioa edukiko duen Agentzia baten sorrerak, neurri batean Gobernutik askatuz, arintasun handiagoa ekarriko dio eskariaren kudeaketari nahiz babes publikoko etxebizitzaren eskaintzaren esleipenari.

2. AURREKARIAK.

- Alokabide: Gobernuaren etxebizitzaren parke publikoaren kudeaketaz arduratzen da besteak beste; % 50ean VISESA sozietate publikoaren partaidetza du eta beste % 50ean euskal lau kutxena du, euskal sektore publikotik kanpo utziz horrela.

Sailak alokairuaren alorrean hartuko zuen politika garatzeko sortu zen. Sozietate honen funtzioa sektore pribatuko baliabideak topatzea da; horrela, posible izango da Sailaren aurrekontu baliabideekin bakar-bakarrik alokairuaren esparruan garatu ahal izan diren jarduerak biderkatzea.

- Spgva: Etxebizitza hutsak alokairu sozialerantz, Bizigunerantz, mugitzeko programa kudeatzen duen enpresa da, Etxebizitza Sailaren mendekoa. Halaber, bigarren eta hurrengo eskualdaketetan BOEen salerosketa kontrolatzen du.

Alokabideri izaera publikoa ematen amaitzen denean, Sailak uste du arrazoizkoagoa eta eraginkorragoa litzatekeela alokairu babestuko parke osoaren kudeaketa bateratzea. Izan ere, Alokabidek eta PSGVAk antzeko lanak garatzen dituzte, eta horrek sozietateak fusionatzeko prozesua erraztuko du. Horrek antolamenduaren aldetiko sinergiak ere sortuko ditu.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

- Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.
- Ekonomia eta Ogasun Saila, eragiketaren finantza eta zorpetze baldintzengatik.
- Justizia eta Herri Administrazio Saila, berrantolamenduak eraginak izan ditzakeelako langileen alorrean.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian:

Etxebide Agentzia martxan jartzea uztartuta dago aldez aurretik Etxebizitzarako Eskubidearen Legea onestearekin, eta haren artikulua multzoak lehenengo hura sortzea hartu beharko luke.

126/2007 Dekretua, uztailearen 24koa, “Sociedad Pública de Gestión de Viviendas en Alquiler/ Etxebizitza Alokairuetarako Sozietate Publikoa S.A.” sortzen duena.

39/2008 Dekretua, martxoaren 4koa, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza neurriei buruzkoa (Etxebide).

b) Antolamenduan:

Etxebizitzaren arloko sektore publikoa berregituratzea, akzio partaidetzak berrantolatuz.

c) Aurrekontu eta Finantzetan:

Alokabideren akzioak erostearen eragiketak dakarren kostua eragiketa gauzatzen den unean zehaztu beharrezkoa izango da, kasuan kasuko balorazioaren ondotik.

Diru-zaintzako egitura beharrak ere zenbatetsi dira, 2020an 31 milioi eurora iristea aurreikusiz.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk):

Izaera publikoa ematearen prozesuan horrenbeste aurrerantz egiteko, beharrezkoa da Ekonomia eta Ogasun eta Justizia eta Herri Administrazio sailen lankidetzaren eskuratzea. Bi sail horietatik lehenengoarekin beharrezkoa izango da finantza gaiak eta zorpetzekoak adostea; aldiz, langileei buruzko gaiak, Justizia eta Herri Administrazio Sailarekin jorratu beharko dira.

e) Erakunde harremanak:

Alokabidek kudeatutako parkea duten udalekiko harremanak hobetzea espero da, eragiketarik eratorrita kudeaketan igarriko diren hobekuntzen ondorio bezala.

Bestalde, sozietateen sare berria eratzeak eta hari nortasun propioa emateak neurri batean Gobernutik askatuz, udalari eta beste erakunde ingurune batzuen esku-hartze eta parte-hartze handiagoa erraztuko luke, bai eskaria kudeatzeari dagokionez, bai babes publikoko etxebizitzaren eskaintza esleitzeari dagokionez.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

2010/2011. urteak.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

Kutxekiko harreman esparrua, haien akzioak berriro erosteko eraginetarako, Alokabideko sozietate organoek eratuko dute.

Alokabide-SPGVaren ondorengo fusioari dagokionez, ez da hirugarrenik ageri Saila bera eta VISESA ez badira. Noski, Ekonomia eta Ogasun eta Justizia eta Administrazio sailen lankidetzaren behar duen prozesu bat da, 3. puntuan adierazitakoari jarraiki.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

Ez da aurreikusi.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

- Informazioa web bitartez (Irekia plataforma, euskadi.net, Etxebizitza Sozietateen webguneak, Etxebideren webgunea, Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren webgunea).
- Prentsako komunikatuak eta idazketa estaldura itundua.

27.- Babes ofizialeko etxebizitzaren prezio eredu berri bat martxan jartzea. Berme eta Konpentsazio funtsa.

1. HELBURUAK.

Amaierako helburua bikoitza da:

- Erosleen esfortzu ekonomikoak erlazioa edukitzea beren diru-sarrerekin.
- Sustapenak behar bestekoak eta orekatuak izatea.

Berme eta Konpentsazio Funts batean oinarritutako eredu berriak aukera emango digu Babes Ofizialeko Etxebizitzaren salmentan prezio bereziak aplikatzeko familien errenta mailen arabera eta, gainera, sustatzaileei diru-sarrera finko batzuk bermatzeko sustapen bakoitzaren salmentagatik.

Sistema hurrengo alderdietan oinarrituko litzateke:

- Babes Ofizialeko Etxebizitzan moduluaren prezioak definitzea.
- Prezio horiek oinarri hartuta, sustatzaileek bermaturik edukiko dituzte diru-sarrera finko batzuk sustapen bakoitzaren salmentengatik.
- BOE etxebizitza eskuratzea ahalbidetzen duen familiaren gutxieneko eta gehieneko errenta ekonomikoaren artean eskala bat finkatuko da, koefiziente zuzentzaile batzuk esleituz errentaren tarte bakoitzari, errenta baxuenetatik altuenetara.
- Etxebizitza bakoitzaren eskriturak egiterakoan, salmentaren benetako prezioa jarriko da, moduluaren prezioaren eta eroslearen errentaren koefiziente zuzentzailearen aplikazioaren emaitza modura.
- Bigarren eta ondorengo eskualdaketetarako, hori izango da erreferentziako prezioa Administrazioak lehentasunez erosteko duen eskubidea baliatzerakoan. Prezio hori Kontsumoko Prezioen Indizearen arabera eguneratuko dira.
- Salmenten zenbaketaren emaitza modura diru-sarrerek bermatutako diru-sarrera finkoa gäinditzen badute, sustatzaileak soberakina Berme eta Konpentsazio Fondoan sartu beharko luke.
- Aldiz, sustapena saltzetik etorritako diru-sarrerak bermatutako diru-sarrerak baino txikiagoak badira, Funtsak sustatzailearen diru-sarrerak osatuko litzuzke bermatutako diru-sarrera finkoraino iritsi arte.

2. AURREKARIAK.

Ez da ageri.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

- Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.
- Ekonomia eta Ogasun Saila, eragiketaren finantza eta zorpetze baldintzengatik.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian:

- Euskadin Etxebizitza Eskuratzeko Eskubideari buruzko Lege Proiektua. Haren proiektua Gobernu Kontseiluari bidaliko zaio 2010. urtearen amaieran.
- 2008ko apirilaren 16ko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroa arautzekoa.
- 2008ko maiatzaren 15eko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko prezioak finkatzeari buruzkoa.
- 2009ko abenduaren 10eko Agindua, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzaren alorrean emandako agindu ezberdinak aldarazteari buruzkoa.
- 39/2008 Dekretua, martxoaren 4koa, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza neurriei buruzkoa.

b) Antolamenduan:

Ez dago eraginik.

c) Aurrekontu eta Finantzetan:

Ebaluazio prozesuan dago. Baliabide arautzaile batean islatu behar denez, izaera orokorreko xedapenak lantzeko prozesuaren esparruan hain zuzen, kasuan kasuko Memoria Ekonomikoa itxiko da finantza inpaktuekin eta egotz daitezkeen aurrekontuekin.

Halaber, Berme eta Konpentsazio Funtzak beharrezkoa du Lege erreserba egitea, eta Etxebizitza Eskuratzeko Eskubidearen Legea da aukeratutako lege esparrua.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk):

Ekonomia eta Ogasun Saila.

e) Erakunde harremanak:

Izaera orokorreko xedapenak lantzeko prozeduraren esparruan, eragindako agente ekonomiko eta sozialek esateko dutena entzungo da eta haien parte-hartzea onartuko.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

2010. urtean zehar.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

Prezioen sistema berrikusteak foru aldundiek nahiz udalek Etxebizitzaren eta Hiri Zaharberritzearen Plan Zuzendarian (2010-2013) nahiz Etxebizitzaren aldeko Gizarte Itunean jasotako adierazpen eta iradokizunak bilduko ditu. Espero da alderdi ezberdinek

konpromisoak hartzea erantzukizunez egitea eta horrek sistema martxan behar bezala jartzean zuzenketak, berriztapenak eta laguntza ematea ekartzea.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

Prezioen eredu berria eztabaidapean jarriko da Gizarte Itunaren lan mahaietan. Bertan, hurrengoak bezalako gizarte agenteek edukiko dute ordezkartza: alderdi politikoeak, sindikatuek, Euskadiko Gazteriaren Kontseilu Orokorrak, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak, Hirukidek (familia ugariak), KIDETZAK (familia ugarien elkarteak), Bananduen Elkarteak, EMAKUNDEk, auzotar elkarteak, Unibertsitateak eta kontsumitzaile eta erabiltzaile elkarteak. Agente horiek, funtsean, Plan Zuzendariak planteatutako helburu eta jarduera ildoetara buruzko alderaketa saioetara deituko lirateke. Ildo horien barruan prezio eredu berria egongo litzateke.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

- Informazioa web bitartez (Irekia plataforma, euskadi.net, Etxebizitza Sozietateen webguneak, Etxebideren webgunea, Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren webgunea).
- Prentsako komunikatuak eta idazketa estaldura itundua.

28.- Lurraldeko Garraio Agintaritzak eratzea Gipuzkoan eta Araban.

1. HELBURUAK.

Garraio politikai eta haien moduei buruzko eskumenak ez daude bakarrik organo edo administrazio baten esku, baizik eta banatuta administrazio ezberdinen artean (autonomikoa, aldundikoa eta tokikoa). Egoera honek balizko deskoordinazio baten arriskua sortzen du, eta hori zuzendu egin behar da koordinazioko baliabide komun bitartez.

Gipuzkoako eta Arabako Garraioaren Lurralde Agintaritzen helburuak hauek dira:

- a) Administrazio autonomikoaren, aldundikoaren eta tokikoaren artean behar den lankidetzaren eta koordinazioaren antolatzea, garraioaren eta azpiegituren politika integrala definitzeko.
- b) Garraio politikak lurralde orekara egokitzea, eta, orokorrean, garapen iraunkorrera, eta horrekin batera garraioaren alorreko Batasuneko politikak ezarri eta burutzea.
- c) Zerbitzuen, sareen eta tarifen koordinazioa sustatu eta bultzatzea, eta erabiltzaileen eskura eskaintza hobea jartzea. Azken helburua garraioaren erabilera sustatu eta piztea izango da.
- d) Garraio sare bakar eta integrala sustatzea.
- e) Arrazoizkoagoa eta eraginkorragoa den garraioa bultzatzea, garapen iraunkorraren gizarte, ingurumen eta ekonomia alderdiak erabat integratuz.
- f) Garraio modu ezberdinen elkarreragingarritasuna bultzatzeko baliabide publikoak eta pribatuak optimizatzea.

2. AURREKARIAK.

Euskadiko Garraio Agintaritzaren 5/2003 Legeak aurreikusi egiten du Garraioaren Lurralde Agintaritzak eratzea.

2007an, “Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa SA” izeneko Sozietate Anonimoa sortu zen, erakundearen arteko koordinazio sistema modura eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren barruan garraioaren alorreko eskumenak edukiz.

Behin egiaztatuta 2007an sortutako merkataritza sozietateak ez dituela hasieran proposatutako helburu eta xedeak bete, urrats bat egin nahi da aurrerantz, eta baliabide eraginkorrago bat sortu, hain zuzen ere maila handiagoko lankidetzaren sistema bat, izaera publikoko partzuergo baten bitartez. Horrek eskumenak gain hartzeko eta izaera publikoko eskumenak baliatzeko aukera emango die.

Arabako Garraioaren Lurralde Agintaritzari dagokionez, ez dago aurrekaririk. Une honetan alde zuzeneko azterlanak egiten ari dira.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

Funtsean Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian:

Beharrezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari baimena ematea Gipuzkoa eta Araba arteko Garraio Agintaritzak kudeatuko duten Partzuergoen eraketan parte hartzeko.

b) Antolamenduan:

Hasiera batean, ente hauen sorrerak ez du antolamenduaren aldetiko eraginik. Hala eta guztiz ere, eta azkenean dagoen garapena gorabehera, antolamendu aldaketak behar izango dira enteen baitan ustiatu beharreko eskumenak behar bezala esleitzeko.

c) Aurrekontu eta Finantzetan:

Gipuzkoako Agintaritzak sortzeko 2010erako aurreikusi den aurrekontua: 90.000 euro.

Partzuergoak finantzazio berria edo finantzazio osagarria behar izan dezake, jada aurreikusi denaren aldean (aurrekontuetan jasotakoa), martxan jartze aldera.

Plana organo sustatzaileen ohiko aurrekontuarekin gauzatuko da.

Arabako Agintaritzarentzat ez da aurrekontu aurreikuspenik egin 2010erako, izan ere, ekitaldi honetan eraikuntzarako aldeaz aurretiko harremanekin hasia pentsatu da.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk):

e) Erakunde harremanak:

Gipuzkoako Garraio Agintaritzak: Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostiako, Irungo eta Errenteriako udalen parte-hartzea.

Arabako Garraio Agintaritzak: Arabako Foru Aldundiaren eta Arabako udalen parte-hartzea.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

2010/2013.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

- Gipuzkoako Garraio Agintaritzak: Sorreran Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostia, Irun eta Errenteriako udalek parte hartuko dute. Horiek elkartu egingo dira lankidetzak hitzarmena eta Partzuergoaren estatutuak adosteko, eta, administrazio izapide ezberdinen ondotik, Hitzarmena sinatuko dute eta Partzuergoa eratuko.

- Arabako Garraio Agintaritzak: Sorreran Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundiak eta Arabako udalek parte hartuko dute. Horiek elkartu egingo dira lankidetzaren hitzarmena eta Partzuergoaren estatutuak adosteko, eta, administrazio izapide ezberdinen ondotik, Hitzarmena sinatuko dute eta Partzuergoa eratuko.

Halaber, bi kasuetan lankidetzan arituko dira Euskadiko Garraio Agintaritzarekin.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

Partzuergoa sortzeari buruz, bidaiarien garraioaren sektoreari informazioa ematea aurreikusi da, Euskadiko Garraio Agintaritzaren Bidaiarien Garraio Arloaren bitartez.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

Baliabideak edo mekanismoak hurrengoak izan ahalko dira: komunikazioko kanpaina publikoak, baliabide telematikoen erabilera, aurkezpenerako jardunaldi publikoak, berriazko komunikazioak gizartean eragindako sektoreei, parte-hartzea konferentzia eta ikastaroetan, argitalpenak, orokorrean hedabideetan azaltzea, eta abar.

Halaber, barreiapena emango zaio Euskadiko Garraio Agintaritzaren eta Euskadiko Garraio Behatokiaren (OTEUS) eta haien webguneen bitartez.

29.- Euskal Autonomia Erkidegoko Aireportu Plana.

1. HELBURUAK.

Honen azken helburua euskal aireportu sistemaren eraginkortasuna eta efikazia hobetzea da, egoera ekonomikoan eta enpleguaren hobekuntzan eragin positiboa edukitzeko bide den partetik.

Horretarako, zehatzagoak diren hainbat helburu jorratu beharko ditu:

- Aireportu estrategia propioa martxan jartzea, lurralde historiko guztietan berdinki lerrokaturikoa. Azken helburua aireportuak zentro ekonomiko handi modura bultzatzea da.
- EAErentzat aireportu eredu bat definitzea, aireportu sareak, aerodromoak eta heliportuak antolatuz. Bertan, aireportu plan zuzendari ezberdinak kokatu ahalko dira, aireportu hiriak garatu edo intermodalitate planen alderdi jakin batzuk bideratu.
- *Aireportu Batzorde* baten sorrera, aireportu, hirigintza eta lurralde antolamenduko politikak koordinatu eta bultzatzeko tresna bezala. Halaber, *Airetiko Bideak Garatzeko Batzordea* sortzea (edo bat baino gehiago, bat lurralde historiko bakoitzeko), gure aireportuak elkarri lotzeko garapen baliabide bezala.
- Aireportu sistema arautuko duen lege esparrua landu eta onestea.
- Sektore publikoaren eta pribatuaren artean lankidetzaren mekanismoak garatzea.

2. AURREKARIAK.

Aireportu sistemaren eraginkortasuna eta efikazia hobetzeko helburuarekin, Estatuko Administrazio Orokorra lege erreforma batzuk prestatzen ari da, horien bitartez autonomia erkidegoen parte-hartzea sendotzeko aireportu politiken plangintzan eta kudeaketan eta lankidetzaren esparru bat sortzeko administrazio ezberdinen artean. Horrek Aireportu Batzordeak eta bideak garatzeko Batzordeak sortzea ekarriko du.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila: Interes orokorreko zatik jo ez diren heliportuetan eta aireportuetan eskumenak edukita (Autonomia Estatutuko 10.32. artikulua).

Interes orokorreko aireportuetan eskumen autonomikoei dagokienez, badago horietan abioiei, bidaiariei eta salgaiei laguntzeko zerbitzuak lurrian sartzea onartzen duen jurisprudentziarik, aireportuaren barrutian merkataritzako ustiapen ekonomiko soilerako beste zerbitzu batzuk jartzearekin batera. Edonola ere, Aireportu Zibilen Kalifikazioari buruzko azaroaren 27ko 2858/1981 Errege Dekretuaren aldarazpena egitea aurreikusi da, horren bitartez autonomia erkidegoek aireportuen politikan duten parte-hartzea sendotzeko.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian:

Aireportuen lege esparrua estatu mailako xedapen zerrenda luze batek eratzen du; bertan ez da aurreikusten Aireportu Planen irudia, eta Aireportu Batzordeak nahiz Airetiko Bideen Garapenerako Batzordeak ere ez dira arautzen.

Ondorioz, beharrezkoa izango da irudi horiek EAEn garatuko dituen esparru arautzailea garatzea. Gainera, Planean bertan garatu beharreko alderdietako batzuk EAEn aireportu, aerodromo eta heliportuen Legea eta hura garatzeko Araudia izango dira.

b) Antolamenduan:

Planeko lan ildoen garapenak Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailari atxikitako Zerbitzu edo Zuzendaritza berri baten sorrera behar izan dezake, aireportuko jardueretara eta airetiko garraiokoetara zuzendutako langileekin.

c) Aurrekontu eta Finantzetan:

2010eko aurrekontuetan ez da partidarik aurreikusi plana lantzeko.

Plana finantzatzeko beharrei dagokienez, hark finkatzen dituen helburuak gorabehera finkatuko dira. Edonola ere, jada badauden aireportuak eta aerodromoak hobetzeko inbertsioei laguntzeko funtsa sortzea planteatu beharko da, eta, hala badagokio, beste berri batzuk garatu. Horren bitartez, sustatzaile publiko edo pribatuen inbertsioak neurri batean finantzatzea ahalbidetuko litzateke. Halaber, ustiapenari laguntzeko laguntza funtsa sortzea eskatu ahalko da, aireporturen baten interes orokorrak hori gomendatzen badu.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk):

Beste sail batzuk sartzeko beharra aintzat hartu behar da (Herrizaingo eta Ingurumen sailak batez ere), eragin diezaieketen Aireportu Planeko alderdi estrategikoak diseinatzeko, adibidez lurraldearen antolamenduari buruzkoak, hirigintza planteamendukoak, ingurumen iraunkortasunari buruzkoak, garraio eta komunikazio sistemen diseinuari buruzkoak eta larrialdi eta hustuketa zerbitzuei buruzkoak.

e) Erakunde harremanak:

Aireportu Plana lantzea parte-hartze prozesu zabal baten xede izan behar da. Bertan, beste administrazio batzuk esku hartu behar dute, batez ere aldundi eta udalek, aireportu nagusiak sustatzeko sozietateek (VIA, Bilbao Air eta Ortzibia), Estatuko Administrazio Orokorrak eta haren mendeko sozietateek, eta baita Eusko Jaurlaritzaren beste sail batzuk (Ingurumen eta Herrizaingo sailak funtsean) ere. Halaber, beste entitate edo erakunde batzuen partaidetza eskatzerik ere egongo da, adibidez Merkataritza Ganberena.

Bestalde, Plana garatzeko jardueretan beharrezkoa izango da Aireportu Espainiarrak eta Airetiko Nabigazioarekin (AENA) eta Airetiko Segurtasunaren Estatuko Agentziarekin (AES) harremanetan jarri eta akordioetara iristea. Ildo beretik, Aireportu Batzordeak eta

Bideak Garatzeko Batzordeak garatzeko beharrezkoa izango da esku hartzen duten gainerako administrazioekin lankidetzaz hitzarmenak sinatzea.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

2011-2017.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

Aireportu Batzordea eta Bideak Garatzekoa erakundeen artean parte hartzeko eta lankidetzako esparru egonkorra izango dira. Horiek eratzea ahalbidetuko duten Hitzarmenak sinatu arte, beharrezkoa izango da antzeko ezaugarriak edukiko dituzten organoak antolatzea (nahiz eta arautu gabeko izaerarekin). Horietan, batzordeetako kide izango diren erakundeek parte hartuko dute.

Bestalde, Estatuko Administrazio Orokorrarekin lankidetzan aritzeari dagokionez, gomendagarria da Sustapen Ministerioko Abiazio Zibileko Zuzendaritza Orokorrak eta autonomia erkidegoek eratutako Lan Taldean sartzea.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

Aireportu Plana parte hartzen duten entitate eta administrazio publiko guztiei helaraziko zaien eta jendaurrean jarriko den hasierako dokumentu batetik abiatu behar da, ondoren kasuan kasuko proposamen eta aldarazpenak sartzeko Planaren amaierako dokumentuan.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

Baliabideak edo mekanismoak hauek izan ahalko dira: komunikazioko kanpaina publikoak, baliabide telematikoen erabilera, aurkezpenetarako jardunaldi publikoak, berriazko komunikazioak gizartean eragindako sektoreei, parte-hartzea konferentzia eta ikastaroetan, argitalpenak, orokorrean hedabideetan azaltzea, eta abar.

30.- EAEko salgaien garraio multimodalerako Plan Estrategikoa.

1. HELBURUAK.

Gaur egun ez dago salgaiak garraiatzeko modu guztiak osoki tratatzeko modurik, horien bitartez iraunkortasun eta eraginkortasun estrategiak sustatzeko salgaien garraioan.

Jardueraren helburuak hauek dira:

- EAEn salgaien garraio multimodalerako egungo egoera, eskakizunak eta etorkizuneko aukerak ezagutzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoan salgaiak garraiatzeko dauden modu ezberdinen egungo egoeraren azterketa estrategikoa egitea (trenbideak, itsaso bidezkoa, airetikoa, errepidea).
- Salgaien garraio multimodala sustatzeko estrategiak hautatzea, gaur egungo esparru europarrean.
- Intermodalitatea bultzatzeko jarduera zehatzak definitu, Sare Intermodalaren eta Logistikoaren Lurraldearen Arloko planaren eta Errepidetik salgaiak garraiatzeko jarduera planaren aurreikuspenekin koordinatuta garatzeko.

2. AURREKARIAK.

Euskadiko Garraio Iraunkorraren Plan Zuzendariak, Gobernu Kontseiluak onetsitakoa 2002ko azaroaren 19an, kutsadura gutxien sortzen duten moduen aldeko garraio moduen berrorka lortzea jasotzen du helburu, estrategia eta jarduera ildoan artean. Mugikortasunaren etorkizuneko Plan Zuzendarian aintzat hartuko da plan honen edukia.

Halaber, lantzen ari da Sare Intermodalaren eta Logistikoaren Lurraldearen Arloko Plana. Horrek nodoen tipologia, logistika zonak eta salgaien eta bidaiarien truke modalerako zentroak definituko ditu, eta zona horien kokaleku ezin hobeak identifikatu dira.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

- Funtsean Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.
- Ordezko modura Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian:

Plana Sailaren ekimen bat da; ez du bere horretan baliabide arautzailerik behar.

b) Antolamenduan:

Ez du antolamenduaren aldetik eraginik edukiko.

c) Aurrekontu eta Finantzeta:

2010ean Planaren edukiak definituko dira. 2010erako ez da aurrekonturik aurreikusi.

Planak finantzazio berria edo finantzazio osagarria behar izan dezake aurreikusten denaren aldean (aurrekontuetan finkatzen dena), salgaien garraio intermodala sustatzeko martxan jarri behar diren jarduera zehatzak gorabehera.

Plana organo sustatzaileen ohiko aurrekontuarekin gauzatuko da.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk):

Salgaien garraioa planifikatzerakoan, aintzat hartu beharko dira beste sail batzuen aldagai eta jarduerak, adibidez Lurralde Plangintzarena, Jarduerak planifikatu eta topatzea hartzen duena (industriakoak, logistikoak...) eta Industria Sailarena, enpresen arteko lehia politikak finkatzerakoan elementu logistikoak edo salgaien garraioarenak berebiziko garrantzia duenean.

e) Erakunde harremanak:

Lantzerakoan hiru lurralde historikoetako aldundiek eta udalek parte hartuko dute.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

2010/2013.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

Lantzerakoan Eusko Jaurlaritzaren beste sail batzuen, foru aldundien eta udalen parte-hartzea aurreikusten da, Euskadiko Garraio Agintaritzaren Salgaien Garraio Atalaren bitartez.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

Lantzerakoan EAEko salgaien garraio sektorearen parte-hartzea aurreikusten da, Euskadiko Garraio Agintaritzaren Salgaien Garraio Atalaren bitartez.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

Herritarrei orokorrean eta sektore interesdunei Planean diseinatutako politiken edukia nahiz horiek burutzerakoan izandako lorpenak jakinarazteko erabili nahi diren baliabide edo mekanismoen deskribapena.

Baliabideak edo mekanismoak hurrengoak izan ahalko dira: komunikazioko kanpaina publikoak, baliabide telematikoen erabilera, aurkezpenerako jardunaldi publikoak,

berriazko komunikazioak gizartean eragindako sektoreei, parte-hartzea konferentzia eta ikastaroetan, argitalpenak, orokorrean hedabideetan azaltzea, eta abar.

Halaber, barreiapena emango zaio Euskadiko Garraio Agintaritzaren eta Euskadiko Garraio Behatokiaren (OTEUS) eta haien webguneen bitartez.

31.- Modu anitzeko Sarearen eta Sare logistikoaren Lurraldearen Arloko Plana.

1. HELBURUAK.

Honen helburua salgai eta bidaiarien truke modalerako nodoen, logistika zonen eta guneen tipologia definitzea da. Sare intermodal eta logistikoaren izenaren pean, trenbideen saretik salgaiak garraiatzeari benetako bultzada ematearen alde egiteko helmen estrategiko handieneko baliabide bat dago. Zentzu horretan, jarduera honen helburuak hauek izango lirateke:

- Arrazoizkoa eta iraunkorra izango den salgaien garraioa bultzatzea.
- Lehiakortasun ekonomiko handiagoa sortzea, enpresei prestazio logistiko sinpleagoak, eraginkorragoak eta merkeagoak errazterakoan.
- Zona horien kokaleku ezin hobeak identifikatzea; haien azalerak eta ezaugarri funtzionalak baloratzea eta, azkenik, kokaleku aukerak zehaztea dauden proiektuak gorabehera edo EAEren behar eta helburuei erantzuteko plangintzak gorabehera.
- Sare intermodal eta logistikoa planifikatzea, ingurumenaren aldetik iraunkorra izanez, ekonomiaren aldetik eraginkorra eta gizartearen aldetik orekatua.

2. AURREKARIAK.

Euskadiko Garraio Iraunkorraren Plan Zuzendariak, Gobernu Kontseiluak 2002ko azaroaren 19an onetsitakoa, plan hau landu eta onestea jasotzen du bere helburu, estrategia eta jarduera ildoan artean.

Aurrerapena idatzi zen 2003. urtean, eta lehen dokumentu bat landu zen hasierako onespenerako. Hori berriro adieraztea beharrezkoa da, Ingurumeneko Eragina Ebaluatzeko txostenen eta Euskadiko Garraio Agintaritzaren txostenen ondotik.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

- Funtsean Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.
- Ordezko modura Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian:

Plana behin betiko onesten da Dekretu bidez, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legeko 18-2 artikuluan ezarritakoaren babesean.

b) Antolamenduan:

Ez du antolamenduaren aldetik eraginik edukiko.

c) Aurrekontu eta Finantzeta:

Behin betiko onespenera iritsi arte aurreikusi den aurrekontua: 200.000 euro.

- 2010. urtea: 100.000 €.
- 2011. urtea: 100.000 €.

Gerta daiteke Planak finantzazio berria edo finantzazio osagarria behar izatea jada aurreikusi den horren aldean (aurrekontuetan finkatutakoa), haren izapidetze eta entzute eta jendaurrean jartzeko izapideen emaitzen eta Lurralde Antolamenduko Batzordeak eta Euskadiko Garraio Agintaritzak egindako txostenen ondorioz egin behar izan daitezkeen aldarazpenak gorabehera.

Plana organo sustatzaileen ohiko aurrekontuarekin gauzatuko da.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk):

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren parte-hartzea, Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostenen bitartez.

e) Erakunde harremanak:

Estatuko Administrazio Orokorrak, foru aldundiek eta udalek parte hartuko dute honakoa lantzerakoan.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

2010/2013.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

Esku hartuko duten erakundeen artean lankidetza garatzeko metodologiarik martxan jarri ez bada ere une honetara arte, ez da baztertzen lankidetzako erakunde arteko mekanismoak sortzeko aukera.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

Izapidetzerakoan, Aurrerapena landu ostean, hasierako onespenera egingo da, ondoren behin-behineko onspenera eta, azkenik, behin betikoa Dekretu bitartez. Izapidetzerakoan, esku hartzen duten administrazioen entzunaldi fasea aurreikusi da, eta baita jendaurrean jartzeko aldia ere, kasuan kasuko ekarpenak eta iradokizunak egin daitezten.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

Plana Dekretu bidez onartzen da, eta hura Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Halaber, Euskadiko Garraio Behatokiaren (OTEUS) eta haren webgunearen bitartez barreiatuko da.

32.- Vitoria-Gasteizen geltokia lurperatzeko Proiektuaren garapena.

1. HELBURUAK.

Jarduera honen helburuek aldaketa erradikala dakarte Vitoria-Gasteiz hiriaren hiri egiturara. Horretarako, trenbide saiheebide bat egingo da (lurpean erabat), horren bitartez gaur egun okupatuta dauden lursailak berreskuratzea ahalbidetuz, hiriko hegoaldearekiko harreman guztiak iragaziz eta, hala badagokio, zona horren hiri garapena bultzatuz.

2. AURREKARIAK.

2009. urtearen erdi aldera, akordio bat lortu zen Vitoria-Gasteizko Trenbide Geltokiaren lurpeko konponbidearen inguruan, Sustapen Ministerioak egindako garapenak oinarri izanez ministerio horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sare Berriaren inguruan (aurrerantzean EAETSB) agindutako informazio azterlana idaztearen esparruan.

Akordio honen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuen kontura finantzatzeko da jardueraren zati garrantzitsu bat. Hura erakunde arteko akordio baten barruan garatu behar da.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, EAEn trenbideen alorrean eskumenak edukitzeagatik eta Sustapen Ministerioarekin finantzaziorako akordio batera iritsi izanagatik.

4. JARDUERAREN ERAGINA

a) Araudian:

- *Trenbideen Sektoreko Legea.*
- EAeko Trenbideen Lurraldearen Arloko Plana.

b) Antolamenduan:

I. fasea: Kudeaketa eta Koordinazio Organoen Eraketa.

- Finantzazio eta Eraikuntza hitzarmena idaztea.
- Esku hartzen duten erakundeak ez diren beste batzuei erantzukizunak esleitzea.
- Proiektua garatzeko kudeaketa sozietateen definizio/sorrera.

II. Fasea: Proiektu eta dokumentuak garatzea, bura kudeatzeko.

- Informazio Azterlana Idaztea (Sustapen Ministerioa).
- Eraikuntza proiektuak idaztea.
- Vitoria-Gasteizko Plan Orokorren Aldarazpena idaztea.
- Lurraldearen Arloko Planaren aldarazpena idaztea.

III. fasea: Eraikuntza eta Martxan Jartzea.

- Ardura duten erakundeek obrak lizitatu eta esleitzea.
- Kontratuaren gaineko jarraipena egitea horretarako sortutako batzordeek.
- Trenbide Azpiegituren Administrazioaileak (ADIF) horiek Zerbitzuan jartzea.

IV. fasea: Abandonatutako trenbide trazadura birsartzea

c) Aurrekontu eta Finantzeta:

Eusko Jaurlaritzak Sustapen Ministerioarekin sinatutako akordioaren barruan gain hartutako finantza konpromisoak 20 milioi eurokoak dira. Horrek finantza konpromiso batzuk ekarriko lituzke proiektuak eta obrak burutzeko II. eta III. Faseen barruan 4 urtetik 5 urtera bitarteko aldi. Horiek eraginkorrak izan daitezke 2012tik aurrera.

Horrez gain, gerta daiteke Eusko Jaurlaritzak hasierako finantzazioa behar izatea I. fasean eta haren funtzionamenduan eratzera erabakitzen diren kudeaketa sozietateen sozietate kapitalean ekarpena egiteko.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk):

e) Erakunde harremanak:

Jarduera honetan hurrengo erakundeek esku hartzen dute:

- Eusko Jaurlaritzak.
- Vitoria-Gasteizko Udalak.
- Estatuko Administrazio Orokorrak. Sustapen Ministerioak.
- Arabako Foru Aldundiak.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

2010-2016.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

Esku hartzen duten erakunde ezberdinen (Sustapen Ministerioa, Eusko Jaurlaritza, Gasteizko Udala eta Arabako Foru Aldundia) eta haien sozietate edo tutoretzapeko enteen artean formalizatu beharreko hitzarmenak.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

Ez da beharrezkoa izango, baina gerta daiteke hura planteatu beharra, aintzat hartuta aurreikusitako jardueraren hiri eta lurralde eragina. Horrez gain, kontratazio prozesu eta obra publikoa burutzeko prozesu guztietan araututako jendaurreko eta entzunaldiko izapideak ere behar dira.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

Tokikoa, Lurraldekoa eta Orokorra Euskal Autonomia Erkidegoaren mailan. Estatu mailakoa edo nazioartekoa hartzen diren jarduerak gorabehera.

Une honetan ez da aurreikusi zer baliabide edota mekanismo erabili behar izango den barreiapenerako. Ondorioz, besterik gabe, esan daiteke obren helmena eta antzeko izaerako obrekin gertatu izan dena aintzat hartuta, obrak entzute garrantzitsua edukiko duela hedabideetan.

33.- Leioa-Unibertsitatea eta Barakaldo arteko tranbiaren eraikuntza.

1. HELBURUAK.

- Eskari garrantzitsua duten eremuetan taldeko garraio zerbitzua finkatzea.
- Milaka ikasleri Euskal Herriko Unibertsitateko unibertsitate campus garrantzitsuenera iristea ahalbidetzea, taldeko garraio publikoko zerbitzu eroso, iraunkor, moderno eta guztientzat irisgarria den baten bitartez.
- Berrikuntza garrantzitsua izango diren lankidetzak eta ustiapen publiko-pribatuko formulak ezartzea.

2. AURREKARIAK.

- EAEko Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Plana.
- EAEko Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Planaren 1. aldarazpena Bilbo Metropolitanarreko eta Beste Udalerri Batzuetako Eremu Funtzionaletarako.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Euskal Autonomia Erkidegoan eskumenak edukitzeagatik trenbideen alorrean.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian:

- Trenbideen Sektoreko Legea.
- EAEko Trenbideen Lurraldearen Arloko Plana.

b) Antolamenduan:

Ez dakar inolako aldarazpenik Administrazioaren egungo egiturara.

c) Aurrekontu eta Finantzetan:

2010. urtea: onetsitako aurrekontua gorabehera.

Hurrengo urteak: aukeratzen den Kudeaketa Sistema gorabehera.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk):

e) Erakunde harremanak:

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

Ustiapen publiko-pribatuaren formula berritzailea da garraio publikoaren ustiapen ereductan, beraz, eta une honetan parte hartuko duten jardule pribatuak nortzuk diren, zer neurritako parte hartzea edukiko duten eta zer funtzioekin ezezaguna denez, zaila da data bat iragartzea.

Zentzu horretan, zenbatespen bat eginez gero, 3 urteko epea kontuan har genezake (2010-2013).

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

Esku hartzen duten erakunde ezberdinen artean egin beharreko hitzarmenak: ETS; Leioako, Sestaoko eta Barakaldoko udalak, Bilboko Portuko Agintaritza, Ingurumen Ministerioa (Kostaldeen Mugapea).

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

Ez da beharrezkoa izango, baina planteatzerik egongo da aurreikusitako jarduerak hiri eta lurraldean edukiko duen garrantzia ikusita.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

Tokikoa, Lurraldekoa eta Orokorra Euskal Autonomia Erkidegoaren mailan.

Hedabideak (irratia, telebista, prentsa) eta obrak esleitzeko eta zerbitzua ustiatzeko horrelako kontratuetan ohikoak izaten diren komunikazio bideak eta erakunde barreiapenekoak.

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

34.- Euskal Merkataritza Egokitzeko Plana 2015.

1. HELBURUAK.

Eusko Jaurlaritzak Txikizkako Euskal Merkataritzaren Egokitzapen Plana egitearen arrazoia Eusko Legebiltzarrak Merkataritza Jardueraren Legearen bigarren aldaketaren ekainaren 25eko 7/2008 Legea onesterakoan egindako eskaera da. Lege horrek merkataritza jarduera arautzen zuen euskal araudia zerbitzuen Batasuneko Zuzentarauaren eskakizunetara egokitzea ekarri zuen.

Plan horren helburu nagusia tresna eta politikak ematea da, horien bitartez sektorea egokitzeko aipatutako zuzentaraua aplikatuzetik sartutako testuinguru aldaketetara. Haren helburuetako bat zerbitzu enpresak batasunaren barruan ezartzeko askatasuna dutela bermatzea da.

2. AURREKARIAK.

- Euskadiko Lehiakortasun Foroa 2015.
- Enpresa Lehiakortasunerako eta Gizarte Berrikuntzako Plana 2006-2009 (ELGBP).

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

- Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila.
- Hezkuntza eta Lan sailak, prestakuntza gaietara dagokienez.
- Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila, lurzoru erabilerari dagozkion gaietara buruz.
- Ekonomia eta Ogasun Saila, estatistikaren alorrean.
- Osasun eta Kontsumo Saila.
- Kultura Saila.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian:

Euskal merkataritza egokitzeko plana 2015 sektoreko Plan Estrategikoa da. Bertan, gidalerro edo jarduera ardatz nagusiak biltzen dira, ardatz horiek garatuko dituzten eta datozen urteetan burutuko diren programekin batera. Programa horiek agindu ezberdinetan zehaztuko dira, eta sektoreak programa horietara iristeko edukiko dituen prozedurak arautuko dituzte.

b) Antolamenduan:

Planaren kudeaketa eraginkorrerako elementuak:

Plana martxan jartzeko, beharrezkoa da koordinazioko zenbait prozedura baliabide bihurtzea, horren bitartez eraginkortasunez kudeatzen dela eta hartzaileek behar bezala jasotzen dutela ziurtatzeko. Jorratuko diren jarduerak hauek izango dira:

- Estrategia bateratuak garatzeko koordinazio baliabide bat sortzea.
- Aurreikusitako administrazio izapideak sinplifikatzea.
- Sailaren jarraipena eta partaidetza Lurralde Antolamenduko gidalerroen finkapenean.
- Sektorerako informazioko berriazko kanpainak egitea, Planaren edukia ezagutarazte aldera.

c) Aurrekontu eta Finantzetan:

Planaren edukiari buruzko aurrerapenak hura garatzea aurreikusten du datorren taulan xehatzen diren ardatzetan. Ohiko aurreikuspen ekonomikoak finkatutako aurrekontutzat jotzen dira, eta haren proiektzioa aurreikusita dago plana burutzeko epeak (2010/2015) aurrera egin ahala.

Esperientziaren bidezko Egiatzapen programentzat (Ardatz estrategikoa: ezagutza eta pertsonak) eta Jarduera Merkataritza Dentsitate Baxuko Eremuetan izeneko programarentzat (Ardatz estrategikoa: Lurraldea) ezohiko finantzazioa jartzea aurreikusi da, nahiz eta kopurua zein izango den zenbatzeko dagoen.

	2010eko AURREKONTUA
1. ARDATZA: EZAGUTZA ETA PERTSONAK	
1.1. KODEA: PROGRAMA: Ikerketa eta informazio Sistemak	290.000 €
1.2. KODEA: PROGRAMA: Prestakuntza eta Gaikuntza	520.000 €
1.3. KODEA: PROGRAMA: Esperientziaren araberako egiaztapena	EZOHIKOA 2011. URTEAN
2. ARDATZA: ENPRESA	
2.1. KODEA: PROGRAMA: Berrikuntza eta Gorentasuna Merkataritzan	6.800.000 €
2.2. KODEA: PROGRAMA: Enpresa eskualdaketa	750.000 €
2.3. KODEA: PROGRAMA: Enpresen arteko lankidetzak	1.900.000 €
3. ARDATZA: LURRALDEA	
3.1. KODEA: PROGRAMA: Dinamizazioa eta hiri lehiakortasuna	11.800.000 €
3.2. KODEA: PROGRAMA: Jarduera Merkataritza Dentsitate Baxuko Eremuetan	EZOHIKOA 2011. URTEAN
4. ARDATZA: ERAKUNDE ESPARRUA	
4.1. KODEA: PROGRAMA: Elkarte Egiturak sendotzea	1.865.300 €

Merkataritzaren sektorea euskal ekonomiako sektore estrategiko modura nahiz hiri, gizarte eta ekonomi bizitasuna sortzen duten enpresa modura aitortzea sendotzen duten programak dira.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk):

- Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila:
 1. Proiektu berritzaileak merkataritzan.
 2. Finantza euspeneko proiektua mikro-ETEentzat merkataritzan.
 3. Lehiatu proiektua mikro-ETEentzat merkataritzan.
 4. Ekimen proiektuak (sustatzaile berriak) merkataritzan.
 5. “Erosketa” turismoa Euskal Autonomia Erkidegoan.

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa eta Lan eta Gizarte Gaietako sailak:
 1. Prestakuntza iraunkorra
 2. Merkataritza lanbidea ziurtatzea esperientzia gorabehera.
 3. Graduondoa merkataritza banaketan

- Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila:
 1. Lurzoruaren merkataritza erabileren gaineko jarraipena Euskal Autonomia Erkidegoan.
 2. Birziklatzearekin zerikusia duten gaiak.

- Osasun eta Kontsumo Saila:
 1. Koordinazioa Kontsumok garatutako Jarduerekin.

- Kultura Saila:
 1. Koordinazioa Kulturak garatutako Jarduerekin.

e) Erakunde harremanak:

- - Toki Administrazioa.
- - Toki garapenerako agentziak.
- - Enpresa elkarteak.
- - Merkataritza Ganberak.
- - Euskalit.
- - Unibertsitatea.

Harremana Plana lantzeko fasean (hura garatu bitartean jarraitu egingo du) nahiz urteko emaitzak ebaluatzerakoan eratu da, Planaren parte-hartze izaera bermatuz.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

2010/2015.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

Sailaren parte-hartzea aurreikusi da hurrengoetan:

- Lanbide Heziketaren Euskal Kontseilua.
- Hiri Lurraldearen Antolamendurako Batzordea.
- Udaletako Tokiko Merkataritza Mahaiak; horietan tokiko entitateak eta garapenerako agentziak egon ohi dira.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

Gizarte agenteak funtsezko elementua dira Planean ezarritako helburuak ezin hobeki lortzeko.

Kopuru ugarian parte hartzen dute, planaren hasierako diagnostikoan ordezkari maila altua bermatuz. Gidalerroen konfigurazioan nahiz horietatik etorritako programetan ere parte hartzen dute.

Programa guzti-guztietan esku hartzen duten agenteak dira.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

Gobernu Kontseiluan onetsi eta ondoren Legebiltzarrean aurkeztu izan ondoren, Plana Sektorean ordezkari duten eta hasiera-hasieratik lantzean parte hartu duten erakundeen artean barreiatuko da.

Halaber, tokiko udalbatzei eta Garapenerako agentziei helaraziko zaie, modu berdinean planaren baliozkotzean parte hartu badute beren ordezkarien bitartez.

35.- Turismo Lehiaren Plana 2010/2013.

1. HELBURUAK.

Planak turismoaren sektorean protagonista den agente multzoaren jarduera gidalerroak finkatu behar ditu, sektorearen lehiakortasuna areagotzeko, hura sendotzeko eta benetako motor ekonomiko bihurtzeko.

Horretarako, sektorearen zeharkakotasuna eta agente guztiek (publiko zein pribatu) turismoaren destino eta industriaren etorkizunean eduki beharreko lankidetzak aintzat hartu behar dira. Plan koherentea eta Sailaren enpresa lehiakortasunari buruzko politikan kokatzen dena izan behar da (Enpresa Lehiakortasun Plana 2010-2013).

2. AURREKARIAK.

Euskal Turismoaren Lehiakortasunerako Plana 2006/2009 amaituta, beharrezkoa da plangintza estrategikoko elementu hori berreskuratzea, eguneratze aldera.

Aurreko plana “Euskal Autonomia Erkidegoaren garapen iraunkorrerako eredu baten gidalerro estrategikoen” (1999) finkatutako oinarrien gainean garatu zen. Horiek “Ekonomia Sustapenerako Erakunde Arteko Plana 2000/2003” izenekoak ekarri zuten, eta Euskadi 2015 Lehiakortasun Foroaren Esparruan sartzea etorri. Plan berriak txanda hartuko dio, eta, behin jada amaituta dagoen egungoaren garapena ebaluatuta eta turismoaren ingurune berria aztertuta, aldi berri baterako orientazio orokorrak finkatu behar dira. Ingurune berri horren ezaugarri nagusiak hauek izan daitezke:

- Turismoaren sektorearen alderdi ezberdinetan eragina duten erakunde eta plan berrien agerpena:
 - Basquetour, Merkataritza eta Turismo Sailburuordetzaren eragiketarako antolamendu bezala, Turismoaren Lehiakortasun Planean finkatzen diren gidalerroak garatzeko.
 - Cictourgune, Itourgune turismoan I+G+b Planaren barruan.
 - Itourbasken garapena, turismo bulegoen sareko talde modura.
 - I+G+b Plana Itourgune turismoan.
 - EBE (enpresa berritzaileen elkarteak) baten sorrera, berrikuntza turistikoan sortzen ari den cluster modura.
- Euskadin turismoaren sektoreak bizi duen hazkunde bizia, eta aisialdi eskariak geroz eta garrantzia gehiago hartzea negozioko turismoaren aurrean. Izan ere, sektorea ikuspegi publiko nahiz pribatutik sendotzeko beharra agerian geratu da, horretarako egungo erronkei aurre egiteko egokiak diren egitura eta baliabideak garatuz.

- Marketing Plan berria identifikatutako beharra: produktu estrategikoen aldeko apustua egitekoa, garapen eta merkatuzko parametro berrien pean (produktua dinamizatzeko planak, produktu klubak, teknologia berrien erabilera bizia...), betiere, destinoak ahaztu gabe.
- Dinamizazio planak eta laguntza programa ezberdinak, turismoa garatzeko tresna esanguratsu diren partetik. Kontuan hartzekoa da eskualde mailako destinoen dinamizazio planak garatzea sustatu dela, turismoaren garapenean entitate hauen eta udalerrri batzuen protagonismoa areagotuz. Gainera, gaur egun badira turismoko plan estrategiko batzuk aldundi batzuetatik sortuta eta baita beste entitate batzuk sortuta ere (Hiriburuak, Cictourgune...).
- Dinamizazio Planak (destinokoak edo produktukoak) edo Plan Estrategikoak proposatzen eta burutzen dituzten eta horietatik eratorritako ekintzak finantzatzen edo finantzatzeari baiezkoa ematen dioten entitate eta erakunde ezberdinak egotea (azpimarratzekoak dira Turismoko Estatu Idazkaritzak bultzatutako planak); horien sarea koordinatu beharrekoa da.
- Erlazio publiko-pribatuaren bilakaera, administrazio-administratu harreman zorrotza gaindituz, programa batzuen dinamikarekin faboratuta, adibidez Kalitatearekin edo Berrikuntzarekin zerikusia dutenek faboratuta. Horren ondotik lankidetzaren harreman hau areagotu egiten da, entitate publikoen eta elkarte edo erakunde pribatuen arteko helburu zehatzekin.

Hala eta guztiz ere, enpresa pribatuaren proposamenak euskal turismo sektorean sartzeko bide luzea dago oraindik egiteko. Hori gertatzen da adibidez euskal turismoan clusterrak garatzearen ebaluazioarekin.

- Turismoaren sektorearen zeharkakotasuna dago erakundeen, instituzioen eta enpresen arteko elkarrengarritasun honen jatorrian, bai antolamenduari dagokionez, bai ekonomiari dagokionez. Sektore turistikoak aurre egin beharreko proiektuen konplexutasunak behartu egiten du ekimen guztien artean koordinazio sendoa edukitzera, betiere, erakundeek beren autonomia mantenduz beren ardurapeko funtzio eta eginbeharretan.
- Informazioa ezagutu eta kudeatzea lehiakortasunerako funtsezko elementu direla baloratzea. Ondorioz, I+G+b Planaren ekarpenak garrantzia berezikoak dira. Eremu honetan nahiz prestakuntzarenean, unibertsitateak turismoaren sektoreari eskaintako arreta areagotuko du eta elkarriketatzaile garrantzitsu izan daiteke. IKT-en lehia, aldagai kritiko modura turismoaren alorreko enpresen prozesu berritzailean eta, batez ere, merkatuaren aldetik sektoreko erakargarritasun eta eskaintzetara hurbiltzeko moduan. Halaber, CICTourguneraren papera ezagutza fluxuen sorreran.
- Azpiegiturak, batez ere garraio bidezko komunikazioen gure sarekoak, telekomunikazioak nahiz seinaleak behar bestekoak ez izatea.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

- Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, enpresa jarduerak instalatu eta funtzionatzeko baldintzetan dituzten eraginengatik nahiz gure produktuek erakargarritasun turistikoaren eraketan duten garrantziagatik.

- Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.
- Kultura Saila. Haren balioak gure kultura ondarearen oinarrian daude, bisitari ditugunentzat erakargarritasun handikoak eta batasun eta ezagutza elementu ezberdinak direnen artean.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian:

Planak gidalerro nagusiak edo jarduera ardatz handiak bilduko ditu, ardatz horiek garatzen dituzten (datozen urteetan gauzatuko direnak) programak bezalaxe. Programa horiek agindu ezberdinetan zehaztuko dira, eta sektoreak programa horietara iristeko edukiko dituen prozedurak arautuko dituzte.

b) Antolamenduan:

Sailen arteko koordinaziorako mekanismoak ezarri beharko dira.

c) Aurrekontu eta Finantzetan:

Aurrekontu eraginak ez dira garrantzitsuak izango, Merkataritza eta Turismo Sailburuordetzaren ohiko aurrekontuarekin gauzatuko direlako gastuak.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk):

Lehiakortasun politikei buruzko akordio nagusiak bilduko dira; horiek gaian esku hartzen duten sail guztiak gidatuko dituzte, ondoren programa zehatzetan garatzeko. Akordio hauek sailen arteko batzordeetan landuko dira, ondoren erabakiak Gobernu Kontseiluan hartzeko.

Halaber, aintzat hartuko dira Estatuak, Espainiako Turismoaren Plana. 2020 Horizontea agiriaren bitartez, ezarritako gidalerroak, eta, baita ere, Europar Batasunak ezarritako jarraibide edo gidalerroak eta jada existitzen diren proiektu eta laguntzak. Zentzu horretan, azpimarratzekoa da EAEko Administrazioak parte hartzen duela, Kultura Sailaren bitartez, Kultura Ministerioa lider den Turismo Kulturalaren Nazioarteko Planaren zuzendaritza taldean.

e) Erakunde harremanak:

- Estatuko Administrazio Orokorra (Turismoko Estatu Idazkaritza).
- Toki Administrazioa.
- Foru aldundiak.
- Basquetour Turismoaren Euskal Agentzia.
- Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentzia.
- Toki garapeneko agentziak.
- Enpresa elkarteak.
- Merkataritza Ganberak.
- Euskalit.
- Unibertsitatea...

Harremana Plana lantzeko fasean (hura garatu bitartean jarraitu egingo du) nahiz urteko emaitzak ebaluatzerakoan eratu da, Planaren parte-hartze izaera bermatuz.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

2010-2013.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

Planaren funtsezko edukiak turismoaren alorreko lehiakortasunari ematen badio ere arreta, aintzat hartu behar dira ere gaian agertzen diren beste sail batzuen ekintzen oinarrian dauden lehiakortasun printzipioak.

Jarduerak koordinatzeko, sailen arteko batzordeak eratuko dira, esku hartzen duten sailen parte-hartzearekin.

Plana landu eta onetsi ondoren, eta hura jarraitzeko prozesuak ezartzen duenari jarraiki, akordio horietatik eratorritako jarduera estrategikoen ildoetan aurreikusi diren helburuak lortu diren edo ez ebaluatuko da.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

Plan berriak gobernantzaren printzipioak betetzen direla bermatu behar du European definitu diren zentzuan; bertan, gaian ageri diren gizarte agenteen parte-hartzea bermatu behar da, bai garapenean, bai jarraipenean. Enpresa lehiakortasunak agente ezberdin ugariari esku harrarazten dio: Enpresak, izaera oso ezberdineko enpresa elkarteak, administrazio ezberdinetan –toki, erkidego, estatu mailak– sartutako erakunde publikoak, garapen agentziak, Berrikuntzaren Euskal Agentzia, Basquetour, Cictourgune, eta abar.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

Planak behar duen barreiapena sektorearen esparrukoa da, beraz, komunikazio plan bat finkatuko da mekanismo ezberdinak erantsiz. Bertan sartuko dira gutxienez euskarri elektronikoaren bitartez egindako argitalpenak, aurkezpenerako jardunaldi publikoak, hedabideetan orokorrean agertzea eta baita kasu bakoitzean egokitzen jotzen diren beste batzuk ere.

36.- Ibilgailu elektrikoa Euskadin zabaltzea.

1. HELBURUAK.

Garraioaren sektorea energiaren bigarren kontsumitzaile bihurtu da azken urte hauetan EAEn, industriaren sektorearen atzetik. Gainera, ia energia guztia petroliotik eratorritakoa eskatzen duen sektore bat da, batez ere errepidetiko garraiorako. Horrek CO₂ isurketen sortzaile handia den kontsumo bihurtzen du, eta baita beste kutsadura modu batzuen sortzailea ere (airekoa, akustikoa, eta abar). Gainera, mugatua eta herrialde gutxi batzuetan pilatutako petrolio erreserba batzuen oso mendekoa den kontsumo baten aurrean gaude.

Horregatik garatu du Sailak estrategia orokor bat, Euskal Autonomia Erkidegoan ibilgailu elektrikoa sartzeko delat bultzatzeko. Estrategia horren helburu nagusiak garraioan energiaren eraginkortasuna hobetzea eta euskal enpresa sarean negozio aukera berriak sustatzea da. Jarduera honetan sartutako ekimen ezberdinek aukera emango dute Euskadi kokatzeko erreferente modura, bai ibilgailu elektrikoari uztartutako teknologiei dagokienez, bai horiek kargatzeko sistemei dagokienez.

Ibilgailu elektrikoak abantaila handiak emango ditu ohiko ibilgailuaren aldean. Haren energia eraginkortasuna handiagoa da, isila da, ez du partikula kutsatzailerik isurtzen erabiltzerakoan (beraz, hirietako kutsadura murrizten laguntzen du), berotegi efektuko gasen isurketa murrizten du eta, kargatzeko aldiak kudeatu eta optimizatuz gero, sistema elektrikoarentzat berarentzat ere onuragarria suerta daiteke, gaueko soberakin elektrikoak xurgatuz eta, horrela, sorkuntza berriztagarriaren aprobetxamendu handiagoa bultzatuz.

2. AURREKARIAK.

Ez dago horrelakorik.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila: Garraioaren esparruan ibilgailu elektrikoak sartzeak eragina edukiko du bai garraioaren alderdi arautzaileetan, bai mugikortasun ohituretan eta ibilgailu hauek berriro kargatzeko berriazko azpiegituren sorreran errepidetiko garraio bideetan. Halaber, familia bakarreko etxebizitza partikularretan berriro kargatzeko puntuak instalatuko dira, adibidez komunitateetako aparkalekuetan, eta horretarako beharrezkoa izango da instalazio mota hauek normalizatu eta arautzea.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian:

Jarduera garrantzitsuaren barruan aurreikusitako jardueretako bat aldaketak proposatzea eta bultzatzea da lege esparruan eta araudi egituretan, horien bitartez ibilgailu elektrikoak zabaltzeko oztipoak ezabatuz eta hura erabiltzea piztuz. Lege aldaketa hauetako batzuk

Autonomia Erkidegoaren eskumen esparruan egongo dira, baina horien zati garrantzitsu bat Estatuko Administrazio Orokorrak (EAO) gain hartu beharko ditu.

b) Antolamenduan:

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila lider den jarduera bat da, Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) esku-hartze zuzenarekin haren definizio eta burutzapenean. Hainbat proiektutan zabalduko da, kasu gehienetan enpresa pribatuen eta Gobernuaren edo EEEren arteko lankidetzarekin garatuko dena.

c) Aurrekontu eta Finantzetan:

Berriazko jarduera honen esparruan martxan jarriko diren proiektu eta jarduera ezberdinek ibilgailuak kargatzeko azpiegiturretan inbertsioak egitea ekarriko dute Euskadira, funts publikoen % 50eko proportzioan. Halaber, ibilgailu elektrikoak erosi edota alokatzera zuzendutako diru-laguntzak edo pizgarriak biltzen dituzten programak funts publikoekin zuzkituko dira. Halaber, zuzkidura berdina egongo da ibilgailu elektrikoaren baitan aplikatuko beharreko teknologia eta berrikuntza garatzeko.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk):

Komunikazio iraunkorra mantenduko da Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailarekin. Xedea ibilgailu elektrikoak bere eskumenen esparruan duen eraginaren azterketa eta jarraipena egitea izango da.

e) Erakunde harremanak:

- Estatuko Administrazio Orokorra (Industria Ministerioa). Ibilgailu elektrikoak bultzatzeko plan integral bat lantzeko talde eragilea.
- Energiaren eta Automozioaren clusterrak.
- Enpresak
- ZTIES
- Unibertsitateak...

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

2011/2015.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

Berriazko Lan taldeen sorrera, esku hartzen duten entitateen parte-hartzearekin.

Eusko Jaurlaritzaren eta kasuan kasuko udalen arteko alde biko lan batzorde iraunkorrak sortzea aurreikusi da, Eusko Jaurlaritza – EEEtik proposatzen diren lan ildoetan aurrera egite aldera.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

Enpresen, clusterren eta Teknologia Zentroen parte-hartzea funtsezkoa da Jardueran sartutako proiektu ezberdinak garatzeko.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

Lehendakariak, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailburuarekin batera, jarduera honen esparruan enpresekin sinatu diren Hitzarmenen aurkezpen publikoak egin ditu jada. Jendartearen barreiatzeko ekitaldiak egingo dira pixkanaka, jarduera berriak zehaztu edo aurreikusitako emaitza eta mugetan aurrera egin ahala.

37.- Olatuen energiarekin esperimentatzeko eta hartzaileen erakusketarako plataforma. Biscay Marine Energy Platform, Bimep.

1. HELBURUAK.

Proiektu honen helburua olatuen energiarekin saiakuntzak egiteko, frogaketak egiteko eta hartzaileen ustiapena egiteko azpiegitura bat eraikitzea da, Armintzako kostan (Lemoiz) zerikusia duten ikerketa eta datuen zentro batekin batera. Helburua Euskadi olatuen energian nazioarteko erreferentzia modura kokatzea da.

Azpiegitura hau pentsatu egin da prototipoa benetako eskalan eraiki duten hartzaileen fabrikatzaileek instalazioak erabil ditzaten beren ekipoak probatzeko jarduerari, portaera hidrodinamikoari, nekeari, ingurumen inpaktuari, eta abarri dagokienez. Ezaugarri hauetako instalazio batean sortutako ezagutzak funtsezkoak dira olatuen energiaren etorkizunerako.

Azpiegitura honi zerbitzua emate aldera, industriaren sektorea eta enpresena garatzeko saiakera egingo da olatuen energiaren inguruan. Horrela, jada existitzen diren enpresek beren zerbitzuak egokitu ahalko dituzte azpiegitura beharrak asetzeko eta, halaber, enpresa espezializatu berriak sortu ahalko dira.

Modu berean, plataforma honetako jatorri berriztagarriko elektrizitate ekoizpenak lagundu egingo du energiarekiko mendetasuna eta CO₂ isurketak murrizten gure herrialdean.

2. AURREKARIAK.

Ez da ageri.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian:

Jarduera honek ez du araudiaren aldetik eragin berezirik.

b) Antolamenduan:

Jarduera honen lider Energiaren Euskal Erakundea (EEE) izango da, proiektuaren sustatzaile den partetik, eta jarraipen iraunkorra edukiko du Industria eta Energia sailburuordetzaren partetik

c) Aurrekontu eta Finantzeta:

Bimep esperimendazio plataforma eta hari uztartutako Ikerketa Zentroa eraikitze behar den inbertsioa EEEK egingo du bere funts propioekin. Inbertsio hau 15 milioi euroko kopuruaren inguruan egongo da.

d) Gobernuaren beste jardura batzuetan (beste sail batzuk):

Ez da ageri.

e) Erakunde harremanak:

- Estatuko Administrazio Orokorrak.
- Energia Clusterra.
- Enpresak
- ZTTES.
- Unibertsitateak.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

2009/2011.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

Parte hartuko duten enpresa eta entitateekin eraturako lankidetzaren sistema 2009ko urtarilean sortutako Lan Talde baten inguruan antolatu da. Hari Olatuen Energiari buruzko Lan Taldea (GTEO) izena eman zitzaion, EEEK koordinatzen du, eta hartan aurkeztu da jada proiektuaren aurrerapena.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

Enpresen, clusterren eta Teknologia Zentroen parte-hartzea funtsezkoa da Jardueran sartutako proiektu ezberdinak garatzeko. Halaber, aldizka bilerak eta maiz harremanak edukiko dira proiektuan esku hartzen duten edo hark eragiten dituen gizarte agenteekin: Lemoizko udalbatza, Lemoizko auzotarrak, arrantzale kofradiak, eta abar.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailburuak Armintzan egindako ekitaldi publiko batean aurkeztu zituen Jardueraren helburu eta ezaugarri nagusiak. Honen garapenean gertaera garrantzitsuak jazo ahala egingo dira ere jendarteko beste ekitaldi edo barreiapen batzuk.

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA.

38.- Enpleguko politika aktiboen transferentzia eta Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuaren jardunari ekin.

1. HELBURUAK.

Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzua zuzenbide pribatuko ente publiko bat da; nortasun juridiko propioa eta jarduteko erabateko gaitasuna ditu bere xedeak betetze aldera.

Helburu gisa enplegu eskubidea, egonkorra eta kalitatezkoa, erabat garatzea du, hurrengo alderdiak eraginkortasunez bermatzen lagunduko duen laneko merkatu bat antolatzearen alde egitearekin batera: lan egiteko moduan dauden pertsonak laneratzea, enpresen eskakizunak gorabehera egokitutako langile beharrak estaltzea nahiz gizarte eta lurralde kohesioaren alde egitea, Euskal Autonomia Erkidegoko eskumenen esparruan agintzen zaizkion enplegu politiken kudeaketaren bitartez.

2. AURREKARIAK.

“Enpleguko Politika Aktiboen” kudeaketari dagokionez, hauteskunde programak jaso egiten du erakundeen aldetik efikazia eta eraginkortasun falta antolatzeko konpromisoa. Gabezia horiek koordinazio faltagatik nahiz gizarte agenteekin prestakuntzaren alorrean, enpleguaren fenomenoarenean, laneko malgutasunarenean, orientazio profesionalarenean eta laneko bitartekaritzarenean aktiboki eta elkarrekin lan egiteko beharregatik igarri dira.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak, enplegurako prestakuntzaren, orientazioaren, enpleguaren azterketaren eta haren sustapenaren eremuan dituen eskumenengatik, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Lanbide Heziketan eta bizitza osoan zehar ikasten jarraitzeari buruzko Legearen dinamizazioan dituen eskumenengatik.

Bi sailek, halaber, esku-hartzea dute beharrezkoa delako Kualifikazioen Agentzia edo Institutua garatzea. Haren helburua gaitasunen aitortpena antolatzea da, hura ikaskuntza formalaren bidetik nahiz ez formalaren edo laneko eskarmentuaren bidetik eskuratutakoa denean.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian:

Enpleguko politika aktiboen transferentzia arautzen duen arauaren ondorioz, antolamenduaren aldetik Autonomia Erkidegoaren administrazioaren bi arau jazoko dira:

- Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzua Ente Publikoaren Estatutuen Dekretua.
- Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzua Ente Publikoaren jardunari ekiteko dekretua.

Halaber, enpleguko politika aktiboen eskumenak eskuratzean, erabateko indarra hartuko du Euskadiko Autonomia Erkidegoan Enpleguaren Legea lantzeak, Gobernu Kontseiluak 2009ko azaroaren 17an onetsitako egutegi legegilean jada aurreikusi zena.

b) Antolamenduan:

Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuaren sorrerak eta transferitutako enpleguko eskumenen eskualdaketak ente honi betebeharrak adierazgarrienak egitea aginduz, aldarazpenak dakartza Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren egungo funtzioetan:

- Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritzaren ia funtzio guztiak eta egitura Lanbideri atxikita geratuko dira.
- Gizarteratze Zuzendaritzaren funtzioen zati garrantzitsu bat, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren kudeaketan sartutakoa (kasuan kasuko legea aldaraztetik etorrira), Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzura aldatuko dira.
- Egailan Sozietate Publikoa funtzio eta egituraren aldetik hustu egiten da, hori guztia Lanbidera igarotzearekin.
- Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzaren funtzioak aldaraztea.

c) Aurrekontu eta Finantzetan:

Enpleguko Politika Aktiboen transferentzia Estatuko Administrazioaren kasuan kasuko funtsak eskualdatzearekin batera doa; zenbatespena, gutxi gorabehera, hirurehun eta hogeita bost milioi eurokoa izango da.

Gastu aurreikuspena hurrengo kontzeptuetan egin daiteke:

- Lantaldea, Enpleguko estatu mailako Zerbitzu Publikotik transferitutako 500 pertsona inguru, Egailaneko 70etik gora eta Saileko zuzendaritzetako ia 30 barne hartuz.
- Instalazioak, EAEn lurraldean banatutako 30 bulegotik gora, Prestakuntza zentroak eta kasuan kasuko Zerbitzu nagusiak barne hartuz.
- Enplegurako prestakuntza programak, bai eskaintzakoak, bai eskarikoak.
- Laneko orientazio zerbitzuak, laneko merkatuko aldagaien azterketa eta informazioa, lanbide profilen bilakaera eta eskakizun profesionalak.
- Enplegu programak, arreta berezia emanez gizarte bazterkeriako arrisku handiena duten taldeei, diruz lagundutako kasuan kasuko deialdiak onetsi eta izapidetzea barne.
- Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren eta Etxebizitza Osagarriari dagokiona, DBEak eskuratzen dituztenentzat.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk):

Koordinazio mekanismo garrantzitsuak behar dira Bizitza osoan zehar ikasten jarraitzeari buruzko Lege proiektuak erantzuna eman diezaien Enplegurako lanbide heziketaren azpisistemako programa guztietan prestatzen diren eta moduluko Lanbide Heziketako guztietan prestatzen diren pertsoneri. Halaber, prestakuntza modalitate ezberdinak ematen dituzten entitateei egiten zaizkien errekerimenduak aintzat hartu behar dira.

e) Erakunde harremanak:

Enpleguko Politika Aktiboen transferentziak, Estatu mailako Enplegu Zerbitzu Publikoak kudeatuta eskualdaketan egiten den arte, aipatutako EEZPrekin koordinazio behar berria sortzen du, Politika Pasiboen kudeaketa mantentzeagatik. Bestela, sistemaren prestazioetan beharra sor daiteke, eta baita sistema osoari dagokion araudi orokorrean ere. Bestalde, funtzio berriek Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren parte-hartze aktiboa behar dute Estatu eta Autonomia Erkidego mailako koordinazio organo ezberdinetan:

- Enpleguari buruzko sektoreko konferentzia. Lan eta Immigrazio Ministerioa.
- Lanbide Heziketaren Kontseilu Orokorra.
- Enpleguko Estatuko Sistemaren Kontseilu Orokorra. Lan eta Immigrazio Ministerioa.
- EAEko Lanbide Heziketaren Kontseilua.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

- Politika aktiboen transferentzia, 2010erako espero daitekeena.
- Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuaren estatutuen eta jarduera hasieraren dekretua, 2010eko ekainean.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

Egailanen eta EEPZren integrazioa, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzua ekarriko duena, Gizarte Elkarrizketarako Mahaiaren negoziazioen emaitza izango da.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

Lanbideren estatutuen dekretua nahiz jarduerarekin hasteko Dekretua Gizarte Elkarrizketarako Mahaiarekin adostasunera iristearen xede dira.

Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluan bertan, Ente Publikoan erabakiak hartzeko organo gorenena den partetik, hiru aldeko izaera eta izaera paritarioa mantenduko dira gizarte agenteen eta administrazioaren artean.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

Aipatu den jardueraren elementu adierazgarrienetako batzuk hedabideetan barreiatzen dira Gizarte Elkarrizketako Mahaiko akordio bezala.

Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurkezpena komunikazio estrategia baten bitartez egingo da; bertan, publizitate esparruak, foiletoak eta kartelak bezalako baliabide inprimatuak eta zerbitzuko ekintzen hartzaileekin –gizarte agenteak, zentro laguntzaileak, zentro homologatuak, gizarteratze eta laneratzeko entitateak, enpresa sarea, eta abar– bilera teknikoak egitea bezalakoak erabiliko dira.

Lanbideren programa eta zerbitzu ezberdinek beren barreiapen elementua edukiko dute, baliabide eta eduki ezberdinak erabiliz zein talderi zuzentzen zaizkion gorabehera.

39.- Gizarte Zerbitzuen Goi Ikuskaritza martxan jartzea.

1. HELBURUAK.

Helburu orokorra Goi Ikuskaritzako organoa funtzionamenduan jartzea da; haren xedea gizarte zerbitzuei eskubide subjektiboa benetan baliatzeko aukera bermatzea da, aplikatu beharreko ordenamendu juridikoa betetzen dela ziurtatzearekin batera. Goi Ikuskaritza martxan jartzeko prozesuak hiru fase ditu:

- Dekretu Arautzailea landu eta onestea.
- Goi Ikuskaritzarako zuzkidura materiala eta pertsonala egiteko prozesua.
- Jardueren urteko plana lantzea.

2. AURREKARIAK.

Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legeak (82. artikulutik 86.era) ezarri egiten ditu Goi Ikuskaritzaren funtzioak eta eremua, eta baita Eusko Jaurlaritzari atxikita dagoela ere.

Gizarte zerbitzuak administrazio publikoek eman beharreko eskubide subjektibo modura hartzen dira Legean, eta haren artikulua eta antolamenduak sistema konplexua eratzen dute, EAEko hiru erakunde mailek zerbitzuak eta prestazioak burutu eta kudeatzeko eskumenak dituzten aldetik. Sistema konplexu honek lankidetzako organoak eta erakunde arteko laguntza behar ditu batetik, eta, bestetik, gizarte parte-hartzeko organoak. Esparru honetan, Goi Ikuskaritza berezko profilararekin ageri da Gobernuari esleitutako eskumen eta berariazko funtzio bezala, sistemaren eta zuzenbidearen funtzionamendu harmonikoaren azken bermatzailearen funtzioa duen sistemaren itxiera elementu modura.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian:

Goi Ikuskaritzaren funtzionamendua eta eraketa arautzen duen Dekretua onetsi beharko da.

b) Antolamenduan:

Dekretu arautzailearen zirriborroak Gizarte Gaietako Sailburuordetzari atxikitzea aurreikusten du Goi Ikuskaritza, eta baita langileak ematea ere 12/2008 Legean nahiz Dekretuan bertan ezarritako funtzioak betetze aldera.

c) Aurrekontu eta Finantzetan:

Goi Ikuskaritzari atxikitako langileetatik eratorritako kostuak aintzat hartu beharko dira, eta baita funtzionamenduko berezko gastuak ere.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk):

Goi Ikuskaritzaren eginbeharretako bat koordinazio egokia dagoela zaintzea da, gizarte zerbitzuen sistemaren eta beste zerbitzu sistema batzuen artean, adibidez osasunarenarekin, hezkuntzarenarekin, eta abar.

e) Erakunde harremanak:

Goi Ikuskaritza Gizarte Zerbitzuen alorrean eskumendun diren Administrazioen aldetik ordenamendu juridikoa betetzen dela bermatzeko baliabide modura sortzen da, eta haren jardueren berri Gizarte Zerbitzuen Erakunde Arteko Organoari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluari eman beharko dio.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

Dekretu arautzailea onesteko izapideari hasiera ematen dion Agindua 2009ko azaroan sinatu zen, eta izapide horretan Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren entzunaldia eta erakundeek eta gizarte agenteek parte hartzekoa aurreikusi zen.

Dekretuaren behin betiko onespena 2010eko maiatzerako aurreikusi da; data horretatik aurrera, langileak hornitzeko prozedurari eta jardueraren urteko plana lantzeari ekingo zaie.

Martxan jartzea 2010. urtean egingo da, urte horretako bigarren seihilekoan funtzionamenduan egon dadin.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

Jardueren urteko planak Gizarte Zerbitzuen alorrean eskumendun den Saileko sailburu titularrak onartuko ditu, Gizarte Zerbitzuen alorrean eskumenak ere badituzten gainerako euskal administrazio publikoei galdetu izan ondoren. Horren edukiaren berri Erakunde Arteko Organoari emango zaio.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

Goi Ikuskaritzak Erakunde Arteko Organoari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluari emango die bere jardueren urteko planen berri; horiek Gizarte Zerbitzuen alorrean eskumendun den Saileko sailburu titularrak onetsiko ditu.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

Euskal Autonomia Erkidegoa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren kudeaketan entitate publiko direnak.

40.- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia.

1. HELBURUAK.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia, ekainaren 19ko 5/2008 Legearen bitartez sortutakoa, zuzenbide pribatuko erakunde publiko, autonomo, ordezkaritza duena eta erabakiak hartzen dituen bezala eratu da. Haren egitekoa lankidetzaren alorreko euskal politika planifikatu, antolatu, koordinatu eta ebaluatzea da. Labur adieraztearren, kudeaketako tresna bat da, zentralizatuta egongo ez den garapenerako lankidetzaren politika publikoko eredu propioa zehazten duten hainbat erronka jorratzea bultzatzen duena.

2. AURREKARIAK.

Garapenerako Lankidetzaren otsailaren 22ko 1/2007 Legeak lehen Azken Xedapenean aurreikusten du Garapenerako Lankidetzaren alorreko plangintza lantzea nahiz hura koordinatu, kudeatu eta burutzea Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak egingo duela, hura berariazko lege batek sortzearen ondotik.

Lege manu hau betez, ekainaren 19ko 2/2008 Legeak Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautu zuen, eta agentzia hori zuzenbide pribatuko erakunde publiko, autonomo, ordezkaritza duena eta erabakiak hartzen dituen bezala eratu zen.

Lankidetzaren Euskal Agentziaren sorrerak kalitateagatik nabarmentzen den eredu bat finkatzea dakar, kudeaketaren eraginkortasunean etengabeko hobekuntzak, proposatutako helburuen lorpenean eraginkortasuna areagotzean oinarritutako jarduera estrategikoak bultzatzea nahiz funtsak transferitzea eta ahalik eta irizpide onenarekin laguntza teknikoa hornitzea bermatzeaz gain.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila, garapenerako lankidetzaren alorrean funtzioak esleiturik edukitzeagatik.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian:

Lankidetzaren Euskal Agentziak hura sortu eta arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legean bertan du bere esparru arautzailea. 2/2008 Legeko Lehen Azken Xedapenarekin bat etorriz, indarrean jartzen denetik (2008/7/11) sei hilabeteko epean, Eusko Jaurlaritzak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolamenduaren eta funtzionamenduaren araudia onetsi behar izan zuen Dekretu bidez.

b) Antolamenduan:

Onespenaren zain dago haren funtzioak eta egitura finkatuko dituen antolamendu Dekretua. Bertan, xehetasun osoz deskribatuko dira Lankidetzaren Euskal Agentziaren organigrama, eta bertan 19 pertsona egongo da hurrengo lau arlotan lan egiten: Zerbitzuak, Juridikoa, Plangintza eta Teknikoa. Kontratazioa ekainaren 19ko 5/2008 Legeko 14. artikuluari egokituko zaio, eta Agentziaren zuzendaritza izango da izendapen zuzena egiteko goi kargudun bakarra.

c) Aurrekontu eta Finantzetan:

Jarduera garrantzitsu hau Lankidetzaren Euskal Agentziaren beraren aurrekontuarekin gauzatuko da, eta hori Jarduera Abiarazteko Dekretuan zehaztuta geratuko da. Halaber, beharrezkoa balitz, berariazko partida bat edukiko luke 2011 ekitaldian.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk):

Artekaritza Kontseiluaren esparruan, Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendaritza organoa den partetik, ekimenak koordinatuko dira gobernuak garapenerako lankidetzaren alorrean dituen gaitasunak mugiarazteko.

e) Erakunde harremanak:

Eusko Jaurlaritzak beste euskal erakunde publiko batzuekin, erakunde publiko espainiarrekin eta europarrekin elkarlanean aritzeko duen lankidetzaren jarrera estrategikoa berezko balio erantsi bat ekartzea bilatzearena izango da, bikoizketak eta disfuntzioak saihestuz eta parte-hartze aktiboa edukiz garapenerako lankidetzaren politika espainiarraren definizioan.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

2010. urtean zehar martxan jarriko da.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

Lankidetzarako euskal entitate multzoaren –publiko eta pribatu– koordinazioa sendotzeko, eta baita honek Hegoaldeko agenteekin lehentasunezko herrialdeetan duena indartzeko ere, 2010ean garatu beharreko hurrengo jarduerak zehazten dira:

- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren bilerak eta lan taldeak eratzea.
- Garapenerako Lankidetzaren Erakunde Arteko Batzordearen bilerak eta, batzorde horrek hala finkatzen duenean, baita haren Batzorde Teknikoaren bilerak ere.
- Hausnarketako eta eztabaidako berariazko egitura eta espazioak mantentzea GGKEekin, Euskadiko GGKEen Koordinakundearen bitartez.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

Lankidetzaren Euskal Kontseiluak, gai honen alorrean Eusko Jaurlaritzaren aholku organo gorenaren, eman zuen jada 2008ko abenduaren 8ko bileran derrigorrezko txosten bat

antolamenduaren eta egituraren araudiari buruz. Hori 2010eko urtarrilaren 19an Kontseiluak egindako azken bileran berretsi da.

Aldi berean, gizarte zibilarekin elkarrizketak eratu dira lankidetzako politika publiko kualitatiboa osatzeko. Bertan, Agentzia organo anitz, parte-hartzeko eta eraginkor modura hartuko da. Lankidetzaren Euskal Agentziaren eta gizarte zibil antolatuaren erakundeen arteko harreman eredu bat da, alde ezberdinen autonomia argituz eta sustatuz. Oinarrian dagoen ideia da Administrazio Publikoak lagundu dezakeela erakundeen eta sareen sendotzean, baina puntu kritiko bat gainditu gabe, puntu horretan mendetasuneko edo interferentziako eragin ez desiragarriak sortzen ariko bailirateke zentzu batean edo bestean (edo bietan). Lankidetzaren agenteekin izaten den elkarrizketa eta komunikazio iraunkorrak isla eduki behar du Lankidetzaren Euskal Kontseiluan nahiz Erakunde Arteko Kontseiluan. Agentziaren araudiak foro hauetako kideak sartuko ditu bere zuzendaritza organoan, Artekaritza Kontseiluan, alegia. Helburua euskal lankidetzaren politikako plangintza eta kudeaketaren arduradun egitea izango da.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

Esparrua Euskal Autonomia Erkidegoa izango da. Agentziaren kudeaketa ezin hobea izan dadin, Euskadi.net helbideari lotutako webgune irisgarri bat erabiliko da. Horrek, gardentasunez, aukera emango die herritarrei gaiaren alorrean garatzen diren ekintzak ezagutzeko. Administrazioaren kudeaketa ere arindu eta erraztu egingo du Intranet batek; horrek eskabideak izapidetzea eta proiektuak aurkeztea (adibidez AECID) nahiz kodeak GLBren (Garapenerako Laguntza Batzordea) nazioarteko homologazioari egokitzea ahalbidetuko du.

Berariaz finantzatuko da herritarrei diseinatutako politiken, gauzatzen ari diren proiektuen, parte hartzeko formulen eta horiek gauzatzerakoan lortu diren helburuen berri ematea.

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

41.- Osasun Publikoaren Euskal Agentzia sortzea.

1. HELBURUAK.

Azken urteotan nazioarte esparruan jazotako osasun publikoko krisiak eta osasun publikoaren alorrean biztanleriak dituen geroz eta itxaropen handiagoek, gizarte bilakaeratik, eraldaketa teknologikoetatik, pertsonen, ondasunen eta salgaien geroz eta mugikortasun handiagotik, migrazio mugimenduetatik eta uztartutako kultura aniztasunetik eratorritako gizarte eraldaketa sakonekin batera, beharrezkoa egiten dute osasun publikoko zerbitzuak globalizazioari, hark osasunari ekarritako arriskuei eta prebentzio eta kontrolerako ematen diren erantzunak eraginkorrak, homogeneoak, etikoak eta gardenak izateko beharrari egokiturik daudela ziurtatzea, herritarren artean konfiantza eta segurtasuna sortzen lagunduz.

Funtsezkotzat jotzen da osasun publikoko zerbitzuen multzoa integratzea, osasuna babesteko ingurumen osasunekoak, elikagaien segurtasunekoak, osasun publiko zaintzeari buruzkoak, gaixotasunak prebenitzekoak eta osasuna sustatzekoak gehitzea, horren bitartez erantzun egokia emanez gizarte beharren beharrei eta adi egonez desberdintasun gehieneko egoeren aurrean.

Arrazoi horiek direla eta, Osasun Publikoaren Legea erregulatzearen xede nagusia Osasun Publikoaren alorreko jarduerak, prestazioak eta zerbitzuak antolatzea litzateke Euskal Autonomia Erkidegoan, horren bitartez osasun publikoaren zaintza, bakarkako sustapena eta taldekoa bermatzeko, gaixotasuna prebenitzeko eta ingurumena eta elikagaien segurtasuna babesteko.

Osasun Publikoaren Legean Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Publikoaren Agentzia sortzea proposatzen da, Osasun eta Kontsumo Sailari babesa emateko osasunaren alorrean eta osasun publikoko politikak eta plangintza definitzerakoan, ikuspegi zientifikoa, teknikoa eta antolamendukoa sendotuz.

Agentziak babesa emango dio eskumen autonomikoko osasun agintaritzari baliatzeari, horren bitartez biztanleak babesteko taldeko osasun arriskuetatik. Gainera, Osasun Publikoan informazio sistemaren sorrera jazoko da, osasuneko informazio sistemak integratuz eta osasun publikoko zaintza eta ekintzara eta kudeaketara bideratuz. Horrela, osasun publikoaren alorrean eskumenak dituzten administrazio ezberdinen artean lankidetzara eta elkarlan tresnak ezarriko dira, beren erantzukizun eremuak definituz.

2. AURREKARIAK.

Aurreko legegintzaldian (VIII. Legegintzaldia) Osasun Publikoaren Euskal Agentziaren sorreran aurrekaririk ez badago ere, balizko jarduera garrantzitsu modura definitu zen Hauteskunde Programan.

Horrez gain, eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo sailburuaren beraren eskaeraren ondotik Eusko Legebiltzarreko Osasun eta Kontsumo Batzordearen aurrean edukitako agerraldian, hura aipatu zen bere Sailak IX. Legegintzaldian garatu beharreko programa azaldu zuenean.

Osasun publikoa gure lehentasunetako bat izango da datozen urteetan, eta helburu hori oinarri hartuta, garatu beharreko jardueretako bat Osasun Publikoaren Euskal Agentzia bat sortzea izango da, jarduera honi protagonismo handiagoa emateko, baliabide gehiago mugiarazteko, baliabide profesionalak koordinatu eta hobetzeko, baliabide hobeak eskura edukitzeko eta gainerako erakunde, enpresa eta gizarte zibilarekin lankidetzan aritzeko jardun gaitasuna izateko.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

Osasun eta Kontsumo Saila.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian:

Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Publikoaren Lege Proiektua; horren bitartez, Osasun Publikoaren Euskal Agentzia sortuko da.

b) Antolamenduan:

Antolamenduaren esparruan aurreikusi egin da Agentziara gaur egun Osasun Publikoaren Zuzendaritzaren barruan lan horiek egiten dituzten Eusko Jaurlaritzaren Administrazioako funtzionario gehienak eramatea.

c) Aurrekontu eta Finantzetan:

- Kanpo aholkularitza Osasun Publikoaren Agentzia martxan jartzeko.
- Antolamendu lanak eta benchmarking.
- Osasun publikoko informazio sistemak berrantolatzea.
- Langileak prestatzea.
- Giza baliabideak berrantolatzea.

- Zenbatetsitako aurrekontu osoa: 644.000 €.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk):

Ez zaie gainerako sailei eragingo.

e) Erakunde harremanak:

- Udalak: Agentzia sortzeak lankidetzat estuagoa ekarriko luke udal mailako osasun publikoko zerbitzuekin eraberritze prozesuan. Hori osasun publikoko tokiko talde sare batean esku hartzearen bitartez egingo litzateke.

- Foru aldundiak: Lurraldekoa gehiago izango den eremuan eta bere eskumen soziosanitarioetan ere lankidetzaz estuagoaren alde egingo litzateke.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

2010/2013

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

Jarduera garrantzitsuaren hasierako faseetako batean aurreikusi egiten da Osasun Publikoaren Legearen Batzorde Sustatzaile bar eratzea.

Aldi honetan, momentuz, ez da aurreikusi 4.e) idatz-zatiak aipatutako foru eta toki administrazioen esku-hartzeari dagokionez erakunde arteko eremuan ekintzak koordinatzeko organo edo mekanismorik finkatzeko aukera.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

- Elikaduraren Sektoreko Enpresa Elkarteak, Ingurumenaren Sektorea, Nekazaritzarena eta Osasunarena.
- Osasun Sistemako Erabiltzaile eta Gaixoen elkarteak.
- Hezkuntzaren sektorea.
- Sindikatu elkarteak.
- Gizarte agenteak.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

Osasun Publikoaren Lege Proiektuaren Zirriborroa aurkeztea aurreikusi da memoria honetan, lehenago aipatutako Gizarte Sektoreei, Erakundeei eta Esku hartzen duten agenteei. Horren edukiaren zati batek Agentziaren sorrerari eragiten dio.

42.- Kronikotasun Estrategia Euskadin.

1. HELBURUAK.

Joera demografikoen eta epidemiologikoen arabera, Euskadin eredu epidemiologiko berri baterantz goaz, gainerako gizarte aurreratuetan gertatzen ari den bezala. Gaixotasun kronikoen inpaktua errealitate bat da jada osasun zerbitzuetan, eta joera hori areagotu egingo da datozen urteetan. Beharrezkoa da errealitate horretara egokitzea.

Gaur egun, gaixo akutu eta kronikoez noizbehinkako harremana dute osasun sistemarekin. Orokorrean, osasun arazo bat dutenean edo gaixotzen direnean joaten dira osasun sistemara. Horrek esan nahi du arreta ereduarekin erreakziokoa dela funtsean. Gaixotasun akutuen kasuan gomendagarriena ziurrenik gaixotasuna azaldu arte itzarotea ez bada, are gutxiago izango da gaixotasun kronikoen kasuan.

Estrategia akastuna da, osasunaren eta ekonomiaren aldetik kostu handia eraginez pertsonen nahiz osasun zerbitzuei. Arreta ereduarekin pixkanaka egokitzean datza gaixo kronikoentzat, izan ere, gaur egun osasun sistemarekiko elkarrekintzen % 80a dira eta osasun gastuaren % 77 baino gehiago kontsumitzen dute. Gaixotasun akutuei emaniko arretan oinarritutako eredu hau ez da desagertuko, baina *gaixoarekin harreman berria* finkatuko duen eredu batekin osatu behar da.

Elkarrekintza hori jardutearen aldekoagoa izan behar da, osasunaren gaineko zaintza handiagoa, topatze goiztiarragoa, gaixotasunaren garapenaren aurrean babesa eta akutuago bihurtzea eta zailtasunak azaltzea saihesteko etengabeko kontrola sustatuz. Helburua gaixo horiek beren etxebizitzetan mantentzea da, behar ez diren ospitaleratzeak saihestuz eta, aldi berean, haien bizi kalitatea hobetuz.

2. AURREKARIAK.

Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo sailburuaren agerraldia Eusko Legebiltzarreko Osasun eta Kontsumo Batzordearen aurrean, IX. Legegintzaldian zehar bere sailak garatuko zuen programa azaltzeko.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

- Osasun eta Kontsumo Saila.
- Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian:

Araudia aldaraztea ez da ikusi; antolamenduan egin beharreko aldaketa bat da gehien bat.

b) Antolamenduan:

Gaixo kronikoentzat arreta eredia pixkanaka egokitzea, kudeaketa eredu berrietan oinarri hartuta. Horretarako, patologia anitzak edo mendetasuna duten adineko gaixoei lagundu eta haien gaineko jarraipena egiteko programak bultzatu, ebaluatu eta zabalduko dira, komunitateko erizaintza garatuz, gizarte zerbitzuekiko lankidetzak bultzatuz eta telekontrolako eta telemedikuntzako teknologia berriak erabiliz.

c) Aurrekontu eta Finantzeta:

- Biztanleria Mailakatzeko Proiektua.
 - Mailakatze proiektuaren ezarpena: definitzeko
 - Kronikotasunaren erronka Euskadin. Proposamen estrategiko bat:
 - Kronikogune Kronikotasunaren Gorentasun Zentro bat sortzearen egokitasuna aztertzea.
 - Erizaintza berria lan taldea: definitzeko
 - Gaixo-aditu Lan Taldea.
- Zenbatetsitako aurrekontu osoa: 830.000 €.

d) Gobernuaren beste jardura batzuetan (beste sail batzuk):

Osakidetza, O+Berri, Osteba eta Osatek.

e) Erakunde harremanak:

Aldundiak, Udalak.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

2010/2013

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

Parte hartzeko esparru global batean integratutako estrategiaren adierazpenean parte hartzea.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

Kronikotasun estrategia adierazterakoan hurrengoan parte-hartzea aurreikusi da:

- Sektoreko Sarea (sendagileak eta erizainak).
- Gaixo eta profesional elkarteak.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

Behar diren publizitate kanpaina guztiak egingo dira antolamenduko aldaketa ikus dadin. Horretarako kronikoen talde ezberdinentzat egindako berriazko saiakera proiektuak

martxan jarri eta barreiatuko dira eta 2.0 lankidetzaren ingurunean parte hartu eta barreiatzeko elementuen sorreran lan egingo da.

43.- Eraginkortasun Alderatuaren Agentziaren Sorrera.

1. HELBURUAK.

Gaur egun ez dago erakunde independenterik osasunaren alorrean teknologia eta tratamendu gomendioak emateko eraginkortasun irizpideekin. Hori dela eta, esparru publikoan erabakiak hartzen dituztenen eta eragindako interes taldeen eskura dagoen ebaluazioko plataforma objektibo bat hartu behar dugu, horrekin osasun sistemaren epe luzerako iraunkortasuna, haren eraginkortasuna eta kalitatea hobetuz.

Ondorioz, Eraginkortasun Alderatuaren Agentziaren sorreraren funtsezko helburu bereziak hauek dira nagusiki:

- Antolamendu independentea edukitzea.
- Teknologia eta tratamendu berriak edukitzea ahalbidetzen duten emaitzei buruz ebaluazio objektiboa emateko gai dena.
- Eta egun indarrean daudenekin alderatzea.
- Gomendioak eginez gure osasun sistemak horiek hartzeari buruz:
 - Zer kostu baldintzetan.
 - Ezarpeneko zer baldintzarekin.
 - Ordezko edo osagarri modura.

2. AURREKARIAK.

2009ko azaroaren 26an, Eusko Legebiltzarrak Gobernuari eskatu dio 2010ean “Eraginkortasun Alderatuaren Agentzia” izeneko agentzia independente bat sor dezala, Osasun Sistema Publikoan sartu litezkeen prestazioak proposatzeko, osasun eskaintzaren berrantolamenduari buruzko gomendioak egiteko nahiz baliabide publikoei ahalik eta erabilera onena emateko.

Eredu modura, nazioarteko hurrengo erreferentziak ditugu:

- INAHTA (Internacional Network of Agencies for Health Technology Assessment): Osteba, teknologia berrien eta osasun zerbitzuen gure ebaluazio zerbitzua agentzien nazioarteko sare horren kide fundatzailea da eta egun Board of Directors-eko zuzendari.
- EuroScan: Sortzen ari diren osasun teknologiak topatu eta ebaluatzeko sare europarra. Jarduera honetan garatutako berariazko programak dituzten 21 kiderekin eratuta.
- G-I-N (Guidelines International Network): Praktika Klinikoko Gidei buruzko berariazko lankidetzaren nazioarteko sarea.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

Osasun eta Kontsumo Saila.

4. JARDUERAREN ERAGINA

a) Araudian:

Eraginkortasun Alderatuaren Lege edo Dekretu proiektua (definitzeko dago oraindik); horren bitartez Eraginkortasun Alderatuaren Agentzia sortuko da.

b) Antolamenduan:

Antolamenduaren esparruan, Agentziara gorentasun klinikoko funtzio gehienak eramatea aurreikusi da. Horiek, egun, Eusko Jaurlaritzaren Administrazio Orokorretik egiten dira, Osasun eta Kontsumo Sailaren barruan.

c) Aurrekontu eta Finantzetan:

- Hasierako azterketak eta nazioarteko esperientziak (benchmarking).
- Prozesu eta jarduera aldagaien definizioa (governantza eta ebaluazioa).
- Antolamendu azterketa eta azterketa funtzionala eta juridikoa. (Agentzia kokatzea).
- Erreferentziako araua definitu, eztabaidatu eta onestea.

Proiektu hau egiteko aurrekontuez kanpoko eraginak edukiko dira, legebiltzarreko batzordeak 2010. urteko aurrekontuak finkatu osteko epean definitu eta bozkatu zuelako.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk):

Ez zaie gainerako sailei eragingo.

e) Erakunde harremanak:

Erakunde harremanak eratzea ez da aurreikusi.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

2010/2013

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

Aldi honetan, momentuz, ez da definitu organoak eta mekanismoak ezartzeko aukera erakunde arteko esparruko ekintzak koordinatzeko.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

Ez da aurreikusi gizarte agenteen berariazko parte-hartzerik jarduera garrantzitsua izapidetu eta burutzeari dagokienez.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

Komunikatu eta prentsaurreko ezberdinak egingo dira, proiektuaren aurrerapenei buruzko informazioa ematearen ildotik.

44.- Osasunaren alorreko Gobernu Onaren Kode bat lantzea.

1. HELBURUAK.

Gobernu Onaren Kode bat landu nahi da maila guztietan euskal osasunaren arduradunentzat (politikariak, elkargoko organoetako kideentzat, kudeatzaileentzat, profesionalentzat), horren bitartez balioetan (etikoak, profesionalak eta zerbitzu publikokoak) oinarritutako osasun sistema publikoa lortzen laguntzeko, gaixoetan oinarritzen dena, kalitate maila altua duena, eraginkorra dena eta interes gatazkak eta urradurak behar bezala prebenitzeko gai dena.

Kode hori egiteko oinarri gisa beste osasun sistema batzuetan dauden eta Osakidetza-EOZren gobernuari aplikatu dakizkiokeen osasuneko zerbitzu publikoen gobernu onaren alorreko esperientzia positiboen eta praktika onen azterketa hartuko da.

Horregatik guztiagatik, euskal osasun publikoarentzako gobernu onaren kode bat landuko da. Bertan, zera sustatuko da:

- Gizarte zibilaren eta profesionalen parte-hartzea osasun erakundeen gobernuan.
- Profesionaltasuna zuzendaritzako postuetara iristeko garaian.
- Publizitatea eta gardentasuna osasun antolamendu bakoitzeko erabaki garrantzitsuetan.
- Kudeatzaile publikoen artean ager daitezkeen interes gatazkak definitzea.

Xede hau lortzeko, Adituen Batzordea eratu da, eta haiek edukiko dute Kodea lantzeko ardura.

2. AURREKARIAK.

Osasun eta Kontsumo sailburuak, Eusko Legebiltzarreko Osasun eta Kontsumo Batzordearen aurrean IX. Legegintzaldian bere sailak garatu beharreko programa azaltzeko edukitako agerraldian, kezka agertu zuen baliabide publikoen kudeaketan beti konplexua izaten den gai batengatik, alegia, haren gobernantzarengatik edo beharbada hemen gobernu ona deitu dezakegun horrengatik.

Osasunaren alorrean gobernu ona lortzeak erabakiak hartzeko egiturak aldatzea eta horiek demokratikoago, parte-hartze handiagoko eta askoz ere gardenago bihurtzeko kontuak ematea eskatzen du. Halaber, beharrezkoa da etika publikoko irizpideak ezartzea, interes gatazkak saihesteko. Gobernu onaren kodeak sartzea, horiek gainbegiratu eta komunikatzea ohikoa da jada enpresa handi gehienetan. Osasun publikoak ere behar ditu horrelako kodeak.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

Osasun eta Kontsumo Saila.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian:

Agintaldia amaitu aurretik, Adituen Batzordeak hurrengo produktuak entregatuko dizkio Osasun eta Kontsumo Sailari:

- Osakidetza – Euskal Osasun Zerbitzuaren gobernu onerako eta kudeaketa onerako gidalerro politikoak biltzen dituen dokumentua.
- Osakidetza – EOZrentzat Gobernu Onaren Kodea izateko proposamena.

b) Antolamenduan:

Ez du antolamenduaren aldetik eraginik edukiko.

c) Aurrekontu eta Finantzetan:

Jarduerarako ez da aurrekontu edo aurrekontuz kanpoko eraginik aurreikusi. Jada ebaluatu diren barne irizpideak jarraituz egingo da.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk):

Ez zaie gainerako sailei eragingo.

e) Erakunde harremanak:

Elkargo profesionalak, sozietate zientifikoak, gaixo elkarteak, sindikatuak, ugazabak, eta akademikoak.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

2010.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

Aldi honetarako, momentuz, ez da definitu jarraitu beharreko metodologia. Hori Osasun eta Kontsumo sailburuaren 2010eko urtarrilaren 12ko Agindu bidez izendatu berri den Aholku Batzordeak definituko du.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

Kalitate eta adostasun sozial, politiko eta tekniko altuenean laguntzeko, Gobernu Onaren Kodea lantzeko lanak irekita egongo dira bertako helburuetan lagundu nahi duten instituzio, erakunde eta pertsona ospetsuen ekarpenentzat. Horregatik guztiagatik, erakunde eta gizabanako guztiak (elkargo profesionalak, sozietate zientifikoak, gaixo erakundeak, sindikatuak, ugazabak, akademikoak, eta abar) gonbidatuta daude Batzordearen lanean bere iruzkinak eta ekarpenak egitera. Horretarako, IREKIAN parte hartzeko proposamen berri

bat egingo da; bertan, Batzordeak lanaren jarraikako zirriborroak jarri ahalko ditu, jendaurreko kontsultarako eta iruzkinak eta ekarpenak egin daitezzen.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

Komunikatu eta prentsaurreko ezberdinak egingo dira, proiektuaren aurrerapenei buruzko informazioa ematearen ildotik.

45.- Jardun klinikoaren segurtasunean hobekuntzak sartzea.

1. HELBURUAK.

Gaixoaren segurtasunarekin zerikusia duen gertakari bat gaixo bati behar ez zen kaltea sortu dion edo sortu ahal izan dion gertaera edo inguruabarra da.

Gertaera kaltegarri bat gaixoari kaltea sortu dion (kaltetzat jotzen da egituraren eta funtzionaltasunaren aldetik gertatzen den nahasmendu oro edota hartatik erator daitekeen edozein eragin kaltegarri) eta osasun laguntzatik datorren gertaera da, osasun tratamendua jasotzen duen pertsonaren hasierako gaixotasunak sorturikoa izan beharrean.

Osasun laguntzari uztartutako gertaera kaltegarri bat jasan duten gaixoen kopurua % 9,3koa izan zen (% 8,4koa ospitaleratzearen eremura bakarrik atxikiz gero).

Azterlanean gertaera kaltegarri modura azaldutakoen % 45 “kalte arin” modura kalifikatu ziren, % 39 “neurri bateko kalte” modura eta % 16 “kalte larri bezala”.

Horregatik, helburu orokorra gaixoaren segurtasunari uztartutako eta kalte larri edo neurri batekoa dakartzaten 10.000 gertaera kaltegarri murriztea da, saihegarriz jotzen diren horien artean. Horrek esan nahi du, lehen fase batean, Kanpaina osoaren helburu gisa zenbatu den kopuruaren gainean % 20ko murriztapen eraginkorrerako ekimena bideratu behar dela. Aipatutako kanpaina hori gertaera kaltegarriak murrizteko bideratuko da.

Jarduera honen xedearen bigarren mailako beste helburu batzuk hauek izango dira:

- Erakundeen eta profesionalen segurtasun klinikoan aldaketa kultural bat egongo da. Sentsibilizazioaren, prestakuntzaren, gertaerak jakinarazteko sistemaren eta arriskuak kudeatzeko tresnen helmenean zabaltea.
- Gertaera kaltegarrien prebentzioa haurdunaldian eta erditzean (Euskadi+09 proiektua).
- BIOrekin lankidetzan ikerketa ildo bati ekitea, segurtasun klinikoaren alorrean.

2. AURREKARIAK.

Espanian, Osasun eta Kontsumo Ministerioko Kalitate Agentziak Ospitaleratzeari uztartutako Gertaera Kaltegarriei buruzko Estatu mailako Azterlana garatu zuen 2005ean (ENEAS azterlana). Bertan, 24 ospitale parte hartu zuen: guztira, 5624 gaixok eta ospitaleko 42.714 egonaldik. Osakidetzaren aldetik, San Eloy Ospitaleak parte hartu zuen aipatutako azterlan horretan.

Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo sailburuak Eusko Legebiltzarreko Osasun eta Kontsumo Batzordearen aurrean IX. Legegintzaldian zehar bere sailak garatuko zuen programa azaltzeko edukitako agerraldian, beharrezkotzat jo zen arreta eredua orientatzeko beharra, lehen arretan eta komunitatean zaintzeko (bizitokian) eredu alternatiboen arreta ereduatarantz, betiere, teknologia berrien laguntzarekin.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

Osasun eta Kontsumo Saila eta Osakidetza.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian:

Araudia aldaraztea ez da ikusi; antolamenduan egin beharreko aldaketa bat da gehien bat.

b) Antolamenduan:

Kudeaketaren antolamendu esparruan praktika klinikoak errazteko eta hobetzeko teknologiak garatzea aurreikusi da, norberak bere burua zaintzearekin batera. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoan historia kliniko bakarra eta elektronikoa martxan jartzea aurreikusi da 2010eko lehen seihilekoan, lehen arretako egungo historia klinikoak, Osabide AP eta Osabideren hasten ari den historia espezializatua elkarri konektatuz.

Zentzu horretan, proiektuak ez dakar eraginik Administrazio Orokorren nahiz bere sektore publikoaren antolamendu egiturari; aldiz, eragin zuzena du erakundearen kudeaketa esparruan.

c) Aurrekontu eta Finantzetan:

Zenbatetsitako aurrekontu osoa: 1.700.000 €.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk):

Ez zaie gainerako sailei eragingo.

e) Erakunde harremanak:

Erakunde harremanak eratzea ez da aurreikusi.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

2010/2013

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

Aldi honetan, momentuz, ez da definitu organoak eta mekanismoak ezartzeko aukera erakunde arteko esparruko ekintzak koordinatzeko.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

Ez da aurreikusi gizarte agenteen berariazko parte-hartzerik jarduera garrantzitsua izapidetu eta burutzeari dagokienez.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

10.000 gertaera kaltegarri prebenitzeko publizitate kanpaina bat aurkeztea aurreikusi da (infekzioak, ultzerak, erorikoak, kirurgia segurua, sendagaiak ematerakoan jazotzen diren gertaerak, eta abar).

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA.

46.- Informazio Hidrologikoari buruzko sistema automatikoa (Saih) eta Erabakian Laguntzeko Sistema (Sad) ezartzea.

1. HELBURUAK.

Muturreko hidrologiako gertaerengatik etorritako kalteen arriskua geroz eta handiagoa da, baita gizakien bizitzari eragindakoa ere etorrien kasuan; ondorioz, beharrezkoa da datu hidrologikoak eskuratu eta kudeatzeko azpiegiturak garatzea nahiz azterketarako tresnak garatzea, alerta goiztiarrak ezartzeko eta kalteak saihestu edota murrizteko erabilgarriak izango diren estrategiak hartzeko.

2. AURREKARIAK.

Uren gaien transferentziak egin zirenetik -1994. urtean- igaro den aldi, Uren Zuzendaritzak, hasiera batean Herri Lan eta Garraio Sailean kokatu zena eta ondoren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailean, esku hartu dute datu hidrologikoak eta uraren kalitateari buruzkoak eskuratzeko azpiegituren ezarpenean EAeko ibai garrantzitsuetan. Lan honek jarraitu egiten du gaur egun Uraren Euskal Agentzietatik.

Hemen deskribatutako jarduerak EAEn gai honetan sortutako informazio anitza integratzeko zentro bat sortzea dakar, bertan izaera hidrologikoko alerten aurrean erabakiak hartzeko laguntza sistema modura hura kudeatzea posible izateko azterketa tresnak ezarri ahal izateko.

Jarduera hori Saileko sailburuak hartutako konpromiso baten ondotik dator.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

- Herrizaingo Saila, Meteorologia eta Klimatologia Zuzendaritzarekin behar den lankidetzaren esparru bikoitzean datuak alde bientzat eskura egoteari dagokionez, eta Larrialdiei Aurrigiteko eta Babes Zibileko Zuzendaritza, uholde arriskuengatik alerten kudeaketan agente protagonista den heinean.
- Justizia eta Herri Administrazio Saila (Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritza), bere jarduera eremuaren pean azpiegiturak erabiltzea derrigorrezkoa izateagatik.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian:

Erreferentziako oinarrizko araudia Urei buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legea da, Uraren Euskal Agentzia sortu zuena.
Ez da aurreikusi esparru arautzailean eraginik edukitzea.

b) Antolamenduan:

Ez da aurreikusi.

c) Aurrekontu eta Finantzetan:

Jarduera Uraren Euskal Agentziaren ohiko aurrekontuarekin ezarriko da, eta baita *Aurrerantze* Programan jasotako ezohiko aurrekontuarekin ere. Oinarrizko kontzeptuen zenbatespen kuantitatiboa hau da:

- Datuak aztertzeko eta alerta goiztiarrak ezarri eta kudeatzeko baliabide informatikoen kalibrazioa: 4 milioi euro.
- Datuak eskuratu, kudeatu eta aztertzeko azpiegiturak: 8 milioi euro.

Azpiegituraren ustiapena eta mantentzea Agentziaren ohiko aurrekontuarekin jorratuko da.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk):

Erabili beharreko informazioaren izaera dela eta, 3. puntuan identifikatu diren sailen parte-hartzea behar da iraunkortasunez eta bere jarduera esparruko azpiegituren erabilerari dagokionez. Halaber, une zehatz batzuetan, izaera hidrologikoko ezohiko gertaeren kudeaketan ere behar izango da.

e) Erakunde harremanak:

Uraren kudeaketa esku-hartze gaia da Administrazioaren hainbat mailatik begiratuta. Ondorioz, datu hidrologikoak eskuratzera eta alerta bat ekartzea gerta daitekeen datu hidrologikoak eskuratu eta erabili eta aztertzerazuzendutako Jarduera batek lankidetzaz eta koordinazio berezia eskatzen ditu.

Herrizaingo Sailaz gain, jarduera honetan esku-hartze zuzena duten Administrazioak EAEn eskumendun diren Konfederazio Hidrografikoak, foru aldundiak eta horniduraren gaien eskumenak burutzeko sortu diren enteak dira. Ente horiek Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko 7/1985 Legeak finkatu zituen.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

Deskribatutako jardueraren hasiera data 2010. urtea da, eta 2014. ekitaldian zehar amaitzea aurreikusi da.

Egitura ustiatu eta mantentzea mugagabea izatea aurreikusi da.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

Sistemaren eragingarritasuna bermatzeko har daitezkeen bestelako akordioen kaltetan izan gabe, larrialdi egoeretan erakunde arteko koordinazioa bermatzeko asmoa duten berariazko bi protokolo edukiko dira:

- Meteorologiako fenomeno kaltegarrien aurrean prebentzioa, zaintza eta jarduera bideratzeko protokoloa.
- Uholdeengatiko arriskua kudeatzeko akordioa Herrizaingo Sailaren eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren artean.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

Ez da gizarte agenteen parte-hartzerik aurreikusi jarduera hau burutzeko.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

Jada deskribatu den moduan, jarduera bi elementutan antolatzen da, bata azpiegiturakoa eta berariazko helburu bati zuzendutako ezagutzakoa bestea. Halaber, azpiegitura ustiatu eta mantentzea jarraitutasun mugagabearekin egiteko asmoa dagoela adierazi da. Informazio hidrologikoaren eta uraren kalitateari buruzko informazioa integratzeko zentro bat denez, eskuratutako datuak, orokorrean, biztanleria interesdunaren artean barreiatzeko modu bat ezartzea aurreikusi da.

47.- Nekazaritzaren eta elikaduraren euskal sektorea sustatu eta hari balioa emateko kanpaina.

1. HELBURUAK.

Ekonomiari edo BPGari¹ dagokionez egin dezakeen ekarpen soiletik haratago, nekazaritzaren eta elikaduraren euskal sektorea sektore estrategiko modura hartu behar da, eta ez bakarrik Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzak agertoki globalean iraungo duela eta lehiakorra izango dela bermatzeko ahalik eta elikagai gehien ekoizteko behar saihestezinarengatik, baizik eta, baita ere, gure gizarteari balio kalkulazineko ukaezin batzuk ekartzeagatik:

- ▶ Euskadi bere nekazaritzarekin identifikatzea: gastronomia, tradizioak, paisaia, kulturari eustea (euskara mantentzea, besteak beste).
- ▶ Ingurumen funtzioa eta ingurunea mantentzekoa: ura finkatzen, lurra higatzea saihesten, CO₂ finkatzen, biodibertsitatea mantentzen, ekosistemak babesten, eta abarretan laguntzea.
- ▶ Nekazaritzako lurzorua kudeaketa (EAEko lursailen % 85).
- ▶ Landa ingurune bizian eta landa eta hiri inguruneen arteko biztanle orekan laguntzea.

Hala eta guztiz ere, euskal gizarteak, industriaren eta zerbitzuen sektoreari uztartutako garapen ekonomiko zabalean oinarrituta, neurri bateko distantziarekin begiratzen dio lehen sektoreak betetzen duen paperari, hark ekartzen dituen balioen funtzio anitzeko multzoaren barneratzea jazotzea erabat amaitu izan gabe.

Horrek oso ondorio negatiboak daramatza berekin sektoreko profesionalentzat autoestimaren eta atsekabearen alorretan –eta are gehiago errentagarritasun txikien testuinguru luzatuan–. Hori nekazaritzaren jarduera bertan behera uztea eta belaunaldi berrietan txandarik ez hartzea eragiten ari da. Horrek, epe luzera, arriskuan jartzen du gure herrialdearentzat, hazkunde handia izan dezakeen eta ekarpen ekonomikoa egin dezakeen heinean, ezinbestekoa den sektore baten etorkizuna.

Zentzu horretan, oso garrantzitsutzat eta oso komenigarritzat jotzen da euskal gizarteak sentsibilizatzea zuzendutako maila zabaleko barreiapen kanpaina eutsia garatzea. Sentsibilizazio hori sektorearen izaera estrategikoaren inguruan eta hark ekarritako ondasun publiko eta mozkin sozioekonomikoen inguruan egitekoa litzateke.

Helburuak:

- Euskal gizartearen artean, nekazaritzaren eta elikaduraren bere sektoreak betetzen duen benetako papera eta hark ekarritako kanpo eragin positiboak barreiatzea (batez ere lurraldearen kudeaketa iraunkorrari dagokionez).
- Sektorearen irudia hobetzea.

¹ EAEko nekazaritzaren eta elikaduraren sektoreak BPGaren % 2,3ko ekarpena du gutxi gorabehera eta ia 40.000 lanpostu (2005).

- Sektoreko profesionalen autoestima eta harrotasuna areagotzea, sektorea aniztean esku hartzen dutela bultzatuz eta paisaia mantentzeko eta ingurumenari dagokienez ekartzen dituzten balioei buruz kontzientziaraziz.
- Sektorean gazteak sartzen direla bultzatzea.

2. AURREKARIAK.

Jarduera hori lehentasunezko jarduera bezala ageri zen Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak legebiltzarraren egoitzan eta bere sailaren Jarduera Ildoak aurkezteko edukitako agerraldian (2009ko ekaina) iragarritakoen artean.

Gainera, aurreko Legegintzaldiko legebiltzarraren agindu bat dago (lehen sektorearen irudia hobetzeko kanpainari buruz legezkoa ez den proposamena, 2007ko martxoaren 5koa). Bertan:

“Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:

- 2007. urtean zehar komunikazio eta barreiapen kanpaina bat landu dezala, lehen sektorearen irudia hobetzeko, landa inguruneke sare sozioekonomikoa mantentzeko ingurumen agente eta ezinbesteko agente den heinean.
- Gure Autonomia Erkidegoan kalitatezkoak eta ingurumenarekin errespetuzkoak diren produktuak sustatzeko egiten diren kanpainetan aitortu dadila ere lehen sektorean lan egiten duten pertsonen lana.
- ‘EAEko nekazaritza ezaren’ kostuari buruzko azterlana berriro barreia dezala, joan den 2006. urtearen amaieran landutakoa; bertan, lehen sektorea Euskal Autonomia Erkidegoan elementu estrategiko modura baloratzeko beharra agerian geratu zen”.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA:

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian:

Eraginik gabe araudiaren alorrean.

b) Antolamenduan:

Eraginik gabe antolamenduaren alorrean.

c) Aurrekontu eta Finantzetan:

Zehaztu zain.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk):

Eraginik gabe beste sail batzuentzat.

e) Erakunde harremanak:

Hiru foru aldundietako Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza sailekin erakunde arteko lankidetzaz edukitzea bultzatuko da.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

2010/ 2013.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

Kanpainan foru aldundiekiko lankidetzaz Nekazaritza eta Elikadurako Politikaren Batzordearen bitartez egingo da (Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legea, 93. art.).

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

Kanpaina abian jarri aurretik, eta haren edukiei nahiz barreiapen formatuei dagokienez, hura Euskadiko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Kontseiluan (Nekazaritza eta Elikagaigintzako Politikari buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legea, 92. artikulua) aurkeztuko zaie sektoreko agente nagusiei. Horren xedea haien balorazioak eta ekarpenak aintzat hartzea izango da.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

Euskal Nekazaritzaren eta Elikaduraren Sektorea Sustatu eta hari Balioa Emateko Kanpaina euskal gizarte osoari zuzenduta dago.

Denboran luzatuko den kanpaina bat denez, eta bertan mezu sorta zabala kokatuko denez, komunikazio formulak “olatueta” pentsatu behar dira, gure herritarren artean mezuek irauten dutela eta pixkanaka sartzen direla bermatzeko. Halaber, mezu horiek gure eskura dauden barreiapen bide ezberdinetara egokituko zaizkie: hiri altzariak (estatikoa edota dinamikoa), prentsa, irratia, TB, Irekia/Gobernu irekia eta 2.0 webgunea.

48.- Nekazaritzako, elikadurako eta arrantzako prezioen behatokia Euskadin.

1. HELBURUAK.

Nekazaritzako, Elikadurako eta Arrantzako Prezioen Euskadiko Behatokia nekazaritza eta elikaduraren katean prezioak eratzeko prozesuari buruz ezagutza emateko tresna metodologiko eta azterketakoa da, merkatuetan gardentasuna lortzen laguntzeko.

Behatokiaren asmoa EAEko herritarrak jakinaren gainean edukitzea da elikagaiak jatorrian eta destinoan dituzten prezioen gainean; helburua marjina ekonomikoak eta haien banaketa erakustea da nekazaritza eta elikaduraren kateko maila ezberdinetan.

Behatokiak erosketak saskiko elikagai garrantzitsuenen eta oinarritzkoenen prezioen gaineko jarraipena egingo du, ekoizletik hasi eta kontsumitzaileeraino iritsi arte. Alderaketak egingo ditu euskal merkatuaren ingurune ezberdinetako eta beste erkidego nazional, europar, eta abarretako merkatuetako prezioen artean.

Halaber, xehetasun azterlanak egingo dira elikadurako produktuen marjinen gainean, denboraldia, esku hartzen duten bitartekariak, merkataritzako jarrera, eta abar gorabehera. Helburua interesdunei elikaduraren katean prezioek duten egoera laburbiltzeko adierazleak ematea izango da.

Tresna berri honetatik saiakera egingo da kontsumitzaileek prezioak ezagut ditzaten eta jatorriaren eta destinoaren artean ageri diren aldeak eragiten dituzten arrazoien berri eduki dezaten. Halaber, nekazaritza eta elikaduraren kateko maila guzti-guztien, alegia, ekoizleen, eraldatzaileen, banatzaileen, kontsumitzaileen eta herri administrazioen arteko elkarrizketaren alde egin nahi da, eztabaida sortuz prezioen portaeraren gainean. Helburua ahalik eta gardentasun handiena lortzea da aldaketen arrazoien inguruan.

Helburuak:

- Maiztasunarekin informazioa sortzea, elikagaien amaierako prezioen eraketaren gainean jarraipen sistematikoa ezartzera zuzenduta.
- Prezioen oinarritzko egitura nahiz haien bilakaera eragiten duten faktoreak aztertzea garrantzi erlatibo handieneko elikagaietan, bai ekoizpenari dagokionez, bai kontsumoari dagokionez.
- Azalpen txostenak eta azterlanak egitea balio katean sortutako balizko desoreka egoerak azaltzeko, eta elikagai produktuen prezioei buruzko txostenak lantzea.
- Ekoizpen, eraldaketa, merkataritza banaketa eta kontsumoko sektoreetako ordezkarien artean elkarrizketaren eta elkarrekiko komunikazioaren alde egitea, bai beraien artean, bai haiek Administrazio Publikoekiko dituzten harremanetan.
- Administrazio eskudunen jarduera proposamenak lantzea eta gomendioak egitea esku hartzen duten agente ekonomiko ezberdinentzat, enpresentzat eta erakunde publiko zein pribatuentzat.

2. AURREKARIAK.

EAEko elikaduraren kate osoa ezagutu eta kontrolatzeko elementu modura Prezioen Behatokia sortzea nekazaritzaren eta basoen sektorea bultzatzeko berariazko helburu bat agertzen zen Hauteskunde programako Herrialdea Modernizatzea izeneko V. Kapituluaren barruan.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA.

- Sail sustatzailea: Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila.

- Sail laguntzaileak:

- Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila, handizkako eta txikizkako establezimenduetan prezioak kontrolatzeari dagokionez.
- Osasun eta Kontsumo Saila, kontsumoko prezioei buruzko informazioari eta kontsumitzaileen babesari dagokienez.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian:

Eraginik gabe araudiaren alorrean.

b) Antolamenduan:

Eraginik gabe antolamenduaren alorrean.

c) Aurrekontu eta Finantzetan:

Sailaren ohiko aurrekontu orokorrean inpaktu mugatua edukitzea aurreikusi da.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk):

Sail laguntzaileentzako esku-hartzea eta beharrezko koordinazio mekanismoa diseinatu zain daude.

e) Erakunde harremanak:

Ez da beste erakunde batzuekin harremanak edukitzea aurreikusi.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

2010/2011.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

Ez da beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea aurreikusi.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

Prezioen Behatokia abian jarri aurretik, eta haren edukiei nahiz barreiapen formatuei dagokienez, hura Euskadiko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Kontseiluan (Nekazaritza eta Elikagaigintzako Politikari buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legea, 92. artikulua) aurkeztuko zaie sektoreko agente nagusiei. Horren xedea haien balorazioak eta ekarpenak aintzat hartzea izango da.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

Behatokiaren barreiapen esparrua euskal herritar multzoa izango da.

Nekazaritzako, Elikadurako eta Arrantzako Prezioen Euskadiko Behatokiak barreiapen tresna bat edukiko du webgunean, eta txostenak eta artikulak egingo ditu paper euskarrian eta argitalpen espezializatuetan argitaratzeko.

KULTURA SAILA

49.- Sorrera fabrikak.

1. HELBURUAK.

Kultura ekoizpenaren esparruko politika publikoek azpimarratu egin dituzte eta beren administrazio eta ekonomi esfortzu handienak jarri dituzte nagusiki balio katearen bi mailatan:

- Kultura edukiak egitea, gehien bat sektore ezberdinetako ekimen pribatuaren kontura. Horien izaera enpresakoa da geroz eta gehiago.
- Merkaturatzeko azpiegiturak eta egiturak (sareak, zirkuituak, eta abar).

Eskaintza kulturalen inbertsio bizia egin dela ikusi da, eta horrek aukera eman du sektoreko geografari nolabaiteko egitura emateko, sektorea gorabehera trinkotasun ezberdina eduki duena. Gainera, horrekin, profesional eta enpresa, ETE eta mikro ETEz eratutako substratu interesgarria dago, geroz eta handiagoa den kultura ekonomia garatzearekin betara enplegua eta negozio ildoak sortzeko gaitasunari dagokionez kultura ekoizpenen esparruan.

Aitzitik, beste esku-hartze eremu batzuetan ardurarik gabe jardun izanak sistema osoari karga ekartzen dio, eta hori bereziki nabarmena da egungoa bezalako aldaketa garaian eta ziurtasun ezeko garaian. Proiektu honi dagokionez, badira izaera estrategikoko bi, eta ezinbestekoa da horien gainean jartzea arreta berriak:

- Prestakuntza.
- Sormena.

Sormena, esparru publikoaren tutoretza alderdi guztietan azaltzean oinarritutako egungo sistemaren pean diru-laguntza eskaintza ezberdinen bitartez, nahastu egin da produktuen diseinuarekin. Produktu horiek, kasu askotan, ez dute egungo banaketa/erakusketa bideek, titulartasun publikoak ere sektore gehienetan, eskatzen dituzten ezaugarri zehatzetara egokitzea bilatzen besterik.

Publikoaren eta pribatuaren artean azken urteotan sortuz joan den eredu baten gabezia da, eta horrek hurrengo ondorioak ditu:

Elkarrizketa falta da, elkarrekintza sortzaileen artean, igorle modura, eta jendearen artean, hartzaile modura.

2.- Egokitzeko malgutasun eskasa, edo, hobe esanda, aldaketak aprobetxatzeko eta aldaketa teknologikoek berekin dakartzaten une berriak eta haiekin datozen erabilera berriak eta herritarrek etikari eta estetikari dagokienez kulturaren jarduna ulertzeko dituzten moduak aprobetxatzeko.

Bigarren horri aurre egiteko, +ck+labs! Jarduera garrantzitsu hau diseinatu da. Honekin sormena eta berrikuntza uztartu nahi dira ekoizpen kulturalaren alorrean, ikerketa espazioak ireki talentu berriei eta egiteko modu berriei; esperientzia uztartu gazte lengoia heterodoxoekin; aukera bat eman joerak finka ditzaketan balizko abangoardiei eta, azken

batean, sortzaile guztiei hazteko eta alderatzeko esparruak eskaini, bere horretan, nahitaez askotan geldiarazten duen enpresa egituraren zati bat bezala hartu beharrik gabe. Izan ere, maiz ez dira horretarako gai izaten.

Proiektu osoak hiru ekintza ildo nagusi hartuko ditu:

- 1.- Sorrera fabrikak.
- 2.- Sormen Esperientzien Sarea.

Bi kasu hauetatik edozeinetan, nagusiki hausnartu den arte adierazpenen esparrua hau da:

- Multimedia sormena.
- Arte bisualak.
- Arte eszenikoak eta mugimenduaren arteak.
- Musika.
- Kultura garaikidearen beste adierazpen batzuk.

3.- Prestakuntza + = Berrikuntza +

2. AURREKARIAK.

Jarduera garrantzitsu berritzaile baten aurrean gaude; honek orain arte erabilitako Kulturaren Euskal Planetik kanpo araketarik egin gabeko ibilbide bat egiten du. Jarduerearen mamia inplizituki jasota dago Hauteskunde Programaren paragrafo ezberdinetan: "... Horrek guztiak konpromiso publiko sendoa eskatuko du, eta ez bakarrik kulturarekin abstraktuan, baizik eta bere oinarrian den horrekin, sormenarekin eta sortzaileekin, eta baita elkarrizketako eta lankidetzako esparru iraunkorra ezartzea ere...", "... sektore arteko politika zehatzak... diziplinaren esparrua eta ikuspegia gaindituko duten gaiak garatuz (berrikuntza, identitatea, nazioartekotzea, joerak...)". Kultura Sailaren Plan Estrategikoaren oinarritzko jarduera ildoen barruan dago.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

Sail bat zuzenean: Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila.

- Batetik, beste enpresa publiko batzuekin batera, erabiltzen ari ez diren lokal egokiak topatu eta ematen laguntzeko.
- Halaber, kultura esparruari egokitze aldera, enpresak sortu eta mantentzen direla laguntzeko neurriak, jarduera garrantzitsu hauetan parte hartzerik badute.
- Bestetik, Berrikuntzari buruzko eskumenean, aholkularitza eta ezagutza, administrazio erraztasunak eta proiektuko alderdi berritzaile bereziak jorrazteko behar diren baliabideak ekartzea eragin daitekeen guztian.

Beste alde batetik, oso positiboa litzateke Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren esku-hartzea, zentro hauetan enplegua pizteko eta kultura autoenpleguko programak jorratu ahal izateko Eusko Jaurlaritzatik sektore artistiko hauekin eta Artimetria (lan artistikoaren ebaluazio ekonomikoa egiteko sistema) izenez ezagutzen den horri jarraiki edukitako hausnarketan ildo beretik.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian:

Ez dago berariazko lege esparru batean kokatuta, kultur jardunari laguntzak emateko araubidea arautzen duen horretatik haratago. Esparru arautzaile horren barruan, bai izango dela beharrezkoa laguntzen eta kudeaketa emakiden berariazko prozedurak lantzea, oraindik zehaztu gabe dauden arren. Horiek neurrira definituko dira, ekipamendu zehatzetan irekitako itxaropenak ebazten doazen heinean.

b) Antolamenduan:

Gomendagarria izango da berariazko enteren bat sortzea edota antzekoa den besteren batean sartzea (Arteen eta Kultura Industrien Euskal Institutuaren parekoa). Aukera hori gauzatu egin behar da sortzaileen euren parte-hartzearekin eta hura sortzeko aukerari buruzko adostasunera iritsita alde zuzenetik. Xedea eraginkortasun gehiagoz erantzutea izango da bere kudeaketa eta malgutasun beharrei.

c) Aurrekontu eta Finantzetan:

2010 ekitaldirako 30.000 € jartzea aurreikusi da programaren bideragarritasuna aztertzeko, eta 1.100.000 €, berriz, lokalak eskuratu eta gaitzeko.

Aukera modura identifikatzen diren sektoreekin eta azpiegiturekin akordioak lortzen diren heinean, aurrekontu zuzkidura berriak proposatuko dira datozen ekitaldietan gauzatzeko.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk):

Koordinazio mekanismoak behar dira hurrengo sailekin:

- Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila.
- Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

e) Erakunde harremanak:

Hitzarmenak eta akordioak sinatuko dira aldundiekin, udalekin eta izaera publikoko beste enpresa batzuekin, bai haietako edozeinen jabetzakoak izan daitezkeen espazioak identifikatu eta emateko, bai jarduerarako baliabideak zuzkitu eta mantentzeko.

Horrela, bada, erakundeekiko harreman maila ezberdinak ezarri beharko dira, hurrengo proiektu zehatzak gorabehera:

- Jada existitzen direnak eta Adierazpen Sortzaileen Sareari atxikitzerik dutenak, lan programa zehatz baten arabera.
- Espresuki sortzerik daudenak akordioaren izaera finkatuko duen azpiegitura bat gorabehera, haren egoerari, jabeei, hirigintza planei, eta abarri jarraiki.

Are gehiago esatearren, aurreikusteko modukoa izango da finantza erakundeekiko harremana eta merkataritza izaerako beste batzuekikoa, kasu askotan jabe edo babesle modura esku hartzen baitute (Sepi, VitalKutxa, SpriLur...).

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

2010-2013

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

Proiektuaren Plan Zuzendarian zehaztuko da.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

Zehazteko dagoen edukia, 2010eko bigarren hiruhilekoan argitaratuko den katalogoa gorabehera.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

Proiektuaren Plan Zuzendarian zehaztuko da.

50.- Kulturako % 1aren kudeaketa.

1. HELBURUAK.

Behin uztailearen 28ko 204/1998 Dekretuaren bitartez finkatutako araudiaren garapena egin eta gero, kulturako % 1aren aplikazioak eduki duen garapen eskasa identifikatu da.

Planteatu diren helburuak bi dira:

- a) Lege aurreikuspen honi eman behar zaion kopuru ekonomikoa, Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legean bildutakoa, eguneratzea.
- b) Lege horretan jasotako printzipioa eraginkor bihurtzea. Horren arabera, Monumentu eta Monumentu Multzoen aitortpenak nahiz haien babesak kasuan kasuko sustapen eta laguntza neurrien laguntza eduki behar dute.

Zentzu horretan, % 1aren aplikazioak hurrengoetarako laguntzak ematea esan nahi du:

- Alde Zaharren biziberritzea.
- Landa eta industria ondareari erabilera berriak ematea, jendea bizi den espazio horiek berreskuratze aldera.
- Aztarnategi arkeologikoak dituzten lursailak erostea. Laguntza horiek udalei, zaharberrikuntza sozietateei, sustatzaileei eta herritar partikularrei zuzendurikoak dira.
- Hirigintza plangintzaren aldarazpena.
- Barreiaipen eta sustapenerako beste ekintza batzuk.

2. AURREKARIAK.

Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailearen 3ko 7/1990 Legeak aurreikusi egiten du 106. artikuluan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioek erreserbatu egin behar dutela Herri Lanetan 50 milioi eurotik gorako zenbatekoa duten aurrekontuetatik, gutxienez, obra horien zenbatekoaren % 1ari dagokion partida, eta zenbateko hori kultur ondare babestuari zuzendu.

Lege esparru hau garatzeko zera onetsi zen: 204/1998 Dekretua, uztailearen 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko eta bere Lurralde Historikoetako herrilanetarako aurrekontutik diru-atal bat gordetzeko arau erregulatzailerak ezartzen dituen. Diru-atal hori Euskal Kultur Ondarea babestean, aberastean, zaintzean, zabaltzean eta sustatzean erabiliko da.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

- Ekonomia eta Ogasun Saila.
- Herri lana burutzen duten sail eta erakunde publikoak.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Araudian:

- 7/1990 Legea, uztailearen 3koa, Euskal Kultur Ondareari buruzkoa.
- 204/1998 Dekretua, uztailearen 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko eta bere Lurralde Historikoetako herrilantarako aurrekontutik diru-atal bat gordetzeko arau erregulatzailerak ezartzen dituenak. Diru-atal hori Euskal Kultur Ondarea babestean, aberastean, zaintzean, zabaltzean eta sustatzean erabiliko da.

Hasiera batean ez da hura aldaraztea aurreikusi alor honetan, 7/1990 Legearen aldarazpenak beste alderdi batzuetarako jorratzearen kaltetan izan gabe.

b) Antolamenduan:

Ez da aldarazpenik behar Kultura Sailaren antolamendu egiturari.

c) Aurrekontu eta Finantzetan:

Jarduera honen xedea Kulturako % 1aren finantzazioa egokitzea da, benetan gauzatzen den obra publikoari jarraiki.

Egokitzapen horrek garrantzia edukiko du obra publikoa garatzen duten sail eta erakunde publikoetan.

Gastua aplikatuko zaien kontzeptuak Kultura sailburuaren Aginduan aurreikusitakoak izango dira. Agindu horren bitartez Euskal Kultur Ondarea defendatu, aberastu, babestu eta sustatzeko diru-laguntzak iragarriko dira, eta baita hari eragiten dioten Hirigintza Plangintzako Baliabideak idatzi eta aldarazteko ere, eta emakida araubidea finkatu egingo da.

Gaur egun, obra publikorako erabiltzen den zenbatekoa ezagutzen ez den bitartean -hori da ekintza honen helburua-, ezin da hurbilketa kuantitatiborik egin.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk):

Obra publikoa burutzen duten Eusko Jaurlaritzaren sail eta erakunde publikoek eraginkor bihurtu beharko dute kulturako % 1aren erreserba, eta Ekonomia eta Ogasun Sailari egokituko zaio lege manu horren kudeaketa ekonomikoa egitea.

e) Erakunde harremanak:

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

2010/2011

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

Garapenerako metodologia uztailaren 28ko 204/1998 Dekretuan finkatuta dago.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

Jarduera garrantzitsu hau lantzeko prozesuan ez du parte hartzen Administrazio Publikoko zerbitzuetatik kanpoko interes talderik.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

Barreiapen esparrua hurrengoetan zehazterik dago:

- Deialdia berariaz jakinaraztea udalei eta Kultur Ondarearen defentsa eta sustapenarekin zerikusia duten entitate publiko eta pribatuei.
- Publizitate kanpainak hura aplikatu ostean lortu diren helburuak barreiatzeko.
- Hedabideetan agertzea.

51.- Kirol azpiegiturei eta planei bultzada ematea.

1. HELBURUAK.

- Fadurako Kirol Teknikazio Zentroa bultzatzea, goi mailako kirolaren eta olinpismoaren erreferentzia modura Euskadin.
- Bizikletaren estrategia osoa bultzatzea, EAEn hark duen erabilera areagotzeko.

2. AURREKARIAK.

Goi mailako kirola bultzatzeko beharrezkoa da azpiegitura egokiak edukitzea. Euskadin Zentro bat dugu Faduran (Getxo, Bizkaia); bertan kokatzen da, beste hainbat zerbitzuren artean, Hobekuntza Teknikoko Zentroa, eta hari agintzen zaio euskal kirol federatu guztiaren aholkularitza, ebaluazioa eta kontrol osoa eta, batez ere, goi mailako kirolarena.

Goi Mailako Dekretu proiektuak ere jasotzen du Kirol Teknikazio Zentroak gaitzearena; horren helburua kirol modalitate zehatzetarako entrenamendu zentro izatea da. Zentro hauek behartuta daude komunikazio bideak eta lankidetzaren harreman iraunkorrak ezartzera Fadurako Hobekuntza Teknikoko Zentroarekin.

Bizikletaren erabileraren bultzada gauzatu joan da Euskal Autonomia Erkidegoan Bidegorrien Lurralde Plan batean. Hura Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak garatu zuen eta txirrindularientzako 1.000 km bidetik gora biltzen dituzten 13 ibilbide hartzen ditu. Aitzitik, ez da bizikletaren estrategia osoa garatu, eta hori 2006ko abenduaren 26an Gobernuak hartutako erabakia hartuta ere. Horren arabera, EAEn Bidegorrien Plan Zuzendari bat lantzeko konpromisoa hartzeaz gain, bizikletaren estrategia osoa garatzea aurreikusi zen.

3. ESKU HARTZEN DUTEN SAILAK ETA ESKUMEN INFORMAZIOA

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila da Fadurako Zentroa eta bertan kokatzen diren bere zerbitzu guztiak mantendu eta bultzatzeko eskumenduna. Horien artean kokatzen da ere Hobekuntza Teknikoko Zentroa.

Bizikletaren estrategia osoa bultzatzeari dagokionez, jarduera hau zeharka jorratu beharko litzateke. Egiteko hori garatzeko ezinbestekotzat jotzen ditugun sailak hauek dira: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila (Garraio Zuzendaritza); Kultura Saila (Kirolak); Osasuna eta Kontsumo Saila (Osasun Publikoa); Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (Hezkuntza Berrikuntza); Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila (Basquetour eta EEE); Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila (IHOBE) eta Herrizaingo Saila (Trafikoa).

4. JARDUERAREN ERAGINA

a) Araudian:

Euskadiko kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legeak interes publikokotzat aitortzen du “goi mailako kirola” deitzen den hori, eta Eusko Jaurlaritzari eskatu egiten dio hura antolatu, bultzatu eta kontrola dezala.

Fadurako Hobekuntza Teknikoko Zentroaren araudia eta funtzioak beren beregi garatuta daude izapidetze bidean dagoen goi mailako Dekretuan.

Bizikletaren estrategia osoari dagokionez, 2006ko abenduaren 26an Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak EAEren atxikipen aitordpena onetsi zuen Amsterdamgo Deklaraziora atxikitzeko. Deklarazio horrek bizikletaren erabileraren defentsa, sustapena eta barreiapena egiten ditu. Erabaki horretan, 2006ko maiatzaren 17an onetsitako Eusko Legebiltzarraren erakunde adierazpenaren ondotik hartutakoa, Gobernuak bizikletaren estrategia integrala garatzeko konpromisoa hartu zuen eta baita EAEko Bidegorrien Plan Zuzendaria lantzekoa ere.

b) Antolamenduan:

Bizikletaren estrategia osoak bakarrik du eraginik antolamenduan.

c) Aurrekontu eta Finantzetan:

Hauek aurreikusi dira:

- Fadurako Kirol Zentroa bultzatzea, goi mailako kirolaren eta olinpismoaren erreferentzia modura Euskadin. Haren barruan kirolarientzako bizitokia martxan jarri nahi da. Martxan jartzeko hasierako inbertsio modura 100.000 €-tik gorakoa izango ez den kopurua aurreikusi da, egon daitekeen defizita estaliz.
- Halaber, beharrezkotzat jo dira beste inbertsio batzuk, HTZko laborategi biomedikoko ekipamendua hobetzeko. Haren zenbatespena, gutxi gorabehera, 60.000 €-koa da.

d) Gobernuaren beste jarduera batzuetan (beste sail batzuk):

e) Erakunde harremanak:

Fadurako Hobekuntza Teknikoko Zentroak EAEn aitortzen diren kirol Teknikazioko Zentroak koordinatuko ditu. Halaber, Estatuan dauden Goi Mailako Zentroekin koordinatuko da; horretarako, Kiroletako Goi Mailako Kontseiluarekin eta Espainiako Batzorde Olinpiarrarekin lankidetzan aritu beharko da.

Bizikletaren estrategia osoari dagokionez, ezinbestekotzat jotzen da foru aldundiek, udalek eta mankomunitateek parte hartzea, eskumenak, aldez aurretiko eskarmentua, burutzeko gaitasuna eta egun ekimenak dituztelako.

5. JARDUERA BURUTZEKO AURREIKUSI DEN EPEA.

- Faturako Zentroan kirolarientzako bisitokia martxan jartzea 2010. urte honetarako aurreikusi da. Ekipamenduko hobekuntzak datozen ekitaldietako aurrekontu aukeren arabera izango dira.
- Bizikletaren estrategia osoa. Urteko lehen hiruhileko honetan zehar, proposamen zehatz bat egingo da EAEn zikloturismoa garatzeko saiakuntza plan bat egiteko.

6. ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZA GARATZEKO METODOLOGIA.

7. GIZARTE AGENTEEN PARTE-HARTZEA JARDUERA GARRANTZITSUAREN IZAPIDETZE ETA BURUTZAPENEAN.

- Euskal Kirol Federazioak.
- Federazio, klub eta elkarte ziklistak, hiriko txirrindularitza taldeak, merkatariak eta fabrikatzaileak.

8. JARDUERA GARRANTZITSUAREN BARREIAPEN ESPARRUA.

Sailaren baliabide propioak (webgunea, Kulturaren atari interaktiboa), Irekia. Hedabideak eta, batez ere, hedabideetan kirolaren munduari utzitako espazioak.